



Euskeraren Erri Akademia / Academia Popular de la Lengua Väsca
L'Academie Populaire de la Langue Basque

Euskerazaintza

LXXVI Zenbakia • 2015. urtea-2

Euskalerriaren edestia IV

Gure irakurleari:

Azken zenbakian gure aldizkari au artzen dute-
nentzat eta adizkideentzat jarritako oar bat agertu
zan, arpidendunai diru-laguntza eskatuz.

Batzuk arpidetza zenbat dan jakin nai dute eta
gure erantzuna au da: “Len”, oraingoz ez degu
arpide-saria zeaztuteko asmorik, al degun artean
naiago dogu irakurleen gogo ona kontuan artu eta
emaitza ematen digutenak “laguntzaille” taldera
sartuko ditugula esaten da gendun.

**Gaur, diru kontuetan estutasunean sartuta
gagoz, eta al dauanak gura geunke “urtero” 30
euro ordaintzea, bealdean aipatzen dogun gure
kontuen zanbakietan.**

Gure kontuen zanbakiak onek dira:

BBVA: ES41-0182-1296-00-0201538669

KUTXA: ES80-2101-0200-46-0006681589

EUSKERAZAINTZA

Euskeraren Erri-Akademia

Colón de Larreategi 14, 2^a eskuma

48001 - BILBAO

e-mail: aeuskerazaintza@gmail.com

www.euskerazaintza.org

Z. N. A. / C. I. F. G 20/127. 759

Eusko Jaurlaritzaren Elkartea Erroldan, 1136 zenbakia.

Erri Zuduzkotasunaren Aldarrikapena
(BOE 45/1981 eta EE. AA. 96/1984)

I.S.B.N. : 1132- 1318

Legerako Gordetza: BI-1928-87

Diseinua eta inprimaketa: IBEGRAFIK
www.ibegrafik.com

Laguntzaille



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

<i>Atarikoa</i>	5
-----------------------	---

Euskalerrriaren Edestia

4n. ATALEKO 1'go ZATIA.

<i>AURKEZPENA</i>	7
<i>Sarrera</i>	8
<i>Gurutzada Santuak</i>	16
<i>Lenengo gurutzada santua</i>	17
<i>Bigarren gurutzada</i>	18
<i>Irugarren gurutzada</i>	19
<i>Zaldunen Krak</i>	19
<i>Laugarren gurutzada</i>	20
<i>Umien gurutzada</i>	21
<i>Bostgarren gurutzada</i>	21
<i>Seigarren gurutzada</i>	21
<i>Zazpigarren gurutzada</i>	22
<i>Zortzigarren gurutzada</i>	22
<i>EUSKALERRIKO EDO TANAFARROAKO GURUTZADAK</i>	23
<i>878ko urtean, Asturias en alde egindako gurutzada</i>	24
<i>NAFARTARREN GURUTZADAK MAURITARREN AURKA</i>	25
<i>Nafartarrak Errioxa berreskuratzera</i>	25
<i>Leoneko erreinura egindako Gurutzada. Mindonia edo Britoniako borroka</i>	26
<i>I Garzez tar Santxo il zanean, Nafarroako erregetza</i>	27
<i>Askenean, euskal-nafartarren garaipena</i>	27
<i>978ko urtean, Nafartar II In Santso Abarka denboran, Gormazeko borroka</i>	29
<i>Borroka orrek, Nafartarrentzat ekarri ebazan ondorioak</i>	30
<i>1.002ko urtean, III In Santso Aundiaren erregetzan, Katalañazorreko guda</i>	30
<i>1.044ko urtean Kalaorra mauritarrengandik berreskuratzea</i>	32
<i>Gaztelako VI In Alfonso ta Nafarroako Vn Santso Ramirez'ek, Toledoko uria berreskuratu</i>	32
<i>Lenengo gurutzada Lur Santuetara</i>	33
<i>Aragoi eta Nafarroako errege Pedrok, egin ebazan iru gurutzada</i>	33
<i>Oar txiki bat</i>	34
<i>Balentziako gurutzada</i>	34
<i>1.101eko urtean, lenengo gurutzada Zaragoza berreskuratzeko</i>	35
<i>Nafarroa eta Aragoiko errege I Alfonso Gerlariak 1.118ko urtean Zaragoza mauritarrengandik berreskuratu eta 1.129ko urtean II In joanaldiko gurutzada Andaluzira</i>	35
<i>I Alfonso Gerlariaren gurutzatuzko gud-aldia Andaluziara</i>	37
<i>Oar txiki bat</i>	39

<i>Vn Garzia eta Ramirez´tar Juan Berritzaillearen aurkezpena.....</i>	41
<i>Kordoba eta Almeriaren menpekotasuna.</i>	42
<i>Kordobaren berreskuratzea.....</i>	43
<i>Nafarroako VI In Santso Jakintsuaren aurkezpena.....</i>	43
<i>Nafarrak egin ebena gurutzada lez Murtziako erregetzan, Almoaden aurka.....</i>	45
<i>Nabas´eko gurutzada sakratua.....</i>	46
<i>1.215-1.216ko urte artean, VII In Santso Indartsuak egin ebana Balentziako mauritarren aurka, gurutzada sakratuaren izenean.....</i>	49
<i>1.238-1.242ko urte bitartean, Lur Santuetara egin zan VI In gurutzada santua eta Nafarroak egiten eban bigarrena, I Teobaldo Nafar erregeak eta Vn Txanpañako kondeak bideratuta.....</i>	50
<i>Marsellatik gurutzatuen irteera eta Tauroko mendia berrak I Teobaldoren itzulera, Nafar erregetzara.....</i>	52
<i>I Teobaldo, 1.238an Lur Santuaren seigarren gurutzeko gudaldia bideratu ebela ta Tauro mendian betiko ospagarritasuna lortu ta gero, 1.243an itzuli zan ostera Nafarroara.....</i>	52
<i>Europatik, Tunex´en aurka egin zan zortzigarren eta asken gurutzaldia, Frantziko San Luis erregea eta Nafarroako II In Teobaldogaitik bideratuta egin zana.....</i>	53
<i>Aljeziraseko gurutzada.....</i>	55
<i>Aljeziraseko ingurutasunaren aurre kontuak eta Nafarroako III In Felipe erregeak egin eban garaillezko bidea bertoraiño.....</i>	55
<i>Gaztelako errege XI In Alfonsok, Nafarroako errege III In Feliperi I aguntza eskatu eta onek baietza emon ostean, Aljeziraseraiño egin eban garaipeneko bidaldia.....</i>	55
<i>Nafar Gurutzadaren Ondorioa.....</i>	56
<i>VIII In Gizaldian.....</i>	57
<i>IX In Gizaldian.....</i>	57
<i>X In Gizaldian.....</i>	57
<i>XI In Gizaldian.....</i>	57
<i>XII In Gizaldian.....</i>	58
<i>XIII In Gizaldian.....</i>	59
<i>XIV In Gizaldian.....</i>	59
<i>Oar txiki bat emen.....</i>	60
<i>Bizkaiko batzar nagusiaren baldintzak, Jaunakin elkar aditzeko:.....</i>	61
<i>Bizkaiko batzar-nagusiak, izendatutako Jaunak kendu eikiezan emon jakien jaurkintza lekutik ?.....</i>	61
<i>Eta zeintzuk izan ziran Asturias Leon Gaztela ta franko erregearen katoliko arauetatik, Euskalerrirantzako sortzen ziran arazoak, eta gero Europako erregetegi guztietatik ?.....</i>	61
2. ZATIAN	
<i>Vn Teobaldo Txanpaña ta Brieko konderra leinuan, eta II Nafar erregetzan.....</i>	63
<i>Txanpaña ta Brie´ko konderra III In Enrike, Nafarroako errege I Enrike izenagaz.....</i>	64

<i>Txanpaña ta Brieko konderriaren Juana konde-andrea, Nafar erregiña bere senar I Felipe Ederra ezkon-lagun lez, I Juana´ren izenakin.</i>	65
<i>Ezkontza onetatik jaio ziran alaba- semeak</i>	67
<i>Oar txiki bat lez.</i>	68
<i>Gernikako Lege-Biltzarra.</i>	68
<i>SARRERA</i>	68
<i>Gernika´ren Batzarretarako Deia:</i>	69
<i>Gernikako Lege-Biltzarra.</i>	69
<i>IRIBILDUA´k</i>	70
<i>Bizkaiko Batzar-Nagusiaren Izkuntza.</i>	71
<i>Noztik ete, edo zergaitik sartu zan latin-kume edo gaztelera ori gure Batzar Nagusietan ?:</i>	71
<i>Zergaitik sortu oteko zan Pase Forala ?</i>	72
<i>Gure Jaun edo Gaztelar erregeak, zelako ibilbidea egiten ote eben gure Bizkaitar Foruei itza edo ziñ egiteko ?</i>	73
<i>Nafarroako eta Bizkaiko errege-jaunen aria ostera artuta.</i>	74
<i>13gn. Jauna Bizkaiko Jauntzan.</i>	74
<i>14gn. Jauna Bizkaiko jauntzan.</i>	77
<i>15gn. Jauna Bizkaiko jauntzan</i>	78
<i>16gn. Jauna Bizkaiko Jauntzan.</i>	78
<i>Nafar errege leiñua ostera artuta</i>	80
<i>Txanpaña ta Brieko kondea Nafarroako errege I Luisen izenagaz.</i>	80
<i>Txanpaña ta Brieko kondea, Frantzia ta Nafarroako errege il-ondoko I Juanen izenagaz</i>	81
<i>Vn Felipe Luzea, Txanpaña ta Brieko kondea, Nafar eta Frantziko erregea.</i>	82
<i>Barriz, Bizkaiko jauntzaren leiñua artuta</i>	84
<i>17n Jauna Bizkaiko Jauntzan.</i>	84
<i>IVn Karlos Frantziko errege lez eta I goa Nafarroako erregetzan.</i>	85
<i>IIn Juana Nafarroako erregiña.</i>	87
<i>IIn Juana ta IIIIn Felipek euki zituzen alaba- semeak</i>	90
<i>Bizkaiko Jauntzaren aria ostera artuta</i>	90
<i>18n Bizkaiko Jauna</i>	90
<i>19n Bizkaiko Jauna</i>	91
<i>Nafarroako erregearen aria ostera artuta</i>	92
<i>IIn Karlos Nafar erregea.</i>	92
<i>Bizkaiko Jauntzaren aria ostera artuta</i>	105
<i>20n Bizkaiko Jauna</i>	105
<i>Arotar buruz, ondorio labur-bat:</i>	108
<i>21n Bizkaiko Jauna</i>	108
<i>22n Bizkaiko Jauna</i>	110
<i>Nafarroako erregearen aria ostera artuta</i>	111
<i>IIIIn Karlos Biotz Andiko Nafar erregea</i>	111
<i>IIIIn Karlosek, Trastamaratar Leonorren ezkontza bidetik, seme/alaba oneik euki ebazan</i>	113
<i>Oar txiki bat emen</i>	114

Atarikoa

Berbak: lekua, tokia, gunea, aterpea, portalea, itzaurre..... prologoa..., aurkezpena... esangure deuskunaren izena da. Bidean ibilli aurretik, bidea zelangoa dan ikustea lez. Esate baterako Atutxa jaunak Euskalerrriaren edestiari buruz egindako lanari begiratzea edo zelanbaiten aztertzea edo ta bertatik atara leikezan ondorioak argitutea.

Lenengo ta bein esan bear dot garrantzizko gaia azaltzen dala Atutxa Paulo Jaunaren idazlan orretan.

Euskalerrria, Erri bat da eta edozein. Munduan egondako ta dagozan Erri artean, zarrena dala baiestatu leikenean.

Garrantzizkoa ez ezik, Pauloren lanaren erabilkera edo idazkerea dotoretasunez jantzita agertuten da. Mamintsua da gaiñera: gertaera, gudaketak, joan etorri, berbaldi, eta agiriz ornituta.

Gertaerazko eta erantzun andikoak diranez, zeaztasun zorrotzez, noz eta zelan osatuten diran, argi ta garbi dagoz ipinita. Nastu barik, eginkizun bakoitza bere jasokun iturriagaz lagunduta dator.

Atutxa jaunak aurkibide trinko ta eder batez zati bitan banatuten dau bere idazlan istoriduna.

Aurkezpen edo sarrera laburtxu baten ostean ekiten Deusto. Lenengo zatia-ri: gurutzaren kontakizunari. Bigarren zatian Errege-Jaun bakoitzaren bizia eta eginkizunari.

Txalo beroak emonaz Atutxa tar Paulo lanaren egilleari, edozein irakurleari eskatuko neuskio, irakurriaz batera, ausnartu eta aztertu dagiala bere kautan, EUSKALERRIAREN nortasuna gero eta ezagunago ta maiteago izan dagian.

Amorrortu ta Barroeta tar Klaudio

Gure irakurleari:

Azken zenbakian gure aldizkari au artzen dutenentzat eta adizkideentzat jarritako oar bat agertu zan, arpidendunai diru-laguntza eskatuz.

Batzuk arpidetza zenbat dan jakin nai dute eta gure erantzuna au da: "Len", oraingoz ez degu arpide-saria zeaztuteko asmorik, al degun artean naiago dogu irakurleen gogo ona kontuan artu eta emaitza ematen digutenak "laguntzaille" taldera sartuko ditugula esaten da gendun.

Gaur, diru kontuetan estutasunean sartuta gagoz, eta al dauanak gura geunke "urtero" 30 euro ordaintzea, bealdean aipatzen dogun gure kontuen zanbakietan.

Gure kontuen zanbakiak onek dira:

BBVA: ES41-0182-1296-00-0201538669

KUTXA: ES80-2101-0200-46-0006681589



4n. ATALEKO 1'go ZATIA.

AURKEZPENA.

3gn ataleko ondoriotik azten naz Euskalerriko edestiaren atal onetan, lenengo atalek arian datozen argitasunak ez daitezzen ebagi.

Bide batez, norkeriaren almindunezko berekoiak, euskaldunezko nortasun eta euskal bizitzaren buruz edestitik ostondu dabezanak, zuek gogoz argitu dagizuezan.

Gure oroimenezko euskal zentzuan kokatuta, gogoratu egin bear doguzelako zeintzuk diran gure demokraziaren askatasunezko sinismen sakonak, erri onek daukazan menpeko arazoetatik askatu dagigun.

Ez gitxiago, gure euskal jendekuntzaren nortasunezko argi zabal onek, mundu onetan oituraren zentzuzko argibideetan, asko esan bear dabelako.

Mundu onen gaurko giza, ekanduzko norkerian sartuta dagon lokartzartetik urten, eta bereztasunezko zor-eskubidearen askatasunezko demokrazian ezarri bear dau, bizitzeko bear dauazan premiazko argiak Euskalerriri eskatuz: *“gure Euskalerrri maite onek daukazelako oraindiño bere nortasunezko izaeran, zor-eskubidearen askatasunezko demokrazian bizitzeko bear diran argi ederrenak”*.

Euskaldunak ardura eta maitasun andiz babestu dauz edesti guztian, Paleolitiko Neolitiko bitartean ikastea lortu ebezan askatasunaren demokrazizko zentzu ederrak gaurko egunerarte, naita gure ekanduzko altxor eder orren babes, erri txiki baten geratu.

Emen ikusten dogu argi, Euskalerriri ez eutsola ardura aundirik emon, Atlant itsasotik Alemania erdiraiño ta Eskoziatik Kadizeraiño zabalasunean lortu eban gairgiza indartsu ta aundia.

Lur landuten ta giza-jokabide Jaungoikuari begira, zor-eskubidearen askatasunezko demokrazian lortu ebazan giza-legeak baiño.

Eta Goiko Jainkoari begira, ondo ikasitako giza-bide orreik dira eskaini eutsozenak gaur egunerarteko edesti guztian, “LEGE ZAAR LEZ”.

Euskalerrriak, ondo baiño obeto ulertu eban antziñatik, gaiezko bizitza au, ez zala egipide edo igaropide bat baiño besterik, eta ondo baiño obeto ulertu bear izan eban, nortasunezko zentzu orregaz bizi izan dalako edesti guztian, norkerizko tentaldi aundiak euki arren.

Arrigarria da gaur, munduko giza edo beren errigizarte guztiak dakigulako, alda-keta gogor bat egin bear dogula, bizitza bereztasunaren ekanduzko legean bideratuta, daukaguzan norkerizko lege oneitatik urteteko.

Bestela norkeriz, Jaungoiko Egilleak gai-bereztu eban Izadi au eta oiñarritu eutsuezan legeen gainetik aurrera egiten badogu, ero edo zorakerizko amiltegira goaz artez, bide orrek naiez eta zuzenean, eriotzezko amiltegira eroaten gaituelako.

Oillokeri, txepelkeri edo bildurkerian guztiz sartuta gagozela be argi ikusten da, adibidez:

Lau bost illabete izango dira, urrutiko ikusgailu edo telebistan, Aita Santu Prantzizko ikusi nebana, eta poztu nintzan benetan.

Bere esanetan: "Bereztutako mundu fisiko onetan Egiñak, Egilleak daukielako len" ondorioaren sorburuetara joan bear gendula lenengo, gauzak, ia ondo edo txarto bideratuta ba-daukaguzan ikertzeko agertu eban.

Aita Santuak, uste neban nik, mundu onen gaurko gizaren ekanduzko egoerari begituta, eta lapurkeriz bideratuta dagoela ikusi ostean, esan ebazala azterraldiko berba orreik:

-Daukagun baitak, berak esaten dauskulako, Jainko-Egillearen legezko ekandutik urriñ edo ta euren adoxtasunetik kanpo gabizela.

-Eta alan uste dut esan ebazala, norkeriaren ekanduzko maltzur eta guzurrezko lokartzartetik urten ezinik eta guztiz zikinduta gagozan egoera oneik, alan eskatzen daualako.

Prantzizko Aita Santuak baiña, Jainkoak ipinitako legeetara urbildu gaitezen esandako berbak:

"Bizi-bide lez daukaguzan sorburuzko ekintza guztien arauak, ikertzaren arloetara eroan bear dirala, esan gure dabe".

-Eta jazarketa gogorak euki dabezala euren arteko norkerian sartuta dagozanen aldetik uste dot nik, arrezkeroztik, Egiñaren Sorburuzko ikerketaren gora bera orreik, iñun eta iñori ez dautsezelako entzun.

Mundu onetan, jakintsu edo ta ez-jakiña izan arren, ez dau balio egalper edo ostru-karenak egitea, burua ostondu arren, ipurdi osoa agirian izten dogulako.

Sarrera.

Irugarreneko atalaren aurkezpenetik asten naz, laugarren atalerarteko edestiaren laburpen bat eginda.

Eta orduko Europaren mendebal onetan ia 28.000 urte luzetan, Neandertal, Kromañon, Omosapiens edo ta euskaldunak baiño besterik ez zirala egon ikusten dogu, arik eta Keltiarrak K.a. 2.000ko urtean Alemaniako lurraldeetan agertu arte.

K.a. 753ko urtean, ekialdetik Tiber eta Arno ibai bitartera etorri ziran Etruskoak, eta lurrrarteko itsasoaren bazterretatik eurak irasten ebazan salerosteko uriak babeste-

ko, Erroma kuadrata edo espartar guda-taldeen antzera, guda talde aundi bat antolatuta eben:

-Indar eta askatasunezko gorputza artzen asi zanetik, danak irunsiteko prestau zan.

-Eta zelango odoljariozko erri ta izkuntz nasteak egin ebazan, menpetasunezko kaisar edo norkerizko bide orreitatik.

VI-In mende artean, zelan zabaldu ziran keltiarrak, K.a. IV gizaldetik erromatarak be, euren menpekotasunezko zabalkuntzak sendotzen asita.

K.o. 325eko urtean, Nizeako eleiz batzarretan eta erromatarren maldaberan, zelan alkartu ziran, ordurarte etsai sutsuak izan ziran erromatar kaisartzaren I Konstantino ta Kristau sinismeneko izenean I Silvestre aita Santua.

-Eta alkarrekin katolikotasunezko aberrikuntza sortu eta siñeskintzatu ondoren, mundu osoaren giza, erromatartuko katolikotasun orrein laterripean bizi gindezan atonduten asi ziran.

Erromatar kaisartzaren indarra, Aita Santuaren uts-ezintasunagaz alkartu eban, ta euren kasketaldiaren ziñezkintzazko legeak⁽¹⁾ atarata, norkeri orren kontrolpean ezarri eben munduko giza guztia, Jaungoikuak bereztasun oneri ipini Eutsoezan lege guztia- ren aurka, agertzen dan lez.

Munduko giza euren kontrolpean eukiteko, ez ziran Naiko, alkartu ebazan sasi-indar eta sasi-sinismenakaz bakarrik, gizarteak bizitzeko bear ebazanak be, euren kontrolpean bear ebezalako, eta merkataritza norkerizko lege orreitan ezarri ondoren, mundu osoaren gizakiak bizitzeko bear ebezanak, katolikotasunezko asmo orreitan arauztu ebazan, gaur leku guztitik begituta ustel agertzen jakuna, 2.000 urteko edestia, odoljarioz margoztuta ekarri ondoren.

Orregaitik ez gara arritu bear, gaurko merkataritzazko diru-zalekeri ta katolikotasunezko laterritasunaren sasi-jainkotasunagaz, euren sasi-jabetasunagaz mundu onetan artu daben ugazabaren sendimendua, irriz urratu edo zapartatzekoa dalako⁽²⁾.

Baiña, zer egin ?.

Argi da, gai-bizi onetan gu ez garela sortzen orretarako.

IVn gizaldi onen amaieran Suebo, Bandalo ta Alanoren agerkeratik, VIIIen mendean sortu zan mauritarren agerkerea, eta erdiugarte onetan euren 800 urteko ezarke- ragaz, Asturias, Aragoi ta Gaztelarren erregetzazko latinkumeak sortu ziranen, zelan galdu zan Ebro ibaitik Kadizeraiñoko euskerea ta euskalduntasuna, naita oraindiño eta ***aberri-katoliko menperatzalleak gura ez arren***, izkuntzazko oiñarri orreitan euskera bizia egon.

Asturiaseko erregetzaren sorkuntza be aurkezten dogu, gero karolinjioarena eta Leongo erregetzak lez.

(1) Ziñezkintzazko legeak = *leyes dogmáticas*. (2) Irriz urratu edo zapartatzekoa dalako = *destornillarse o reventar de la risa*.

Bai Akitaniako euskaldunak menperatzeko, karolinjioak Akitaniako dukaterria sortu ebela, eta euskal alkartasunezko senidetasuna bakeztu ezinik, Baskoniako dukaterriaren agerkeria. Euskal jendekuntzazko bizitzan alkartzeko, ulermen andikoa izan zana, indartu ebalako senidetasunezko sendimendu orreitan bizitzeak.

Euskaldunen laguntzarako, zorioneko Banu Kasiren agerkeria, eurei esker Iruñako erregetza lortu gendulako.

Iruñako erregetza sortarazteko gertatu zana be argitzen dogu, geroago Bizkaiko Jauntzaren sorkuntzagaz.

Danez gain baiña, euskaldunak, demokrazizko askatasunean euki genduzan sinismenak bebesteko, emoten genduzan oinkada guztiak, ebagita geratzen zirala.

325eko urtean Nizean mundu onen giza bideratzeko norkeri aundiz irasi edo erabagita, judu-Kristau sakratuaren antolamenduzko baldintzatan griegoen jakintza sartu arren, *“erromatar kaizar arauekin, menperatzailetasunezko aberri-katolikotasunaren arrano aundi orren gerizpeagaz”* berezko errigizarteen sinismenak lokaztu egiten ziralako.

Ondo argitu genduna:

-Leenengo biak, menperatzailetasunezko baldintzak izanez, biak diralako Jainkoak Izadi oneri ipini eutsoezan berezko legearen aurkakoak, “nai daukazan legedia-renak”,

“bai Neandertal, Kromañon edo Omosapiensen gizakiak azturaren oiturazko bide-tik, baitu ebazan “Arimarenak”.

-Irugarrenak batez be irazaleak ez garan lez, askatasunezko demokraziaren emaitzak emonez gain, guri gaiezko antzerki onetan berez, jaiotzatik eskubidetuta daukagun “asmatzailearen” antzezlaritzan kokatzen gaitu, mundu onetako gizon emakumearen “nortasunezko zentzu ederrenean”.

Orregaitik euskaldunen Euskerea eta euskal Askatasunezko Demokraziaren zentzuak, ez daukie alderdikierietan izan gaitasunik, bere bizitzako azturaren oituratu dauan euskal demokraziaren ulertza baiño, demokraziak, ez daukelako alderdikieririk.

Frankoak eta Asturiarrak alderantziz, lenengo bietan sortzen dan lez, kaisertza-ren laterritzko lillurkeriaren ametsean, katolikotasunezko batzangotasunean ezartzen dira.

Bigarren zatiko aurkezpena be egiten dogu, gure euskal edestiko sorkuntzan sartzen gaitulako, eta Euskalerriko errigizartearen jaurkitzarako, euskaldunak askatasunari begira daukaguzan demokrazizko legeak aurkezten doguz, gero aukeratzen genduzan Errege Jaunakin alkar aditzeko, Napar eta Bizkaiko Batzar Nagusietan baldintzapetuta euki genduzan legeak argiturik.

Bai tabe argitu gendun, “zeintzuk izan ziran Asturias, Leon, Aragoi, Gaztela eta Frankoaren katolikotasunezko arauetatik, Euskalerrian sortzen ziran arazoak, gero gaindituta, Europako erregetegi guztietatik agertzen jakuzenakaz.

Adibidez:

Nafarroako erregetzagaz geratzeko, maltzurrezko guzurtasunean Aita Santuaren buldak amaitu ezinezko ekintza baten eskerniatuta⁽¹⁾ ibiliten ebazanean, Aita Santuak nafar erregeak eskomunikatu⁽²⁾ egiezan.

Orduko denboran eta nik uste dot beti izan dala, Aita Santuak errege edo jaun baten bat eskomunikatu ezkeru, Europako edozein printze edo errege katoliko batek euki ebala baimena, eskomunikatuko errege jaunak euren ezar lekuetatik kendu eta eurak ipinteko.

Argi ikusten da emen, Aita Santuak ibiltzen ebazan katolikotasunezko legeak, ez ebe-la zer ikusirik Jaungoikoak bereztu ebazan legeakaz, katolikotasunezko legearen lenengo aizkorakadagaz, berezitasunezko errigizarteak nortasun barik izten ebazalako.

Eta argitu be, Joko ori izan zala merkantil-katolikotasunezko araupidean gaur lez ibili zana.

Euskalerrria, katoliko eta Islam erlijiozko eritzi bi orre in bitartean ogitarteko bat lez kokatuta eta inguruko errege katoliko menperatzail eritziakaz inguratuz egonda, argitu gendun:

“Nortasun aundiz eraman bear izan ebala jaun-erregetzazko aldi ori, euskal demokraziaren nortasunezko legeak, askatasunezko demokraziaren argitzaille edo adierazleak diralako, katolikotasunaren menpeko edo norkeriz illundutako legearen aurka”.

-Bigarren ta irugarren ataletan aurkeztu genduzan adierazita, euskal errigizarteko batzar nagusien lege demokratikoak argituz, katolikotasunak eukezan goitik-berako menperatzail legearen aurka.

Irugarren zatian sartuta, euskal errege ta Bizkaiko jaunzen zerrendagaz, euskal edes-tia argitzera joan giñan, Nafar errege ta nafartar erregezko leiñu etxeak, Jiménez eta Aritza ´tar Iñigorekin asteko.

Eta Bizkaitarren jauntzazko sorkuntzara elduta, zelan ekarri doguzan Nafar errege ta Bizkaiko jaun bakoitzaren edestia artekatuta.

I Santxez ´tar Alfonso Gudari edo Gerlariarengana eltzen garanean, nafar erregeztaren arazo gordiñak ikusten doguz, Nafar erregetza bere leiñuzko senean iraua egian.

Adibidez: I Santxeztar gerlari au 1.131ko urtean Baiona inguratzen egoala bere azken naia egin ebanean, *Jaungoikoaren alde eskeiñi eban bere erregetza, Tempeltar, Ospitalarios edo ta Jeruzaleneko Illobi Sakratuzko lekaiideak bideratu egien bere erregetza.*

Eta oar txiki onegaz argitu gendun, katolikotasunaren menpetasunezko asmo orre-ri, noraiñoko neurrian asi ziran beartzen, egin gendun azalpen onegaz:

Ekintza onegaz bakarrik, baten bat konturatu leike, zelango itsutasuna egon zan katolikotasunaren aberritasunean batzangotzeko erlijioagaz, eta sinetsi ezin leikena, Jaungoikuaren izenean, noraiñoko sakratu mailletara igoten ziran eurak, egiten ebazan sarraskitzaillezko triskantzakin.

Bestela, sinetsi ote leikez azkenai orreik ?.

(1)Eskarniatu edo eskerniatu = falsificar. (2) Eskomunikatu = para excomulgar a los reyes de Navarra.

Ez da lenengoa, eta ez da izango azkenekoa, gero ikusiko dogun lez.

Orregaitik gaur ulertu leike, ez dala erreza eritzi orretatik urtetea, 2.000 urteko sasi jainkotasunezko jokuak alboratu bear dabezelako, eta danok dakigu, fuzizmoaren erpe sakon orreik ez direla errez kentzen, gitziago, daukagun merkantilismoagaz, oraindiño berari ondo ebatuta daukaguzelako gizarte-irabazkoi batzuk.

Katolikotasunaren aberrikuntzazko laterritasunaren asmakuntza jaio zanetik, gizon emakume eta berezko errien eskubideak, Erromako apaiz-katolikoaren naikerira aldatu ziran, Jainko Egilleak mundu oneri bereztu eutsozan lege guztiak alboratuta.

-Orregaitik, katolikotasunaren aberritasunezko laterrien menpekotik, erri ta gizon emakumearen askatasunezko eskubide orreik berrezkuratzeko, itxaron bear dabe.

-Norkeriz eta Jainkoak mundu oneri bereztuta oiñarritu eutsoezan lege guztien gaiñetik, irasi eben katolikotasunean aberritzeko batzango ori, bereztasunean erritu ziran erri ta gizarteentzat ezintasunezkobidea biurtu arte, nabaritasun guztiz, euren baitazko ardurapetik kanpo bizi diralako.

Eldu gara gaur bizi ezinezko zori ortara, munduko gizarteak euren arduratik kanpo biziz gain, gaurko egilletasunezko arlo guztien ekanduak ustel agertzen diralako.

Noz arte izango ote da itxaute ori ?.

1.150-1.194ko urte bitartetan VI In Santxo Jakintsuaren errege denboran agertzen gara, gure Euskalerrri ta izkuntza aunditasun guztiaz *Lingua Navarrorun*, eta Iruñako erreinuari *Reino Navarrorun* izendatu egin ebazanak.

Zergaitik baiña aldarrikapen orreik, itaunduten gendun.

Eta bereala erantzuna, katolikotasunezko erlijio bidez lateraren indarragaz, Nafarroako gorte edo erregetxean aolku edo argibide bat bera esanda be, ez zalako sekula idatzi euskaraz, eta latinez ez bazan idazten, erromantzezko latinkumean idazten zan, latin menperatzaile ori, katolikotasunean batzangotzeko, baldintzazko ikur bat izan zalako.

Eta bai, Kristoren izenean asmatutako katolikotasun ori erlijio lez ezartzeko, Jainkoak Izadi oneri bereztu eutsozan legearen guztiz aurkakoa dala, eta argi bezela, *abertasunetik asita, gizakume jaio barri guztietan baituta daukaguzela Jainkoaren zentzuzko lege orreik*, ikusten dogu.

Gauza onekaz ulermentzeko, argi esaten genduan:

1.200engo urtean Gaztelako erregeak Ojakastrori, epaiketa guztietan euskerea erabili egien, Fueroak emon bear eutsozala, Ojakastroko erriak ez ebalako beste izkuntzarik jakin.

Eta gure euskerea ezereztuteko alegiñetan, ortik agertzen zirala, geroago guk be ainbeste bider entzun doguzan gure euskeraren aurka azpizkeriz ta bai maltzurkeriz iruzurtizko esaerak: *hable usted en cristiano* eta abar.

Baita gu arrigarrituta esaten genduan: zergaitik ez ote dabe esango *“hable usted en katoliko”* Jesusen irudi ta izena euren asmakizunezko zikinkerietan sartu barik.

Bizkaiari begira, 1.370eko urtean gaztelako erregetzagaz senidetuta egoneko bide-tik, gure Aroko Juana Manuela amaren ondorengotasunetik gure jauntza, Trastamara errege leiñuzko Arotar Juanen eskuetara aldatu zala.

Eta 1.379ko urtean, bere buru gaiñean gaztelatarren koroia ezarri eutsoenean, Bizkaia, Gipuzkoa, ta Arabako Jauntzan, Gaztelako erregeak izan dirala antolarazteko Jaunak, arik eta 1.839ko urtean Agorrillaren 31n Esparterok Bergaran, Euskalerrria oinpean menderatu arte.

Eta aipamen lez, gure nafartarrak katolikotasunezko legeakaz nastuta egotearren eta batuzalezko katolikotasunaren legeetatik alderazteko, Obanoseko zaldun-Nafartarren erantzuna erregeari: *“ni zure beste, danok batera, zu baiño geiago”* izaten zala euskal demokrazizko erantzuna.

VIIIn Santso Azkarraren borondatea, orduko errege guztiak lez Katolikotasunaren norkerizko lege artean, itsutasunezko sinismenean sartuta, apurbat naastuta ikusten dogu.

1.131ko urtean Aragoi ta Nafarroako I Santxez gudalari erregeak Baiona inguraztzen egoala, Jaungoikoen alde eginda bere azken naia, Tempeltar, Ospitalarios eta Jerusalemeko Illobi Sakratuaren lekaideen eskuetan itxi eban bezela, VIIIn Santso Azkarrak be, berori egingura ebalako.

1.231ko urtean Nafarroako VIIIn Santxo, Txanpaña ta Brieko kondea I Teobaldo bere lobia gorrotogarrian eukinda, Aragoiko I Jaimekin Tudelan batzartuta, semekuntzazko alkargo bat sinatu ebela, bietatik baten batek iltzen zanean, besteak eskubide osoa eukela erregetza orreitan errege izateko.

I Teobaldogaz ez zana sortu, VIIIn Santxok ondorengotasun ori egin ebanean, Nafartarrak erne ibili ziralako, euren erregetza Nafar erreñuzko arira ostera eroaten.

Santxo il zanean illabete bat geroago Nafartarrak orregaitik, VIIIn Santso'en gogo orreik kontuan eukibage, Teobaldo deitu eben, eta Iruñako Gotzain Eleizan Foruak zinduz gain, Frantziko gortearen oiturara igortzi eben.

1.238an I Teobaldok Lur Santuaren gurutzeko gudaldi sakratua bideratzen ikusi gendun, eta Tauro mendian betiko ospea lortu ondoren, 1.240ko urtean ostera Nafarroara itzuli zala.

Bai 1.246an Foruen gora beran, Ximenez ta Gazolaztar Pedro gotzaiñarekin euki ebela etsai aundienetariko bat nafar erregetzaren estabaidetan, onek zalantzan ipiniten eutsalako Nafar erregetzaren jabetasuna, VIIIn Santso indartsuak bere azken naietan I Santxez gerlariak egin eban antzera, Jainkoari eskaiñi eutsalako erregetza, tenpeldar lekaideak bideratu egizan.

Eta 1.250eko urtean lurraldeko eleiz batzar nagusi baten, zelan Ximenez ta Gazolaztar Pedro gotzain orrek, exkomunikatu ebala I Teobaldo.


Eta Aita Santua I Teobaldok Jerusalemeko gurutzadan egin ebanagaz oartuta, agertu eban idazki-berun edo buldazko lege bereziagaz, *bere baimenik gabe, inork ezin ebala Teobaldo eleizatik kanporatu esaten ebana*, Ximenez eta Gazolaztar Pedro gotzaiaren keiñuak ezerezera baztertzeko.

Katolikotasunaren erlijiozko itsutasuna, gero ta gogorrago ikusi gendun joan zala, bere norkeriaren batzangotasunezko asmoak ezin ebazalako bereala bete, eta zelan ipini ebazan tresneri bi abi-arazian bere elburuak lortzeko.

Billaketa ta Gurutzada santuak izan ziran irasi ebezan tresnak, eurak erabakitu-tako katolikotasunezko ziñezkintzatik kanpo ibilten ziranai, tresneri bi orreikaz gogor erasotzeko, eta euren sorrerak ta ekintzak aurkeztuko dodaz len, gero Nafarroa ta Bizkaiko jaunen zerrendagaz asten nazenean, kontuan euki dagiguzen, zelangoak izan ziran katolikotasunaren etenbageko eraso aldi orreik gure Euskalerrarentzat.

Inkizizio edo Billakariritzaren aurkezpena.

Billakaritzaren oteun-antzerkiko baten⁽¹⁾ antzezko irudi bat.



“Sinismenaren epaiketa” 1.475ko urtean Berrugete tar Pedro k margoztuta

Billakaritza:

Billakuntza santuaren itza geien, aberritasunezko katolikotasun sakratua ezarri gure zan lurraldeetan eta bertan agertzen zan ziñauskeriari ta antzeko erakundeai erasotzeko irasi zan, geienetan iltzeko zigorragaz amaitzen zana.

(1) Billakaritzaren oteun-antzerkizkoaren antzeko irudi bat = cuadro que representa un “auto de fe, o acto de fe sacramental”.

Kristautasunaren asieratik, ziñauskeriaren aurka ibiltzen zan zigorra, eskomikatzea edo eleizatik kanporatzea zan.

Baiña IVn gizaldean, Erromatar kaisar I Konstantino, I Silvestre Aita Santuagaz alkartu eta katolikotasunean-aberritzeko, batzangotasunezko eritzi orreitan ezartzea erabagituta geratu ziranetik, euren aurkako ziñauskeri orreitan sartuta egon ziranak, ***katolikotasunean aberritutako Laterri orreinean etsai lez artzen ebazan, eta San Agustinek baieztu ondoren, Europa ta gero Ameriketaren 2.000 urteko edestia odoljarioz margoztu dabe, Jaungoikuak bereztuta ipini ebazan lege guztiaren aurka.***

1.184ko urtean ta frankotarren Langedokeko ego-lurraldean, Kataro edo Albigensearen ziñauskeriak erasotzeko irasi eban III Luzio Aita Santuak Alemaniako Bizar-Gorri kaiserragaz batera billakaritza ori, gotzaiñ aztertzailearen izenagaz.

1.231ko urtean, azken gaiztoa euki eban Gotzai-Aztertzailearen billakaritza orrek, gotzaiaren artean ez ziralako konpontzen, eta gotzaiaren aztertzailetasuna barrik, goiko agintaritza bear ebalako, IXn Gregorio Aita Santuak ***Exkommunikamus'eko berun-idazkiagaz, Aita Santuaren-Aztertzailetasunagaitik*** aldatu eban. Ortik aurrera lekaide eskaleen eskuetan geratu zana, eta dominiko lekaidearen eskuetan geien.

1.249ko urtean Aragoiko erreñuan ezarri zana.

1.252ko urtean IV Inozentio Aita Santuak baieztu eban, billaketetan ziper, oiñaze⁽¹⁾ edo toleakuntzazko larritasunak ibiltzea ***Ad extirpandaren bulda argituratuta.***

1.249ko urtean Aragoiko IIIIn Pedro erregetzan ezarri zana, erdiugarte onetan lenngoia izanda.

1.478-1.821eko urte bitartean eta Aragoi ta Gaztelako erregetzaren alkartasunetik Espainol-Billaketaren izenagaz zabaldu zana, gero Ameriketako lurraldeetara eldu zana, erri-irasle edo kolonigillearen ekintzakaz.

1.520ko urtean Ernan Kortes'ek, Mejikon sartu eban azterkuntzazko billakuntza ori, erlijio, Jainkoaren izena, edo ta euren izenak, biraoka edo erneguz ibilteagaitik.

1.522ko urtetik aurrera eta ***Inkiszio edo Fede-Zaindiko Auzitegi Nagusiaren*** izenagaz ibili ebena Mexikoko lekaideak fede-auslearen aurka, euki ebezan espetzeak beti beterik eukinda.

Emendik aurrera ugaritu egin ziran billaketa orreik, geien erri ta basa-uri'ko xumeen gizartera aldatu ebezanak, euren leiñuzko oiturak zorginkeri lez salatuta.

1.536-1.821eko urte bitartean Portugesaren billaketa deitu zana.

Eta 1.542-1.965eko urte bitartean Erromako Billaketa deitu zana, aurkariren⁽²⁾ lurretan, katoliko ta anabaptistazen⁽³⁾ aurka ibilita, eta eritzi bi orreine lurraldeetan, abertzale ta sorginkeria zanaren aurka ibili ziran ustean, Europa ta Amerikako lurraldeetan lepoa moztu ez eutsenai, ainbat sutzar⁽⁴⁾ eginda, gizon emakume sorgin ta errikoi edo abertzaleaksutan bizirik erre egin ziran.

(1) Ziper edo oiñaze = tortura. (2) Aurkaria = protestante, reacio. Aurkariren lurretan = en tierra de protestantes. (3) Anabaptista = 1.521eko urtean Stortx'tar Nikokasek Württemberg'eko Urian irasitako eritzia, eta Aurkarien artean sortutako alde bat Luteroren aurka. Umeetako bateatasuna ez ebelako onartzen, bigarreneko bat gura ebelako. Katoliko ta aurkarien aldeko eraso gogorak artu ebezanak, eurak gizarterko zuzenbidetasuna eta erreztasuna ebangelaritasunean gura ebelako. (4) Sutzar = su andi, su-bandadako edo garraldia.

1.616ko urtean Italian, Galileo Galilei´eri egin eutsoen epaiketa gogorrean, erio-tzezko meatxu edo keiñadurarekin asi jakoezan lekaide ta gotzai epaileak, berak, euren jakitunen aurka mundu onen gora beran, eguzkiari emoten eutson erdikotasunetik ur-ten egiala, berak esaten ebana ezin ebalako argibidetu.

Katoliko lekaide gotzai epailari orreik, ariñagoko irureun urte 1.235-1.315eko urte bitartean, Mallorkan euki eben Llul´tar Raimundo lekaidea, Zeruko izarrakaz igarri ebena beste neurkitasun barri bat itsasotik ibiltzen ziranentzat kontuan artu barik.

-Itsasontziak, itsasoaren sakontasunerantza joaten ziranean zeruaren-muga aurrez euki ebela, izarrak gero ta gorago aurkitzen ebazan, izarrak euren goialdean agertu ta atzean itzi arte, itsasorantza urtetan eben bakoitzean bardin sortuta, arik eta izarrakaz neurtzen jakin arte, itsasontziak, itsasoaren zabaltasunezko sakonetatik ibiltzen zira-nean, jakin egien euren lekua nundik nora aurkitzen zan.

-Eta neurkitasun orrek, ez ebalako euki zentzurik mundu onen biribiltasun barik, lekaide-gotzai katoliko orreik zeri buruz edo zelango zentzunezko legeakin epaituko ote ebazan eriotzeraño, errudunezko lez artzen ebazanak?.

Argi agertzen da, katolikotasunezko epaiketa orreik azken baten, ez ebela euki zer ikusirik asmakunde edo ta aztertzailearen arkitzeakaz, euren aundikerizko arropuzke-rian, erritarrak menderatuta eukitea baiño besterik.

1.266-1.586ko urte bitartean ta jakin degun katolikotasunezko mendekotasunean lekaide gotzai orreik noraiño eltzen ziran euren jauntasunezko arrokerian, Pastoureau ´tar Mitxel edestilariak aurkitu ebazan agirietan zer esaten dan aurreratuko dautsuet:

1.386ko urtean ta Falaiseko errian egin jakon epaiketa au txarri-eme bateri, Le Man´tar Jean umea il ebalako, eta epaiketa orreitan txarri-eme orreri erruduntasuna leporatuta, gizaki-lez jantzi ebela esaten dau, ostean oiñazkatu, zipertu edo luzeratzeko beartuz tiratu ostean, besoak eta anakak moztu ta eriotzera gaitz-etsita.

1.457ko urtean ba dago beste epaiketa bat Borgoñako Sabijny⁽¹⁾ errian txarri-eme bateri, beste bosteko mutil bat il ebalako. Txarri-eme orreiñ aotik, bere *aitormena ta erruduntasuna lortuta*.

Bai beste txarri-eme batena be, eta onek arrain egunean edo aragi-uzteko barikuan egin ebalako pekatu ori, geiago zigortu ebena, azkenean danari bezela sutan erretzeko.

Arrazoidunezko Omosapiens batek sinistu ote lei, giza-bide edo jarduera ori?.

Sakratuzko Gurutzada Santuaren aurkezpena.

Gurutzada Santuak.

Palestinako lurraldeetan, mauritarren eskuetan egon ziran lur santuak berrezkuratze-ko, bialtzen ziran gudalozte bokotzari esaten dautsoe.

Gurutzatuak deituta, gudariak papar erdian gurutz gorriak eroaten ebazalako.

Katolikotasunezko erlijio bidez egin ziranak.

(1) Sabijny = Savigny.

Erljioaren izenean baiña, askatasunezko Italiar uriak aberastuteko naian, euren lantegiak ezarri ebazan ekialde orreitan, Europako zaldunak be erri orretatik arrapaka ibilita, ta geiago, euren jabetasunean geratzen ziran lurraldeak lapurtzen ebazan.

Aita Santuak eraginda asi ziran sakratuzko gurutzada santu orreik, Europaren latinezko edo katolikotasunezko kristau erregeak eroan ebena geien, Erromatar kaisar sakratuak ta Frantziko Kapetotarrak izanda ardura audienean eroan ebezanak, Lur Santuen kontrola eleiza katolikoaren eskuetan egon zedin.

1.095-1.291eko urte bitartean, ia berreun urtetan iraun ebezala borroka orreik esaten dabe katolikotasunaren alde dagoezan edestilari maltzur batzuk.

Egia baiña, mauritarrak European sartu ziranetik asi zirala borrokazko asmakizun orreik, eta izen orregaz 1.064ko urtetik IIIn Alejandro Aita Santuak deitu ebenetik.

Eta mauritarretik kanpo, 1.209ko urtean IIIIn Inozenzio Aita Santuak Albigensearen aurka agindu ebena.

1.213ko urtean Aragoiko II Pedro albigenaren alde ibilita, Muret'eko borrokan il eben.

1.229ko urterarte iraun eban borroka au.

XVn gizaldiraiño iraun ebela Espaina ta Europaren ekialdean beste gurutzadazko ekitaldi gogor batzuk esaten dabe.

Egia baiña, XXn gizaldian ta 1.936ko urtean ain zuzen, Franko faziztak berezko lege guztien aurka asi eban borrokari, edesti guztian egin ziran gurutzadazko borroka bezela: *“katolikotasunean Aberritzekoko Guda-Sakratuaren” izenagaz egin zan.*

Gurutzada oneik mauritarren aurka egiñez gain, Eslabo, Judu, siñiste zuzeneko Kristau Griego ta Rusoak, Mongol, Kataro, Usita, Baldense, Pruso eta Aita Santuaren politiku etsaien aurka egin ziranak izan ziran. *Katolikotasunean uts- ezintasunezko siñeskintzan egon ziranak, ortik kanpo egon ziran guztien aurka egin ebezalako guda-ko-ekintza orreik.*

Gurutzatu guztiak, Jainkoari egin bear izan eutsen ziñ-eskeintzagaz, euren pekatu guztiak parkatzen jakiezan, ortik aurrera Zeruko ate guztiak zabalik eukinda eurentzat.

Zortzi sakratuzko gurutzada santu egin zirela esaten dabe edestilari batzuk, naita 325eko urtean Nizeako batzarretik asita, XX gizaldi osoetan katolikotasunezko guda orreikaz ibilita, etenbageko borroka bat bakarrik izan: *“Jaungoiko Egilleak Ludi oneri asieratik ipini Eutsoezan arauzko legediaren aurka”, Nizean erabagi ta ezarri ziran norkerizko katolikotasunaren arauzko legeakaz.*

Lenengo gurutzada santua.

1.095eko urtean Azaroaren 27an, Klermont'eko Eleiz Batzarraren bigarren egun ariñauko eguenean aldarrikatu eban IIIn Urbano Aita Santuak Igo sakratuzko gurutzada santua, Seljuzidaseko Turkoaren aurka, oneik Jerusalem menperatu ebelako.

Lenengo gurutzada au, **1.095-1.099ko urte bitartean egin zan** Bouilloneko Godofredo, Frantziren Tolosako IVn Raimundo eta Tarentoko I Boemundogaitik bideratuta.

1.097ko urtean katoliko guda indar oneik, Nizea 'ko uria artu eben.

1.098ko urtean Antiokiako printzerria, ta Edesako konderrria artu ebazan.

1.099ko urtean, Tripoliko konderrria ta Jerusalemeko erregetza artuta, katolikotasunaren indarra arro ibili zala ta.

Bigarren gurutzada.

1.147-1.149ko urte bitartean egin zana.

I Balduino eta IIIn Balduino izan ziran Jerusalemeko lenengo erregeak, mauritarrak euki ebazan banaketari esker iraun ebelako.

Baiña, denborea aurrera doala eta frankoen gogoia euren bizierazko egoera barriagaz egokiago aurkezten ebelako, gurutzadaren zentzuan euki eben gogoia, makaltzen joan jakien, mauritarrena gorantza joanda, **yihad** edo guda santu lez.

Lenengo Gurutzada Sakratuan, Juduaren aurka egin eben sarrasketa,

Jerusalen askatzen ibili ziranean



1.144ko urtean, Mosul ta Alepoko mauritar jaurlari **Zengi** izango zan lenengoa, frankoari, Mesopotamiako ipar-mendebalean kristauen menpe egon zan Edesa⁽¹⁾ uri nagusia kenduko eutsena, katolikoak euren makaltasuna erakutsiaz batera.

1.145eko urtearen Abenduan, IIIIn Eugenio Aita Santuaren aginduz, **Klarabaleko abata Bernardok idatziko ebazan tenpeltarren arauak.**

Eta Bernardoren eleiz-izlari ospetsuaren aotik aldarrikatuko zan bigarren gurutzada au, katolikoarentzat azken-gaizto baten amaitu zana.

1.147-1.149ko urte bitartean, Turkoak Edesako uria artu ebenean egin zan bigarren gurutzada au.

Klairbaux 'eko San Bernardok aldarrikatu, ta Frantziko VIIIn Luis bere emaztearen laguntzagaz, ta Alemaniako IIIIn Konrado kaiserragaitik bideratuta egin zana.

(1) Edesa = gaur Turkian dauan Urfako Uria.

1.148ko urtean amaitu zan bigarren gurutzada au, katolikoak Damasco erasotzen egon ziranean, bertan artu eben astiñaldiagaz.

Irugarren gurutzada.

1.187ko urtetik Saladinok inguratuta euki eban Jerusalem berrezkuratzeko.

1.189-1.192ko urte bitartean egin zana. VIIIIn Gregorio Aita Santuak aldarrikatu, eta Alemaniako kaisar I Federico "Bizar Gorriak" bideratu ebena.

Ingaterrako Ricardo Leoi Biotza deitzen eutsienai, Frantziko Augustotar IIIn Felipe, ta Alemaniako IIIIn Federikoren gudalozteak osotzen eban katolikoek indarrak.

Jerusaleneko erregetza lar sartzen zalako Ejiptoko fatimitaren kalifatoan, Nur al-Din mairu-erregeak, bere bigarrena zan Saladino bialdu eban ango egoeragaz arduratu zedin.

Eta Saladinok ez eban denbora asko bear Ejiptoren nagusi lez geratzeko, naita Nur al-Dine'n aginpidea lotsean artu, arik eta 1.174ko urtean il zan arte.

Nur al-Dine'k seme bat euki eban mauritar erregetzan iraun egien, baiña pozoitu-ta il eben eta Saladino geratu zan Ejiptoko mauritar errege nagusi lez.

Gizon jakintsua izan zan Saladino, eta laster alkartu ebazan mauritar alderdikari guztiak.

1.187ko Uztaillaren 4an Attin'eko Adarretan Saladinok, Tenpeltar eta Gaxo-Zaiñ'en⁽¹⁾ gudalozteakaz borrokatu eban, eta katoliko indarrak menderatu ondo-ren, onen erregetza dangilizka geratu zan Bera-Kruz'eko atal bat galdu ebelako.

Zaldunen Krak



Zaldunetzko Gaxo-Zaiñ lekaideak bideratzen eben menderatu ezizinezkoa lez euki eben gaztelu⁽²⁾ au, Siriako barrutik Libanoren Itsas-ertzeraiñoko ibilbidea zaindu ebana, 1.271ko urterarte.

1.187ko Urrillan Jerusalem artu eban Saladinok, triskantza aundi bat eginda katoliko gudalozteetan.

Eta 1.191ko Uztaillaren 13ko urtean, nai Rikardok Frantziko Augusto'tar IIIn Felipegaz Akre'ko⁽³⁾ uria artu, azken gaiztoa euki eban, arrapatutako ainbat milla guda-rien buruak moztu ebazalako.

(2) Gaztelu au be, Crac de los caballeros deitzen eban. (3) Akre'ko uria = gero gurutzatuak ipinita, "San Juan de Akre" deituko zana.

1.191ko urtean, Ingalaterrako Rikardo Leoi Biotzak, Txipreko ugartea menrapetuta eukinda be, Jerusalemeko erregeari emon bear izan eutson Uri au, Ricardok Saladinogaz elkarpede bat egin ostein, Jerusalem ikusteko, atea zabalik eukitea lortu ebalako.

Laugarren gurutzada.

1.193ko urtean Mesopotamiako Tekrit Urian il zan Salah Ed-Din Yusuf edo Saladino.

Eta 1.193ko urtean Irugarren gurutzadan sinatutako bake-unea eta Saladino ospetsua il zan ostetik, bakezko urte batzuk etorri ziran, Afrikaren itsas-ertzeko frankoen laterriak, Italiarren koloni edo salerosketako errietan biurtuta.

1.199ko urtean Ingalaterrako errege Ricardo Leoi Biotzak, Txaluseko gaztelua erasotzen egoala, ankan gezi bategaz eginoko zauria, pozoindatu edo edendu zalako il zan.

1.199ko urtean IIIIn Inozenzio Aita Santuak eta gurutzatuen laterrizko egoerak bizkortu edo obetzeko, laugarren gurutzada santua aldarrikatu gura eban.

1.202-1.204ko urte bitartean IIIIn Inozensio Aita Santuak borroka ori, Ejiptoren aurka egitea gura eban, eta Beneziako Dandolo´tar Enrike Dux´ak azpikeriz, Bizanzioaren aurka eginda, Ungaritarrai Zarako uria kentzeko eta Konstantinopla saskiltzeko biurtu eban.

1.204ko urtean Konstantinopla arrapakaria saskildu ta menperatu ondoren, Bizanzioaren kaisar gainean, Mendebaleko Latindar Kaisertza sortu eben, 1.291ko urtean ezereztu egin zana, Bizanziotarrak Nizeako kaisertza irasi ebelako, eta ortik aurrera Benezitarrak euki eben merkataritzazko Kontrola, Jenobestaren kontrolpera aldatu zan.

1.204ko Jorraillaren 12an, IIIIn Inozenzio Aita Santuak azpikeri orreitan ibili ziran guztiak eskomunikatuz, eleizatik atara ebazan, eta bizanziotarrak ainbat eztabaida bitartez, Vn Alejo Dukas errege ipini eben orduan, gurutzatuak asarratu ziran, eta eurak artu eben Konstantinoplako uriaren kontrola.

Eta gurutzatuak jakitun egonda, iru egun euki ebala Uria arpillatu edo saskiltzeko, ararte iñoiz ez ziran ezagutuko triskantzak egin ziran. Andrak eta neskak bortxatuz gain, gizon zar eta ume gazteak il ebazalako ezereen begirune barik, Santa Sofiaren eleiz nagusitik asita, Jauregui, liburutegi eta aurrean aurkitu eben guztietan lapurketan ibilita.

Nizetas edestilariak, auek baiño barka-zaleagokoak izango zirala mauritarrak, esaten eban.

Europa osoak, uolde aundi bat bezala artu ebazan antze-lan, oroigarritzko-bitxi eta lapurtutako erliki orreik.

(1) IXn Gregorio = 1.227-1.241eko urte bitartean bizi zana. (2) Aitortza = *confesión sacramental*. (3) IVn Inozensio = 1.243-1254ko urte bitartean bizi zana. (4) 1.269ko urte onetan Erroman ez zan egon Aita Santurik, 1.268ko urtean IVn Klemente il zanetik 1.271ko urterarte eleiztarrak ez ebelako Aita Santurik aukeratu. (5) Sabel-berakoaren elderri edo saleria = *epidemia de disenteria (diarrea)*.

Umien gurutzada.

Eta emen katoliko erlijiotarren artean, itsutasunezko sinismenaren ekimena.

Orduko erritarren giza-barreneko sinistean, gurutzatu nagusien artean maltzurrezko bidetik ainbat zorigaitzezko utsegitea ikusi ondoren, gurutzatuen pekatugiltzari botaten eutsoen erru guztia, eta errugabetasunezkoetan gogoratuta, Jerusalem, umien gurutzada batek bakarrik askatuko leukela gogoratu ziran.

1.212ko urtean, 12 urteko mutil batek antolatu eban umien gurutzada ori, Europaren itsasertzetik Afrikarañoko itsasertzetara, uren gaiñetik oiñez eroango ebazala itz-emonda.

Ume millaka aldatu ziran Frantziko lurraldetatik, kaietan itxaroten euki ebazan ontzietara igon eta Afrikera aldatzeko.

Geienak ez eben itsontzietara igo eta igoan ebenak be bardiñ, ustarpeko edo yopu lez saldu ebazan, eta urte asko igaro ta gero, gitxi batzuk baiñ ez ziran agertu euren itxectan.

Bostgarren gurutzada.

Laugarren gurutzada amaituta gero, gurutzatuen itaunetan euki ebezan gogoak, ia guztiz amaitu ba-ziran borrokak zan, naita Aita Santu ta errege batzuk alegiñ asko egin bizkortu egiezen.

1.217-1.221eko urte bitartean egin zan gurutzada au, IIIIn Inozenzio Aita Santuak 1.213ko urtetik aldarrikatuta eukena, eta 1.218ko urtean IIIIn Onorio Aita Santuaren asmakeriz, Ungriako IIn Andresegaz alkartu zanean, iñoz ez zan esagutuko gudalozteagaz joan zan IIn Andres ungariarra Ejipto menperatzera. Pot edo, azken gaizto andi baten amaitu zana.

1.221eko urtean, bostgarren gurutzada onek, laugarren gurutzadako zeregin bardiñean, Ejipto menperatzea euken elburu, eta Nilo ibaiko bokale ondoan frankoen laterrizko bizitzari arnasa emoteko, Damietako uria menperatu ondoren, gurutzatuen aundikeria bizkortuz, El Kairo menperatzen joan ziran, eta ararteko gurutzatu guztiak euki eben pot edo azken gaiztoena lortu eben.

Seigarren gurutzada.

1.228-1.229ko urte bitartean egin zan gurutzada au, danetatik arritzekoena izan zan, IXn Gregoriok⁽¹⁾ eskomunikatuta euki eban Alemaniako IIn Hobenstaufen´tar Federico bialdu ebalako aitortza⁽²⁾ lez gurutzada orretara.

IXn Gregorio Aita Santuak, IIn Federikori agindu eutson gurutzada orreitara joan zedilla, eta IIn Federicok bere asmoak euki ebazalako Jerusalem buruz, atzeratu egiten ebalako irteera, Aita Santuak eskomunikatu ondoren, eleizatik kanporatu eban.

(1) IXn Gregorio = 1.227-1.241eko urte bitartean bizi zana. (2) Aitortza = confesiòn sacramental.

1.228ko urtean urte eban IXn Gregorio Aita Santuaren baimenik bage, ta IIn Fedrikok bere diplomazizko zurtasunagaz Jerusalem berrezkuratuta, Jerusalemeko errege izendatu zan.

1.229ko urtean Belen eta Nazaret be lortu eban bere menpe eukitea, naita urte gitxirako izan.

Zazpigarren gurutzada.

1.248-1.254ko urte bitartean egin zan gurutzada santu au, IVn Inozenzio⁽¹⁾ Aita Santuak egindako aldarrikapen bidez.

1.244ko urtean, Jerusalem betirako menperatu eben mauritarrak, eta Frantziko IXn Luis edo *San Luis*, Brienneko Juan eta Ungriako IIn Juanegaz alkartuta, bostgarren gurutzada lez, Domieta menperatzera joan ziran.

Oraingoan baiña, Ejiptoko El Mansura´nen mauritarren aurka borrokatuta eta azken gaiztoa euki ondoren, Frantziko IXn Luis gudalozte guztiagaz atxilotuta geratu zan astiñaldi gogorra artu ta gero, bostgarren gurutzadan bezela.

1.261eko urtean, Gurutzatuen eginkizun onekaz amaitu zan Bizanzioko kaisertza, latindar eta griegoen laterri batzuetan bananduta.

Eta auetatik azkarrenak lortuko eban urte onetan Nizeako kaisertza eraikitzea, Bizanzioko kaisertzaren gerizpea be, izango ez zana.

Zortzigarren gurutzada.

1.269ko urtean⁽²⁾, Frantziko IXn Luisek egin eban zortzigarren gurutzada santu au, Ejiptoren menpetasuna elburu eukela.

Napoleseko Anjou´tar Karlos erregearen asmamenagaz antolatu zan, onek isilkor Tuneztarrakin eukan merkataritzaren leiaketa ezereztu gura ebalako.

Eta Anjou´tar Karlos onek Ejipto elburu eukela, Tunez menperatzen joan zanean, iñork ez eutzelako esan inguru orreitan sabel-berakoaren elderri edo saleria⁽³⁾ egoala, 1.270eko urtean beragaz kutsututa il zan, eta or amaitu ziran Gurutz Santuaren borroka guztiak.

Ortik aurrera eta naita Aita Santu batzuk, beste gurutzada santuak aldarrikatu gurean ibili ba ziran, ez ziran egin geiago.

1.291ko urtean, Akreko San Juan mauritarren eskuetan geratu zanetik, katolikuak Tiron, Sidon eta Beirut´eko asken jabetasunak utzi edo ukatzen joan ziran, asken baten eta zortzi gurutzada luze bidez, Bouillontar Godofredok Jerusalem denbora geien menperatu eukiteagaz saritu zana, eta bera, ainbeste milla gudari gurutzatu, mauritar, judu gizon emakume ta ume il edo sarraskitzeagaz lortu zan.

Eta 1.291ko urterarte iraun ba ebezan frankoen laterriak, mongolari esker izan zan, 1.258ko urtean mauritarren Absi Kalifatoa menperatuz, auek kristauaren aurka ez ebelako euki ezer, urte batzuen bakezko arnasa emon eutsen katolikoari.

(1) IVn Inozenzio = 1.243-1254ko urte bitartean bizi zana. (2) 1.269ko urte onetan Erroman ez zan egon Aita Santurik, 1.268ko urtean IVn Klemente il zanetik 1.271ko urterarte eleiztarrak ez ebelako Aita Santurik aukeratu. (3) Sabel-berakoaren elderri edo saleria = epidemia de disenteria (diarrea).

EUSKALERRIKO EDO TA NAFARROAKO GURUTZADAK.


1.929-1.930eko urterako, Iruñako Olabe Liburutegiak, norgeiagoko leian sortu eban idaz-sariketa bat: "Euskaldunak gurutzadatan euki gendun artu emonaren gaigaz".

Eta leiaketa orreitan, Andre Maria Biotzaren apaiz Bera eta Idoate´tar Aita Gregoriok idatzi eban "Nafarroa eta Gurutzadak" irabazi eban liburu eder-argia, nire eskuetan daukat lez, bertatik aurkeztuko dautsuedaz, Nafarroako gurutzatuak egin ebazanak guda orreitan, liburu au izan leikelako gure ulermena geien argituko dabenak euskal edestiari buruz.

a).- Zeaztasun oneik, espainako edestilariak guri euren kaisar menpekotasunezko saltsan sartu gura dauskuenetik, askatu egiten gaituelako.

b).- Eta bide batez, zeaztasun oneik diralako, euskaldunak beti alkar bizi giñela argitaratzen dabenak, naita euki doguzan eta daukaguzan erasoak gure edestia lokatzuteko, ainbateko era ezberdiñetatik agertu.

d).- Ba-dago beste zeaztasun bat, naita ez, argitu bear doguna, espainar edestilariak euskaldunai, erromatar-katolikotarren kaisar saltsan sartzen gaituelako ezeren begirun barik, eta esan bear dautsagu, Nafarroako erriak beti aukeratzen ebazala, euki ebazan erregeak.



1.140ko urte inguruan egon ziran laterri-banaketak.

Eta naita katolikotasun orretan nastuta egotearren, I Santxo´tar Alfonso eta VIIIn Santso Azkarraren borondateak, Nafarroako erregetza Jainkoari eskeñita, tenpeltar ta

gaxotegi-zaiñ'en eskuetan itzi gura, Nafartar erritarrak, nafar erregeak aukeratzeko erabagi ebena egin zan beti, euskal ardurak, Euskalerrriaren askatasunezko arduratan iraun egien, gero I Teobaldogaz ikusiko dogun lez.

855-859ko urte bitartean, Nafar-errege I Iñigez'tar Garzia⁽¹⁾, Arista'tar Iñigoren semea,

eta Asturiaseko I Ordoño erregetzaren gudozteak Albeldan edo Laturzeko mendian, Zaragozako II In Muzaren aurka egindako borroka andia, benetako *Klabijoko* borroka deitu eutsoenai egin eban.

Nafar-Asturiaseko gudozte orreik Zaldubako II In Muza mauritarra menperatu ondoren, Nafar Asturiaseko erregetzak artu emon estuak euki ebazan aurrerantzean.

Asturiaseko erregeak, euskal-nafartar erritarren askatasuna ontzat artuta.

871ko urtean Asturiaseko III In Alfonso eta Nafarroako Garzez'tar Fortune⁽²⁾ egin eben elkargoan agertzen dan lez.

871ko urte onetan Asturiaseko III In Alfonsok ikusita, euskaldunak euren artean alkartuta egoteagaitik, Arabako euskaldunak⁽³⁾ ezin ebazala bere erregetzagaz alkartu, Nafarroako errege Jiménez'tar Gartzia'ren alaba Jimenagaz ezkondu zan, eta ortik aurrera Asturias'eko erregeak, beti gura eben Euskalerrria euren menpean artu.

Asturiaseko III In Alfonsori ondo baiño obeto etorri jakon ezkontza ori, beragaz babestu egiten zalako beren erregetzan euki ebazan lau anai etsaien aundinaitasunetik, bai ta mauritar kalifaren semeen erasoetatik, alango bat 878ko urtean sortu zanagaz baieztuta.

878ko urtean, Asturias'en alde egindako gurutzada.

878ko urte onetan⁽⁴⁾ Almondir mauritarrak, III In Alfonsok apur bat ariñagotik menperatu ta sendotuta eukan zamorako uria, inguratu eban.

III In Alfonso Zamorako uria babesteko, Arabako euskaldunakin alkartuta joan zan Zamorara bere gudozteakaz.

Almondik mauritarrak, ikusi ondoren astur-euskaldunak beren aurka joan zirela, Zamora ondoan dauan Polborariako errian urten eutsoen, ta mauritarren gudozteak Orbigo ibaiaren ondoan ezereztuta geratuz, ostean, kalifaren ministruakin egin eben elkargoan, iru urteko bakeak sinatu ebazan.

(1) I Iñigez'tar Garzia, Arista'tar Iñigoren seme eta 810-870ko urte bitartean bizi zana. 842ko urte-tik aurrera eroan ebazan bere aitaren gudozteko ardurak, eta bere aita elbarrituta (paralítico) geratu zanean 851-852urtean igon eban Nafarroako erregetzaren aulkira. Kordoban ezi eben, 843ko urtean bere osaba Musa ibn Musari lagundu eutsoan Kordobako Emirraren aurka, ostean Kordobako II In Abd al-Raman'ek Nafarroara joanda bere gudozteakaz biak menperatu ebazan. 859ko urtean Bikingoak atxilotu eban eta urre-gorritzko 70.000 txanponak ordaindu bear izan ebazan bera askatzeko. 959-860ko urte bitartean Asturiaseko I Ordoñogaz alkartu zan eta garaipen aundiena lortu eban "albeldado borokan", "Laturze mendian" edo ta deritson "Klabijoko borokan". (2) Garzez'tar Fortun, Iruñako Garzia'tar Jiménez eta Urraka erregiñaren semea izan zan, ¿?-922ko urten il eta Leireko San Salvador lekairtxean illobiratuta dagoena. 870-905ko urte bitartean Iruñako errege, Bigorako kondea eta Sobrarbeko alegiazko erregea. Leen "Begi bakarraren" izenagaz esagutu zana eta gero "Lekaidarenagaz" = Iñigo'tar Gartziaren loba. (3) Arabako euskaldunak = kontuan artu bear da, orduko Araba, Burgoseko bureba osoagaz edo Burgoseko ipar-ekialdearen lurraldeakaz bat egin ebala. (4) La Fuente eta espasak esaten dabe 879ko urtean izan zala borroka au, eta Marianak 874ko urtean.

Oso garesti ordaindu bear izan eban Nafarroako I Inñiguez´tar Gartziak, Asturiaseko IIIIn Alfonsori emon eutson laguntzagaitik, 882-883ko urteetan eraso gogorrek artu bear izan ebalako Kordobako kalifaren aldetik.

883ko urtekoa izan zan gogorrena, Yerri eta Berruezako ibarrak babestu egin bear izan ebazalako moruengandik.

Nafarroatik Arabara aldatu zan Almondir mauritarra, Zerollogoko uria Jimenez´tar Bela kondearen agindutara egonda, moruengandik babestuteko.

Almondir kalifaren agintari au bere mauritar gudaloztearekin, Pankorbora aldatu zan ostein, eta uri au Rodrigeztar Diegogaitik⁽¹⁾ babestuta egonda ezin ebelako ezer egin, mauritarrak, Leonerantza aldatu ziran, gaztelako bidean aurkitu ebazan guztiak erretea. Arik eta IIIIn Alfonso ta Nafartarren gudalozteak ikusita, atzerantza jo bear izan arte.

Mauritarrak atzerakada orretan, Sa Juan de Saaguneko lekaidetxea erre eben.

886ko urtea⁽²⁾, ez zan izan zoriontzua Nafartarrentzat, Aibarreko ibarretan Saldua edo Zaragozako mauritarrak sartuta, Liedenako borrokan gure errege IIn Inñiguez´tar Gartzia il ebelako moruek.

Bere gorpua Leireko San Salbadorren lekaidetxean illobiratu eben.

NAFARTARREN GURUTZADAK MAURITARREN AURKA.

Nafartarrak Errioxa berreskuratzera.

I Garzez´tar Santso Nafar errege au, “Gudako Seme Kutuna”ren izenagaz esagutu-ko zana leenengo, eta Leireko lekaretxera sartu zanean “Lekaidea”renagaz, Sanguesan jaio zan, eta 925eko urtean Abenduaren 10´ean Ebro ibaiaren inguruan dauan Resako errian il.

Bere suiñ⁽³⁾, Gaztelako Fernan Gonzalez kondearen lagun aundia izan zan.

870eko urtean bere aita il zanean, Baldonsellako jaurlari izan zan, gero, inguruko lurraldearen jaurlarintzan sartuta.

905-925eko urte bitartean Nafar erregea izan zan I Santso Garzez au, Garzia Jiménez eta Pallarstar Dadildis bigarren emaztearen semea, eta Jimenotar leiñuaren lenengo erregea.

Oraindiño, Garzia Jiménez bere aitaren bizitzan eta Fortuntar Garzezen erregeztan, Asturiaseko IIIIn Alfonso ta Pallarseko kondeak lagunduta, Iruñako uria menperatu eban, eta Fortun Garzezen ondorengo eskubideak ezereztuta, onen alabaso edo bir-alaba Toda´ren eskuetan jausi zan erregetza.

Eta 905ko urtean Toda erregiña bere emaztea izan zan lez, I Garzez´tar Santso izendatu eben Iruñako errege lez, Fortun Garzez erregetzatik kenduta.

(1) Porzellos edo Rodrgez´tar Diego onek, IIIIn Alfonsoren aginduak beteta, 884ko urtean Burgos´eko uria irasi eban. (2) Kanpion´tar Arturok eta beste idazle batzuk, 882ko urtean diñoie izan zala eginkizun au. (3) 910 edo 911ko urtean ezkonduta.

I Garzez'tar Santsok, Aragoiko II In Aznareztar Galindo kondea il zanean, bertoko ondorengotasunaren eskubideari begitu barik, menderatu ebazan Aragoiko lurraldeak, eta ekintza orreik izan ziran Ueskako Muhammad al-Tawil jaurlariagaz sortu ebazanak euki zituzen borrokak, Muammad al-Tawil Santxa Aznarezekin eskonduta, lurralde orren ondorengotasuna euki ebalako.

Arazo ori konpontzeko, Galiano kondearen alaba Galindeztar Andregoto, I Garzez'tar Santsoren seme I Garzia Santxez'ekin oraindiño umea zala, ezkontzeko itz emonda bakeztu zan.

Mauritarrekin euki ebazan borroka bidez, bere erregetzazko mugak zabaldu eban errioxako lurraldeetara eldu arte, eta Najera menderatu ebanean, bertan ezarri eban bere erregetzazko aulkia, Iruñako erregetzari bein betiko antolakuntza baten ezarrita.

906ko urtean I Garzeztar Santso onek, Frantziko lurraldetan, Gaskuña menperatu eban,

Adur ibaitik Tolosagaz, Garona ibairañoeko lurraldeak ziranak, eta gizaldi bat gerago III In Santso Nagusien eskuetara aldatuko ziranak.

908ko urtean, Deio'ko mendian San Estebaneko gaztelua⁽¹⁾ menperatu eban.

Eta 912ko urtean Kordobako Abdala kalifa il zala baliatuz, Ebro ibaia igaro eban, eta 913 ta 914ko urtetan egin ebazan eraso bi aundiekaz, Errioxako lurraldeak, betirako alkartu ebezan Nafarroako erregetzagaz.

I Garzeztar Santso onek eraso aundi bi orreikaz, Bilibioko-Kastro⁽²⁾ ta Najeran, ez eban mauritarren gaztelurik zutunik itzi, Tudela ta Zaragozaren ingururaino.

915eko urtean, gurutzea esku baten eta ezpatea beste eskuan daroiela, Monkayoko mendi barrenak erasotu ebazan, ekialdetik Tarazonako uria artuta, ta iparraldetik Agredako uria.

Eraso orren ostean Duero ibaiaren iturrietara igonda, Soriatik leko bat edo 5.572metrora eta Numanziaren ormazar ondoan dagoezan, Terako Santa Maria ta Garrayko Uriak menperatu ebazan.

917ko urtean I Garzeztar Santxo onek, Leongo II In Ordoñokin alkartuta, Kordobako mauritarren gudalozte bat menderatu eban Gormaz'en San Esteban'eko borrokan.

919ko urtean I Garzeztar Santso onek Errioxako borrokak amaituta, nafar erregetza, bere seme⁽³⁾ I Garzeztar Santxezen eskuetan itzi eban, bera Leireko lekaidetxean sartu ta San Benito lekaidearen jantziak ipinita, Toda bere emaztea ta Iruñako gotzairen aurrean.


Leoneko erreinura egindako Gurutzada. Mindonia edo Britoniako borroka.

919ko urtean I Garzeztar Santso lekaide sartuta illabete batzuk igarota, ostera bear izan eban gudaloztearen agindua artu, Leongo II In Ordoño, III In Abderraman mauritarrengandik inguratuta egon zalako Galiziako mendietan.

(1) Deio'ko mendian San Estebanen gaztelua = Monjardin. (2) Bilibio'ko Kastroa = Haro. (3) Garzez'tar Santso'ren izena = III Ina izan zana izen onekin.

Eta Miño ibaiaren bazterrean Mindonia edo Britoniako tokian, I Garzeztar Santso eta II In Ordoñoren gudalozteek mauritarren gudalozteak menderatu ebezan.

920 urtean baiña, III In Abd al Rahman Alnasirrek, ondo astindu ebazan biok, Baldejunckerako lurraldeetan.



I Garzeztar Santxo il zanean, Nafarroako erregetza

921eko urtearen Udabarrian eta I Garzeztar Santsok Leongo II In Ordoñori lagundu eutsolako, mauritarrak Nafarroara joan ziran mendekuak artzen.

Eta III In Abderraman Alnasirrek Errioxatik igarotzen joala, Kalaorra, Bigera, ta Najera mendean artu ta Ebro ibaitik aldatu ziranean, Iruñatik 5 lekora dauazan Muez eta Irujo bitartean, Junkadian⁽¹⁾ etzauntzatu⁽²⁾ edo kokatu zan bere gudalozteakaz.

I Garzeztar Santso zarra ezan kikildu anditzar gudalozte ura ikusteagaz, eta bera Iruñako erregetza babesteko antolatzen asi zanean, bere seme I Garzia Santxezari agindu eutson, prestau egiezala euren gudalozteak kalifari aurre egiteko, bitartean Leongo II In Ordoñori laguntza eskatuta.

921eko urtearen Ekaiñan asi zan borroka au Junkadiko ibarrean, Nafartarren aldetik Napar, Bizkaitar, Giputzak, Erioxatar, Aragoitar ta Arabatarrakaz osotzen zana, ta Leongo aldetik, naita Gaztelako lau kondek ezetza emon arren, Leoi, Galizia, ta Asturiastarrekin ikaragarritzko gudaloztea osotu eben.

III In Abderramanena baiña, aundiagoa izan zan antza, bidean Almudafar mauritarren gudalozteak elkartu jakozelako, eta Leongo gudaloztea Gotzai ta guzti ondatu ondoren, napartarrak ez eben euki ezeren zeregiñik.

Mauritar gudalozteak mozkortuta euren garaipenagaz eta Iruñako erregetza alboan itzi ondoren, Galiaserantza joan ziran Parkameneko mendi ondorengotik, Tiebas, Elorz eta Aibarreko ibarretik Garonako ibaiaren ibarretara, gero Jaka ta Kanfranetik Auñamendiak igarotuta Frantziaren ego-aldeko erriak arrapaka saskiltzeko.

Askenean, euskal-nafartarren garaipena.

Mauritarrak, euren lurretarako bidean guda-ondakiñez beterik etorten zirala Frantziaren ego-aldetik, ez eben jakin I Garzeztar Santso ta bere seme I garzia Santxezek,

(1) Junkadia = Junquera-ren euskerazko izena. (2) Etzauntzatu = acampar.

itxaroten euki ebezala Erronkaleko trokartetan, eta ikaragarrizko astiñ aldi mauritarrai emonda, 921eko urtearengandik geratzen zana, eta 922ko urte asieratan berrezkuratu ebazan, len IIIIn Abderraman Alnasirrek kendu eutsoezan uriak, Najera ta Bigera izan ezik.

922ko Udabarrian Leongo IIIn Ordoñok, asarre Gaztelako lau kondeak egin eutsomagaitik, Leonera eroan ebazan eta bertan il.

Gaztelako erritarrak asarre kondearen iltzeagaitik, Bigera ta Najerako mauritarra-kin alkartu ziran, baiña ez eutsoen ezer balio, I Garzeztar Santso, bere seme I Garzia Santzez eta Leongo errege IIIn Ordoño ostera joan zirelako Najera ta Bigera berrezkuratzera.

924ko urtearen urtarrillan, Bigera babesten egon zira mauritar Abdala-ben, Maa-
mad-ben-Lob eta eurekaz barruan egon ziranak il ondoren, I Santsok Bigera ondoan, Albeldado San Martin lekairtxea eraiki eban, borroka ori San Martiñen egunean egin zalako.

Eta IIIn Ordoño bere erregetzara itzuli orduko eta Nafartarrakaz euki eban artu emonak sendotzeko, I Garzia Santxezen alaba Santxagaz ezkondu zan.

925eko urtean eta Ebro ibaiaren bazterreko Resa inguruan, Abenduaren 10eko egunean il zan gure I Garzeztar Santso au, eta bere gorpua Monjardiñeko San Esteban de Deioko baselizan illobiratuta dago.

I Garzez Santxo au izan zan dirua atara ebena len erregetza guztietatik, bere erregetzan erregearen-eskubideak⁽¹⁾, XIIIIn gizalderaiño iraun ebenak.

Baita, katolikotasunaren txeberazko sare orreitan, erregetza guztietatik elburu nagusi edo zilborra izan zana.

I Garzia Santzez⁽²⁾, I Santxo Garzez eta Toda erregeñaren seme au, 919eko urtean jaio ta 925eko urtean egin eben errege, 925-931 urte bitartean Garzeztar Jimenoren errege ordeztotzan, eta Nafarroako errege izan zan 926ko urtetik, bera 970eko urtean il zan arte.

925eko urtean Abenduaren 10ean I Santxo Garzez il zanean, I Garzia Santzez onek sei urte bakarrik eukezan, eta bere osaba Jimeno Garzezen erregetzazko ordepean egon zanean, errege ordegotza orrek, bere eztabaidak ekarri ebazan, eta eskerrak Toda bere ama ta IIIIn Abderramaneri, eztabaida orreik bakeztu ziran.

931-934ko urte bitartean, I Garzia Santzez gaztea izateagaitik, bere ama Todaren errege ordeztotzan egon zan.

933ko urtean I Garzia Santzez adiñetara eldu zanean, bere emazte Andregoto Galindezen errege ordetzagaz arduratu zan, eta beragaz Aragoiko konderriarena.

IIIIn Abderraman asarre, Leongo IIIn Ramirok Extremaduran eta Lusitanian egi-ten ebazan sarraskiagaitik, "**Guda Santua**" aldarrikatu eban katolikotasunaren aurka.

939ko urtean Uztaillaren lenengoetan IIIIn Abderramanek, Tajo eta Dueroko ibai bitartean dagozan lurraldeak erraustu, ta Zamorako Uria inguratu ebanean, IIIn Ramirok Nafar eta Gaztelako laguntza eskatu ondoren, apaiz ta al ziran guztiak joan ziran borroka ortara, erlijiozko borroka lez artuta euki ebelako.

(1) (3) Erregeen eskubideak = regalias (2) I Garzia Santzez tar Nafarroako erregea 919ko urtean jaio eta 970ko urtean Otsaillaren 22an il zan, I Garzez tar Santso eta Toda erregeñaren semea izan zan, eta bere erregearen urteak 925ko urtetik 970eko urteraiño ziran.

939ko urtean Dagonillaren 5ean Leongo II In Ramirok, Nafarroako I Garziatar Santzez⁽¹⁾, Gaztelako Fernan Gonzalez eta Asturias ta Galiziako gudozteakaz elkarte bat eginda, III In Abderraman mauritarra menperatu eben Simankaseko borroka ospatsuan.

III In Abderramanek irakasita, ez eban katolikotasunezko erririk erasotu geiago beren askeneko erregetzararte, nafar errege I Garzia Santzegaz batera, Leongo erregetzazko aulkian "*Santxo Lodia edo el Craso*" ipinteko egin ebezan alegiñak baiño.

943ko urtean I Garzia Santxezek, Andregoto Galindezekin euki eban ezkontza ezeztu eban, eta bigarren andre Ramireztar Teresarekin ikusten da lenengo urte onetan.

Iruñako erregetza, garrantzi aundikoa izango zan etorriko ziran urteetan bere ama Todari esker, I Garzia Santxezen arrebak: Urraka II In Ramirogaz, Santas II In Ordoñogaz, ta Oneka IV In Alfonsogaz ezkondu ebazalako. Naparrak, orregaitik euki eben artu emon aundia Leoneko anai arteko gudatan.

950eko urtean Leoneko II In Ramiro il zanean, nafartarrak, Toda erregeñari lagundu eutsoen bere bir- seme Santsok Leoneko errege aulkira igon egian.

Bai ta gero, bere beste bir- seme Ordoño txarrak, Santxo bota ebanean erregetzatik, Toda beren amama, III In Abderramanengana joan laguntza eske, bere bir- seme Santxo ostera ipini egien erregetzazko aulkian.

953ko urtean I Garzia Santxezek bere ama Todaren alegiñekaz, Errioxako San Martin de Albelda lekaidetxeari emon eutsoen, Kameroseko mendietan kokatuta dauan Bagibel erria.

960ko urte inguruetan Gaztelako Fernan Gonzalezek euki eban menperatuta Errioxako alde ori, baiña Zirueñako borrokatik, ostera aldatu ziran Nafartarren agindutara Ebro ibaitik Okako mendietaraiño Errioxako lurralde orreik.

961eko urtean Leongo erregetza ta Gaztelako konderrri arteko borrokan egon zirananean be, an egoan gure I Garzia Santxez au, eta Fernan Gonzalez Gaztelako kondea atrapau ebanean, ez eutson mauritarrai eskuratu.

963ko urtean katolikotasunezko elkarte bat antolatatu zan, II In Alhagen mauritarren aurka joateko, mauritar oneik baiña, eurak menperatu ebazan.

970ko urtean Otsaillaren 22an il zan I Garzia Santxez, eta Monjardineko gaztelupean dagon San Estebaneko eleiza txikerraren arkupean illobiratu eben.

978ko urtean, Nafartar II In Santso Abarka denboran, Gormazeko borroka.

Ikxen mauritar kalifaren lenengo ministroa zan Almanzorrek erregetzara igon ebanean, *Almanzor mauritarra* Gaztelako lurraldeetatik sartuta, Fernandeztar Garzi Gaztelako kondea keiñatzailetuta geratu zan, ta onek laguntza eskatu eutson bere lengusu ta Nafar errege II In Santso Abarkari⁽²⁾.

Bere lengusuak laguntza eskatu eutsoanean, II In Santso Abarka larritasunezko aukera baten aurkeztu zan, berak Almanzorrek euki ebazan itz- emonak ez ebazalako apurtu gura.

(1) Nafar gudalozte auek, Aznarez ´tar Toda I Garzia Santxezen ama, berak bideratu ebazan nafar gudalozteak, semea gazte izan zalako. (1) II In Santso Abarka = Nafarroako errege I Garzia Santxez eta Galindez ´tar Andregoto erregeñaren semea zan. 938-994 urte bitartean bizi zana, 970-994 urte bitartean Nafarroako errege. Aitaren aldetik Nafarroako erregetzaren ondorengoa zana, eta amaren aldetik Aragoiko konderrriaren ondorengoa. Eta gaztelar ta Leontarrakin alkartuta, II In Alaben eta Almanzor mauritarren aurka borrokatu zan. 972ko urtean Zirueñako San Andres lekairetxea eraikita. Gonzalez ´tar Fernan ´en alaba Urrakagaz ezkondu zan eta euki zituzten seme alabak, II In Garzia Santxez "Ikaratia" bere ondorengoa izan zana, Iruñako Ramiro, Iruñako Gonzalo, Iruñako Urraka "La Baskona" eta bere aita gaitik Almanzorri emonda "Abda" ren izena artu ebena, Almanzorri seme bat emonda eta Abderraman "Santsuelo" deitu zana, bere aitate Abarcaren antza aundia euki ebalako. Urraka ama gero lekaidetxe baten sartu zan.

Senidetasunak askenean baiña, bere lana egin eban, eta laster asi zan bere gudalozteak antolatzen, Gaztelarren lurraldeetara joateko. Gormazeko Uri inguruan alkartuta bere lengusu Fernandez´tar Garzia kondeagaz.

975eko urtean egin zan borroka ori, eta katolikoak mauritarrengandik menperatuta, mauritarrak, Gormaz eta Atienzako uriak artu ebazan.

Borroka orrek, Nafartarrentzat ekarri ebazan ondorioak.

Nafartarrak emendik aurrera, Almanzor kalifaren etsai lez geratu ziran, eta gaztelar ta Leongoaren antzera, Almanzorren mendeku ta asarrearen zakarraldiko ekiñaldietara eroan ebazan, 985,992, 995 eta 997ko urteetan gertatu zan lez.

Nafartarrak baiña, euki eben indarragaitik, ez ziran etsaimendu Almanzorren ekiñaldi gogor onegaitik, Katalañazorreko borrokan mendekuak artuta.

1.002ko urtean, IIIIn Santso Aundiaren erregetzan⁽¹⁾, Katalañazorreko guda.

975eko urtean IIIn Santso Abarka Gormazeko borrokan mauritarrengandik azpiratuta, eta Almanzor mauritarra arro, 24 urteko garaipena eroan ebala Afrika ta erdiugarte onetatik, gudalozte aundienetariko bat asi zan antolatzen.

1.002ko urtean Gaztelako konderriaren aurka joan zan, katolikotasunezko erlijioaren lurralde guztiak menperatu naian, eta gaztelarrak ikusita zer etorten jakien gaiñera, Nafar eta Leongo laguntza eskatzen asi ziran.

Katoliko erregeak, Soria inguruan eta Numanziaren ondoan dauan Katalañazorren uria aukeratu eben euren gudalozteakaz alkartzeko.

Gaztelako gudalozteak, Fernandeztar Garzi kondeak bideratzen ebazan.

Leongo gudalozteak, Menendo kondeak bideratzen ebazan.

Eta Nafar-Errioxako gudalozteak, IIIIn Santso Aundiak, Gaskuña, Langedok eta Frantziaren Tolosako kondearen gudalozteakaz.

1.002ko urtean Dagonillaren 6an antolatu ziran katolikotasunezko gudalozteak Almanzor mauritarrak bideratzen ebazan gudaloztearen aurka, IIIIn Santso Nafar erregea erdian kokatuta.

Egun osoan egon ziran borrokatzen, IIIIn Santsok eten bageko eraso gogor baten iraunda, atzerantzako oinkadarik emon barik.

(1) IIIIn Santso Aundia = 1.004-1.035ko urte bitartean Nafarroako errege. 990/992 urtean jaio eta 1.035eko urtearen Urrillaren 18an il. Bere ilketaren mezak, Oñako San Salbadorren lekaidetxean egin zira. Bere aita IIIn Garzia Santxez "Ikaratia" eta Zea konderriko Fernandez´tar Jimenaren semea izan zan. 1.000-1.002ko urte bitartean Iruñako erregetza eta Aragoiko konderriak artu ebazan, 1.017-1.035ko urte bitartean, Sobrarbe ta Ribagozako konderriak bereganatu ebazan, eta Ezkontza bidez Gaztela, Araba ta Monzon bere erregetzara alkartuta 1.028-1.035eko urte bitartean. Najeran bizi zan eta Europan be sartu zan Auñamendietatik gora Gaskuñaiko dukerriaren Jauntza be euki ebalako. Bere erregetza, eta Almanzor il zanetik, mauritar kalifatoaren maldaberan asi zan Taifaseko erregetzatan amaituta.



Leongo erakustokian 1.190-1.200

III In Santso Aundiaren illobiko arria

Almanzor, zaurituta eroan eben bere larru-aterpe edo oialpera, eta ikusita bere gudalozteak zelango astiñaldia artu eben katoliko gudaloztearen aldetik, atzerako bidea agindu eban.

1.002ko urte orreitan eta Dagonillaren 9an iru egun beranduago il zan Almanzor Medinazelliko urian.

Borroka onen ostean III In Santsok⁽¹⁾, Segre ibaiaren ibarretaraiño zabaldu ebazan bere mugak, Uesca, Tudela ta Zaragozako mauritarrak zergapean ipinita, eta gero bere seme I Fernandok Gaztelarren agintari lez, Montego ta Guadarramaraiño.

(1) Ybn Hiyàn edestilari mauritarra, Dozy'k aipatzen dabenean (Recherches, 3^a ediciòn tomo I-1.881, pàg. 205), onek Foru onaren III In Santso goraltzen dau, gauza auek esanda: "Berak ez dauela ikusi borrokalarì obeagorik kristauen artean, Santsok bideratzen ebazanak baiño, eta bere printzearen artean iñor beralakua, aiñ zentzutasunaren itzurazko gizona, kemen andikoa, jakintuna ta mintzo ederrekua, eta baten bat bere antzeko edo irudikoa euki ba eban be, bere senide Santso Garziaren semea, izan zala". Ybn Hiyàn mauritar edestilari au, bertone bera egonda, gauza guzti onen ikusle izan zan.

1.044ko urtean Kalaorra mauritarrengandik berreskuratzea.

Vn Garzia Santzez Najerakoa guztiz arduratuta, garrantzi aundia eukan Kalaorra-uria mauritarren eskuetan egon zala-ta, euren mendera-ezinezko gaztelu lez Ebro ibai gainetik, zaldun-elkargo⁽¹⁾ bat irasi eban Amabirjiñaren omenez, La Terraza´ren⁽²⁾ izena euki ebana, aztor edo mirotz-eizan⁽³⁾ ibili zanean, Amabirjiña agertu jakelako.

1.045eko udabarrian pozik bere Amabirjiñaren agerketagaz, bere gudakozteak batuta Kalaorraren orma edo arresi aurrean kokatu ebazan.

Ainbat aste joan ziran uria erasotzen egon zirala, orma barruan egon ziran mauritarrak, babes aundiekin borrokatzen ebelako.

Jorraillaren askenean baiña, Nafar-Errioxarrak gartsututa⁽⁴⁾ Errioxako zaindari San Millan borrokan ibili ziranean agertu jakielako, bereala menperatu eben gaztelua, Nafar ikurak dorreetan ipini ta gotzai eleizak ostera berrezkuratuta.

1.052ko urtean Abenduaren 12an, Vn Garzia Santzez Najerako onek, Kalaorra ta Tudela berrezkuratu ondoren eta Jainkoari eskerrak emoteko, Erregetzazko Santa Maria Eleiz-Lekaretxe ederra irasi eban, bereinkapen orreitara bere anaiak, Burgos eta Leongo errege I Fernando, Aragoiko errege I Ramiro eta Bartzelonako kondea I Berrenger´tar Ramon bere koñatua joanda.

1.052ko urtean Gauza onengaitik VIIIn Benedikto Aita Santuak, Eugenia Santearen erliki kutunak emon eutsosan, gero beste batzuekatz batera Nafarrora bialdu ebazanak. Eugenia Santearen ondarrak, Najerako Santa Mariaren eleizan kokatuta.

Vn Garzia Nafar errege onen agindupean Rioja ta Bureba lurraldez gain, Gaztela zarra, Trespaderneko uria, Tormeseko San Migel, Balpuestako Gotzai-Uri eta bizi-to-ki, Kantauriko itsas-ertzean dauan Kuetoko gaztelua, Kai´aren Santa Maria⁽⁵⁾, eta Bizkaian Barrikako Santa Maria egon ziran.

Gaztelako VIIn Alfonso ta Nafarroako Vn Santso Ramirez´ek, Toledoko uria berreskuratatu.

IIIIn Santso Aundiaren Gaztelako VIIn Alfonso billoba onek⁽⁶⁾, ikusita berak ez ebalá indarrik euki mauritarren aurka joateko, bere mugatan moruekin borrokan egon zan Vn Santso Ramirez Nafarroa ta Aragoiko erregearengana joan zan laguntza eske Toledoko uria askatzeko.

Gurutzada orren gudariantzat, Toledoko uri ori berrezkuratzea, gorabera edo ar-dura aundikoa izan bear izan zan antza, eleiztarrak egin eben eupadagaz, Italia, Alemania ta Frantziko gudariak be ekarri ebazalako borroka orretarako.

Eta Gaztelako VIIn Alfonso gudari guzti orreikaz, al izan eben Toledo inguratuz eukinda, Merida eta Badajosetik languntzan etorri ziran mauritarren gualozteari aurre egiteko.

(1) Zaldun-elkargoa irasi = crear una orden de caballería, única en este península, a excepción de la de Roncesvalles. (2) La Terraza´ren izena = bere eezaugarria “ lili zuriagaz lei-pitxer edo lei-txarro bat beteta” izan zana. (3) Aztor edo Mirotz-eizan = caza conalcones. (4) Gartsututa = enfervorecidos. (5) Kai´ko Santa Maria = Santoña. Eta 1.047ko urtean Kai´ko Santa Mariaren agiri baten: Gaztela ta Nafarroako errege lez agertzen da. (6) Gaztelako VIIn Alfonso “Bioztuna” = Leon eta Gaztelako errege 1.065-1.109ko urte bitartean. Nafarroako errege IIIIn Santso Aundiaren seme I Fernando izan zan bere aita. Bera 1.040 urtean Nafarroan jaio zan eta 1.109ko urtean Toledon il.

Borroka onetan ez ziran gurutzatuak bakarrik borrokatu, VI In Alfonsok, Sebillako Ebn Abed mauritar emirra be bere alde jokatu ebalako, Toledoko mauritar errege Yahia Al Kadir´eri, gorroto edo ezin-ikusi aundia eutsolako.

1.085eko urtean Loraillaren 5ean, 364 urte mauritarrek Toledon sartu ziranetik geroago sartu ziran katolikoen gurutzatuak Toledoko urian, orduan egon zan Yahia Al Kadir mauritar erregea, Balentziara joanda, eta Duero ibaian egon ziran ararteko mugak, Tajo ibaiararte aldatu ziran betiko.

1.085eko urte onetan Lizarran, Puy´ko Amabirjiña agertu zan Abarzuzaren leko batera.

1.086ko urtean Ekaiñaren 30ean, Almorabidearen gidari Yusuf bildurgarria aldatu zan erdiugarte onetara, Aljezirazeko itsas-estutik.

Lenengo gurutzada Lur Santuetara.

1.096-99ko urte bitartean egin zan Lorenako Duke Boullontar Godofredok bide-rutata, eta lenengoa be-Nafartarrentzat Lur Santuetara.

Nafarroako Santso Biotz-Aundikoaren⁽¹⁾ anaia Ramiro Garzez errege semea⁽²⁾ izan zan, Gaskoi, Akitano ta Probenzalekoakaz, Tolosako konde Ademar eta Franziko lurraldearen Puy´ko⁽³⁾ Ademaro gotzaiagaz batera, bideratzen joan zana Tolosa, Lion, Ginebra, Italiako Ybrea, Milan, Benecia, Akilea, Zara, Albaniko Durazo, Greziaren Iparreko Tesalonikatik joanda, Konstantinoplan, Godofredoren gudalozteakaz alkartzeko.

II In Urbano Aita Santu eta Pedro ermita-zai´en aldarriketaren deiagaz, 600.000 gurutz gudari batu ziran.

1.097ko urtean Asia-Txikerrako Seldjzidasen aurka borrokatu ziran.

1.098ko urtean Antiokia artu eben, eta 8 illabete geroago Jerusalemeko uriaren aurreraiño eldu ziran.

1.099ko urtean Ekaiñaren 15eko Barikuaren arratsaldeko iruretan sartu ziran jerusaleneko Urian.

Nafartar gurutzatuak artu emon aundia euki eben gudaldi oneitan.

Aragoi eta Nafarroako errege Pedrok, egin ebazan iru gurutzada.

1.096ko urtean Uesca askatzea.

Ueskako uria, izan zan gaztelu edo babes-uri gogorrena mauritarrentzat ia lau gizarditan, eta Nafarroako errege Vn Ramireztar Santso inguratzen egoala sakon zauritu ebanean, bere seme ta ondorengo I D. Pedoren altzoan egoala, ziñ-itza emotea galazo eutson semeari, berak ez ebalta Uriaren ingurutasun ori autsiko⁽⁴⁾, arik eta uria mauritarrengandik askatu arte.

(1) Biotz-Andikoa = El Noble. (2) Ramiro semea, Zid eta bere emazte Jimenaren aitagiñarreba izan zan =“Txapelduna gurutzadako borroka orreitan”. Eta Boullontar Godofredogaitik ondo saritua izan zana. Gero Monzo´eko Jauna izan zan eta 1.116ko urtean ilda, San Pedro de Karreñoko lekairetxean illobiratu eben. Bera lez izendatzen zan seme bi Garzia Ramirez, Santso ta Elvira alabea itzi eban, eta bere leen seme Nafarroako erregetzaren ondorengoa Kantabriako dukearen izenagaz izendatu ebanean, erregearen aulkira igon eban, I Alfonso “Borrokalaria” seme barik il zanean. (3) Ademaro gotzaia = eginkizun oneitan Aita Santuaren ordezkoa izan zana. (4) Autsi = interrumpir.

Inguratuta egon ziran mauritarrak, laguntza eskatu eutsoen Zaragozako Almonstasin edo In Almuzaten mauritar erregeari, onek baiña bildur uritik urteteko, Albarrazin, Jatiba eta Deniako emirren laguntza eskatu eban, eta baita bere lagun aundia izan zan Gaztelako

VI In Alfonsori, onek ezeren lotsa edo begirun barik, gualozte indartsu bat bialduta Najerako jaurlari eta kondea izan zan Garzia Ordoñez en agindutara.

Eta 100.000 gudari baiño geiago osotzen eben gaztelar ta mauritarren gualozteak alkartu ondoren, Ueskako uria Nafar-Aragoitarrengandik askatzen joanda, Alkorazeko ibarretan topo egin ziran gualozte indartsu bi oneik, Nafar-Aragoiko gualozteak, euren garaipen aundiena lortuta.

1.096ko urtean Zemendi edo Azaroaren 18ko egunean egin zan borroka au, eta moru ta gaztelarren artean, 40.000 gudari baiño geiago il ondoren, lau errege mauritarrak, orren il artean egon zirala, Garzia Ordoñez be atxilotu eben, onek irunsi bear izanda: *ez zala Nafar-Aragoiko kristau bizirik urtengo borroka ortatik*, esaneko berbak.

Urte bi bear zituzen Nafarroa eta Aragoiko I D. Pedrok uria askatzen, eta Ueskako mauritarrak ez ebelako iñungo laguntzarik euki, Uria Nafar-Aragoiko D. Pedro erregeari etsaimendu zan 1.096ko Azaroaren 25'eko urte onetan.

Oar txiki bat.

Baten batek esango ote daust, borroka onetan nortzuk izan ziran katoliko-kristau eta nortzuk egiz edo sinismen guztiagaz mauritar sinist-ausleai borrokatu eutsienak ?.

Argi dago borroka onetan, naita Nizeako batzarretan erabagita katolikotasunezko faziztaren ikurra nastuta eroan bear, benetako kristauak, Euskal Nafar-Aragoikoak ziralara, oneik, sinismenak emoten dauan indarragaz borrokatzen ebelako.

Zertara jokatu dabe Gaztelarren errege VI In Alfonso bezelako espainolak beti ?. Goi-ko Jainkoaren sinesmenean, edo ta norkeriz asmatutako irabazkiagaitik ?.

Gaur, diruaren arrastoak ikusita, zertarako ibiltan daben erabagizko alde ezberdiñ bi orreik, laster ikusten dogu Jainkoaren sinismenekoa nor dan.

Balentziako gurutzada.

Erdiugarte onetara eta mauritarren lurraldeetara sartu ziranean almorabideak, Bibarreko Zid edo Diaz' tar Rodrigok euki eban inguratuta Balentziako alderdia.

Onek, bere jaun izan zan Gaztelako VI In Alfonsori eskatu eutson laguntza, baiña Alfonso onek, 1.086ko urtean eurakaz euki eban Zalakako borrokan jakitun, zelakoak izan ziran almorabide oneik, ez eutson lagundu.

Eta orduan Bibarreko Zid'ek, Nafarroa eta Aragoiko Pedro erregeari laguntza eskatuta, onek baikorrezko erantzuna emonda, bereala urten eban Balentziarantza.

Jatiban euki eben lenego borroka Ben Aixa almorabideagaz, eta onek ikusita zelako indarra euki eben Zid eta Pedroren gualozteak, atzeratu egin zan.

Bibarreko Zid eta Pedro nafar erregea euren gualozteakaz itsas ertzetik joan zirala eta Gandia orduko, ostera topo eginda almorabideakaz, bereala borroka gogor baten asi ziran, eta almorabideak menperatu ta inguruak etsai edo almorabides garbitu ostean, gaztelura sartu ziran, Pedro erregea, bere Nafar-Aragoiko erreinura itzulita.

1.101eko urtean, lenengo gurutzada Zaragoza berreskuratzeko.

1.101eko urtean eta IIn Urbano Aita Santuaren osteko IIn Paskual Aita Santuak, Nafar eta Aragoiko I Pedro⁽¹⁾ erregeari aolkatuta, gurutzadazko borrokak egin bear ebazala, eta Nafar-Aragoiko erreñuetan agindu orreik zabalduta.

Arleseko gongotzai edo artx-apezpiku Jubilino etorri zan Marsellako abata Ricardo kardinalagaz batera Aita Santuaren agindu orregaz, erdiugarte au, sinist-ausleetatik garbitzeko.

1.101eko urtean Ekaiñaren asieran I Pedro Nafar-Aragoiko erregea gudalozte indartsu bat antolatuta, Zaragozako Uria inguratu eban, ekintza onegaz, lenengo gurutzada santuari asiera emonda.

Euren jantzietako eskumako soin edo besagaiñean gurutz zuri baten ezaupideagaz joan ziran.

1.104ko urtean Iraillaren 27-30eko egun bitartean, altxatu bear izan eban Zaragozari egiten eutson ingurutasun ori, eta etxera joaneko denbora gitxi barru bitarte orretan il zan.

Nafarroa eta Aragoiko errege I Alfonso Gerlariak 1.118ko urtean Zaragoza mauritarrengandik berreskuratu eta 1.129ko urtean IIn joanaldiko gurutzada Andaluzira.

1.110eko urtean Nafarroa eta Aragoiko errege I Alfonso Gerlariak Baltierrako⁽²⁾ Uria berreskuratu eban, eta urte berean, Tudela edo Muzkariako Uria.

Borroka onegaz amaitu ziran nafarrantzako, jabetasunezko lur berreskuratzeak. Eta borroka orretan il zan IIn Al Mostain mauritar erregea.

1.111ko urtean, I Alfonso Nafar-Aragoiko erregea, Urraka Gaztelako erregiñagaz ezkondua egoteagaitik, Gaztelako erregetza berea zalakoan ibili zan gaztelarrakaz borrokan beti.

Eta baita berreskuratu be, gaztelarrak kendu eutsoezan Ebro ibaitik Montes de Okaraiñoko Nafar lurraldeak, Rioxa, Bureba ta ordurarte Gaztela Zarrako ziran lurraldeak, Sepulbedako Kandespina, ta Astorga ta Leon bitartean dagon Billadangos, Suge-Iturriko⁽³⁾ borrokatan garaipendu zanean.

(1) I Pedro Aragoiko erregea 1.068ko urtean jaio zan Aran'eko Ibarrean, eta 1.104ko urtearen Iraillan il. 1.094-1-104ko urte bitartean Nafarroa eta Aragoiko errege. Vn Santso Ramirez eta Urjeleko Isabelen semea izan zan. Bere aitak Pedro printzea zala, Ribagorza ta Sobrarboko errege izendatu eban 1.085eko urtearen Ekaiñatik aurrera. 1.089ko urtetik aurrera bere aitak, Zinka erekaren erdi ingurua emon eutson Monzon'eko errege lez, Taifa ta Leridano moruengandik oso erasotuta egon ziran lurraldeak, bere aita Vn Santso Ramirezek beste Nafar-Aragoiko erregeak egiten eban lez, jaurkintzazko ardurean sartu egiezan egiten ebana. 1.093-1.103ko urtetan eta Bibarreko Zid'ekin alkartuta Baletziako sortaldean, Kulla, Oropesa, Mirabet, Montornes eta Castellón de la Plana'ko mauritarren uriak menperatu ebazan, 1.100ko urtearen Uztaillan Aragoiko I Pedrok egindako agirian agertzen dan: Aragoiko, Pamplona, Sobrarbe, Ribagorza, Kulla, Oropesa eta Kastelon'eko erege lez siñatuta. Agiri orreitan "mio cid Muño Muñoz"eri Azafaz gaztelua, Oba'ko uria, eta sortaldeko tenetes edo jabetasunak aipatuta: Orti Ortiz, Monroij, Kulla ta Orpesan aginduten ebana, ta aipatutako Muño Muñozeri Arafaz, Monroij Montornes gaiñean, Kastelloneko tenente edo jabetasunezko aduragaz geratzen ziranak. 1.094ko urtean Ekaiñaren 4an ondorengo lez artu eban Aragoi eta Nafarroako erregetza, Aragoiko lurraldeak Alkubierre ta Monegroseko mendiketararte zabalduta. 1.096ko urtean Ueskako uria berreskuratu eban Zaragozako IIn Al-Musta'in'eri Alkorazeko borrokan irabazita. 1.097ko urtean Zid'en ondoan borrokatu zan Bairen'en, Muamamad ibn Tausin'en aurka, onek Balentziako gaztelua berreskuratu gura ebalako. 1.101eko urtean Barbastro ta Sariñena artu ebazan, Zaragoza be erasotuta. 1.104ko urtean Ueskako Tamarite de Litera inguratu eban, baita errege semearen foruak be arautu. 1.104ko urtean Iraillaren 27-30 egun bitartean il zan Aranekeo Ibarrean. 1.086ko urtean JAKAN ezkondu zan Akitaniako Ines'ekin 1.103ko urtean il zana, seme bi eukinda, aita baiño ariñago il zirenak. 1.097ko urtean ezkondu zan Ueskan Bertagaz bigarrenez. Ez eban seme-alabarik euki ezkontza onetan eta erregetza, Aragoi ta Nafarroako errege izan zan I Alfoso "Gerlariaren" ardurapenean geratuko ziran. (2) 1.109ko urtean I Alfonso Nafar-Aragoiko erregea, Gaztelako Urraka erregiñagaz eskonduta, beragaz eroa eban Baltierrako borroka onetara. (3) Suge-Iturrian = Fuente culebras.

1.114ko urtean Zaragoza bereganatzeko, Gaztelako borroketan eukezan gudalozteak kendu ta Zaragoza menperatzera joan zan.

I Alfonso Gerlari onek, Zaragoza berrezkuratzen doiela aldarrikatu eban, eta atzeritar asko alkartu jakozan, Alpertxe, Bearne, Bigorre, Komingeseko kondeak, bai eta Igo Gurutzadan Tripoliko uria menderatu eban Tolosako Beltran, Ramon kondearen semea zana eta danetatik aundiena.

Tolosako Beltran onek I Alfonso erregeari, ez eutson, bere Tolosaren konderriagaitik umajea bakarrik egin, euki ebazan Rodez, Kaors, Narbona eta Karkasonaren jabetzagaitik be egin eutsozelako, umaje onegaz, euskal-Nafar-Aragoiko erregetzaren mugak sendotu ta andia gotuta.

Eta 1.116ko Dagonillaren erditik, naita I Alfonso Zaragoza mauritarrengandik askatzeko borrokan ibili, Gaztelarrak, Bizkaiko Jaun Diego Lopez de Arokoagaz, I Alfonsori Gaztela erasotzeko bideak ebagitzeko, Errioxa aldetik ibili ziran lur oiek berari kentzen, eta gaztelar ta Bizkaitarrak lurralde orreik menderatu ba eben, I Alfonso bertara joan da, ostera berrezkuratu ebazan danak.

1.117ko urtean ostera joan ziran Gaztelarrak indar geiagorekin, Urraka Gaztelar erregiña bere lenengo senar Borgoñako Raimundoren semeagaz, eta barriro joan bear izan eban I Alfonsok, kendu eutsoezan Gaztelako lurralde orreik berrezkuratzen, oraingoan Gaztelako Soria eta Almazaneko lurraldeetan zigor lez sartuta, eta Errioxa betirako bere nafar jabetzarako berrezkuratuz.

Eta 1.117ko urtearen amieran I Alfonso Gerlari orrek, franko laguntzaille ta Nafar Aragoiko andikiakaz lortu eban gudalozte indartsuagaz, Zaragoza inguratzen asi zan.

Zaragozako mauritarrak, ondo babesten ziran, eta gaztelarrak ainbat bider zirikatuz, neketsu ta luzea biurtu zalako ingurutasun ori, frantzezak Bearneko Gazton izan ezik, euren etxeetara joan ziran.

1.117ko urtearen Abenduan, IIn Jelasio Aita Santuak jakinda zer gertatzen zan, lagundu gura izan eutson, eta bulda edo beruneko idazki bat bialdu eban Zaragozako gotzain Librana 'tar Pedro 'gaz, Nafar-Aragoiko gudalozteak gartsuteko.

Mauritarren aldetik be, ezin ebela aiñ garrantzi aundiko Uria galdu eta, Afrikatik Almorabideen kaisarren anai El Temin esaten eutsoenai, Ali 'k bideratutako gudalozte indartsuak bialdu ebazan.

1.118ko urtean Abenduaren 18an, Nafar-Aragoiko errege I Alfonsok baiña, borroka batzuen bidez almorabide orreik menderatuta, etsaimendu bear izan eban Zaragozako uria urte onetan.

Eta Nafartarrak oraindiño Zaragozan egoezala, Aralarreko San Migel agertu jakielako, Zaragozan bertan, Nafartarren San Migeleko Eleiza deitzen zan gainean, eleiz aundi bat eraiki eben.

Zaragozako uria menperatu ebanean, laster artu ebazan emirato orren, Tarazona, Borja, Alagon, Kalatayuz, Soria Ariza, Molina eta abar.

1.119ko urtean I Alfonsok, Ebroko iturriak⁽¹⁾, Alfajarin, Tudela⁽²⁾, ta Monkayoren Abel bazka guztia, Tarazona bere inguruagaz, Errioxako Alama ibaiaren ibar guztia, Nafarroako Tudejen eta Kastilloko gazteluak⁽³⁾, Noballas, Agreda, Magallon, San Juaneko Alberite, Borja, Alagon, Nobillas, Epila eta Rueda de Jaloneko Udi⁽⁴⁾ erregetza be berrezkuratze orreitan sartu ebazan.

Urte onetan Soriako Uria eraiki eta bir-erritu be egin eban. Soriako uri ori, 1.134ko urtean bera il zan arte, I Alfonso Gudariaren agindupean egon zan.

1.120ko urtean Ekaiñaren 17an I Alfonso Daroka inguruan egoala, Jiloka ibaiaren ibarrean dauan Kutandako errian, almorabideen kaisar el Temin esaten eutsoen anaia, Ali agertu jakon aurrez aurre ostera, gudalozte indartsu bategaz.

Oraingoan baiña, ez egoan parkamenik, eta I Alfonso Nafar-Aragoiko gudari erregeak, ezereztu eban almorabideen mauritar gudalozte indartsu ori.

I Alfonso Gerlariaren gurutzatuzko gud-aldia Andaluziara.

1.120ko urtean, I Alfonso Gerlaria ainbeste garaipenarekin sututa, eta mauritarren berakadagaz baliatu gurean, Granadako muladi muzarabeak, edo mauritarren artean bizi ziran kristauak, Aben Ramir ´en⁽⁵⁾ izenean ostondutako eskutitzetan, eurei laguntzeko egiten eutsoezan deialdiak artzen ebazan, eta laguntza orren orde, ango mendi, ibar ta itsas basterraren jauntza emongo eutsoelakoan onartuta, muladi, muzarabe edo kristau orreik, mauritarren menpetasunetik askatzeko erabagia artu eban.

Eta Kalatayuz inguratzen egoala, jakinda almorabideak Balenziako uritik Zaragoza berrezkurtzeko etozela, egon zan ingurutasuna egiten bertan itzita, Akitaniako IXn Guillermo gaskoiaren laguntzagaz urten eban almorabidearen aurka.

1.120ko urtean Bagillaren 17an, Jilokako ibaiaren ibarrean dagoan Kutanga errian almorabidearen aurrean aurkeztuta, I Alfonsok egin eban borroka aundiena egin eban, ortik aurrera, almorabide mauritar orreik Zaragozatik betirako bialduta.

I Alfonsoren gudalozteak garaipen onen ostean, Terueleko lurraldeetara joan ziran, eta Kalamotxa eta Monreal del Kanpoko uriak artu, eta azken uri au berriz eraiki ondoren, Kalatayuzeko uria berrezkurtzera joan ziran, Jalon eta Jiloka ibaiaren ibar ori mauritarrengandik, betiko aske itzita. Baita Bubierka, Aragoiko Alama, Daroka, eta Ariza.

1.122ko urtean I Alfonsok Beltxiteko urian eta Jerusalemeko gurutzatuen itxuran, erdiugarte onetan lenengoz irasi zan, Beltxiteko anaidi edo gudari elkargoa sortu eban, eta anaidi ori osotzen ebazanentzak, gurutzatuen eleiz-opideakaz saritu egiezan agindu eban.

1.123ko urtean I Alfonsok, Barzelonako kondea IIIen Berenger ´tar Ramoneri, aurre egin eutson, biok gure ebalako Leridako uria artu, askenean I Alfonsok Leridako uria inguratu eta Gardenyko gaztelua artuta.

1.124ko urtean I Alfonsok, Beltxiteko anaidi antzera, Monreal del kanpoko urian sortu eban, *Monreal del kanpoko "Militia Christi"*, *"Monrrealeko Militia Caesaraugustana" edo "Orden de Monreal"*⁽⁶⁾, bere eragipeneko ekintzan, Jiloka eta Terueletik, Segorberaño eltzen zana.

(1) Ebroko iturriak = fuentes de Ebro. (2) Tudela = 1.119ko urtean Otsaillaren 25ean Nafartarrak, berrezkurtu eben askeneko uria izan zana. (3) Nafarroako Tudejen eta Kastillon gazteluak, gaur desagertuta dagozenak. (4) Udi erregetza = Reino de Hudi en la Rueda del Jalon (5) Aben Ramir = Santso Ramirez ´ren izenagaz, I Alfonso ´ren Aita zana. (6) Monreal = "Zeruko Erregearen Bizitegia" esan gura adueña, mansión de rey celestial.

Bere zeregiña: Tortosako Uria, gurutzada ekintzan berrezkuratzea zan, eta bera-gaz Lurrarteko itsasoaren bidea zabaldu, gurutzatuaren erasoari erako arloetan, aukera geiago emoteko.

1.124ko urtean Almorabide mauritarrak Korbinseko borrokan, IIIIn Berengertar Ramon menperatu eben, eta or ebagi jakozan Lerida berrezkuratzeko aukerak IIIIn Berengerreri.

1.124ko urte onetan I Alfonsok 50 urte eukazala, Balenziako mauritar erreinutik asi zan erasotzen Al Andaluzeko lurraldeetan sartzeko, eta Benikadelleraño⁽¹⁾ eldu zan.

1.125eko urteko Iraillan I Alfonsok, Balentziatik ego-aldera joanda, Granadako uria erasotu eban, Al Andaluzeko biotzean, printzerri kristau bat ezarri gura ebalako.

I Alfonsok, Granadako Uriaren gaztelu barruan egon ziran mozarabeari agindu eutsoen lez, Uria inguratu eban, Wali Abu-Muamad´ek ondo babestuta eukalako baiña, barruan egon ziran mozarabeak ez eben gura edo eziñean, ez eutsolako aterik zabaldu, Guadalkibir ibaiko ibarretatik asi zan arrapaka eta ango inguruak saskiltzen.

Ekintza orretan dagoela, mozarabe asko alkartu jakozan.

1.125eko urtean Urrillaren 31n Deniara eldu zan I Alfonso, eta alegiñ asko egiñ arren ez ebalako gauzonik egiten, ibar orren zuaitz guztiak moztu ebazan, gero Xatibako Faxetik aldatuta Murtziara joateko bitartean, Alikanteko uria artu ta Almanzorako ibaitik igonda Burxanara⁽²⁾ joanda, berton egin ebazan urrengo zortzi egunak.

1.125eko urtean Abenduaren 4an I Alfonsok, Guadi-Ax⁽³⁾ erasotu eban euen indar guztiagaz, eta Fardez ta Guadalkibirreko ibarretatik igarota, ta Guadalimarreko ibarretik igonda, Alkarazeraiño joan zan, bide onetan, ainbat milla mozarabe beragaz alkartuta.

1.126ko urtean Urtarrillaren 7an, gabonak Alkarazen ospatuta, Guadix´era joan zan ostera, andik gero Dejmara joan eta ordurako osotu eben 50.000 gudarien guda-lozteagaz, Fardez ibaiaren ibarretan karpapetu zan, gero Granada menperatzera joateko.

1.126ko urtean Urtarrillaren 22an eta eguraldi txarrakin I Alfonsok, ondo babestuta egon zan Granadako Uriaren aurka asi zan, eta 17 egun erasoan ibili ondoren, alde egin bear izan eban. Eta bere Nafar-Aragoiko erreinuetara joan barik, beste ibilaldi bat egin eban, Kordoba menperatzeko.

1.126ko urtean Epaillaren 8an il zan Gaztelako erregiña I Urraka, Aragoi ta Nafarroako I Alfonso gperlariak, euren ezkontzazko ziña autsi eutson emazteari zana, eta Urrakak Borgoñako Raimundogaz lenengo ezkontzatik euki eben 21 urteko Alfonso semea Gaztela ta Leongo errege lez itzita, euren lurraldeagatik, aita-orde ta semeen arteko borrokak asteko prest geratu ziran, I Alfonso Gudaria etxean agertzen zanerako.

1.126ko urtean Epaillaren 10ean I Alfonso Kordobako egoaldetik arrapadaka ibili zan artean, Ali Ibn Yusuf´en semea Abu Bakr´ek, Sebillatik beren guda-lozteakaz urtenda, I Alfonsoren billa asi zan, ta Arinzol edo Aranzuel gaurko egunean Anzul erria

(1) Benikadell = Peña Cadiella kondairatan dana. (2) Purtxena. (3) Guadix.

dan lekuan⁽¹⁾ aurkituta, bertan asi ziran borrokan, I Alfonsok mauritar gudalozte indartsu orreik guztiz menperatuta.

I Alfonsok egin eban erasoagaz, Kordobako ego-aldetik, elurtsu egon ziran Alpujarrako mendi kateetatik eta Guadalfeoko⁽²⁾ ibaitik igarota, Motrileraiño eldu zan, eta itzultzeko erabagia artuta, ostera joan zan guda-ondakin beteta eta 10.000 baiño geiago mozarabekin.

Dólar´tik⁽³⁾ ta Alendin´etik borroka gogorak egin da gero aldatuta, Granadako ibarretan sartu zan, Teja´ko iturri ondoan karpapetuta, eta egun bi borrokan eginda gero, etxerako bidea artzea erabagi eban.

1.126ko urte orretan eta borrokazko 15 illabete beranduago I Alfonsok, elurtutako auñamendi kateetaik, Murtzia, Guadix, Jatiba, Albarraziñeko mendi kateak eta Kuenkako ibarretatik lortu eban ostera, bere Nafar-Aragoiko erregezko etxeetara joatea, Almorabide mauritarrak atzetik meatxuka eukezala.

I Alfonso etxera itzuli zanean, ekarri ebazan mozarabeak askatasunezko gizonak izendatu ta gero, ainbat obari-lege, erraltxor-zergatik askatu⁽⁴⁾, diru arloetan ta gudaldirako eskubideakaz jantzi ondoren, uri ta erri batzuk, eurokaz erritu ebazan.

1.127-1.128ko urte bitartean, eta I Alfonso bere Gaztelako ordezeko- seme VIIIn Alfonso erregeagaz borrokan, euren lurraldeak berrezkuratzen ibili zirala, I Alfonso Gerlariak, toki batzuk galdu ebazan Errioxa ta Soria aldetik, arik eta 1.128ko urte orreitan Tamarako itzarmenera eldu ziran arte.

I Alfonsok itzarmen orretan, Kaisarren izen buruari uko egin eutson, eta Gaztelarrak euki eben aginteari beragaz jantzi ostean, Gaztelako Agreda, Almanza eta Soriako⁽⁵⁾ lurraldeak bere aginpean edo Aragoiko erregetzaren aginpean geratu ziran, arik eta 1.135eko urtean I Alfonso ilda, gaztelarren agindupera aldatu arte.

Gaztelako VIIIn Alfonso alderantziz, ontzat artu bear izan eban Errioxa, Bureba eta Gaztela Zarraren lurralde orreik Iruñako erregetzaren edo nafartarrenak zirala.

Oar txiki bat.

Emen konturatu egin geinke, Erromako eleiztarrak emoneko Kaisar izen edo domiña aundi ori, gaztelatarrai emonekua izan zala, Tamarako itzarmen orreitan ostera Aragoiko I Alfonsoren eskutik, I Urraka bere emazteak Borgoñako Ramonegaz lenengo ezkontzan euki eben VIIIn Alfonsoren eskuetara aldatu zalako.

1.129ko urtean eta gaztelarrak alde egin ebenean, I Alfonsok Balenzia berrezkuratu gura eban, eta Kulleran almorabideakaz aurkituta, astintasun ederra emonda gero menpean artu ebazan, baiña ostera iparrera joan bear izan eban, eta bidean doala, iru urte ariñago IIIIn Berengertar Ramon Barzelonako kondeak, azpikeriz kendutako Monzon berrezkuratu eban

1.130-1.131ko Frantziaren ego aldean Bearneko Gaston, Foix ta Komingeseko lagunari berak babesaren zorrak euki ebazanakaz, Araneko ibarretatik Auñamendiak igarota, laguntzera joan zan, Akitaniako kondearen menpetasunetik askatzeko.

(1) Arinzol edo Aranzuel, gaur Anzul deitzen dan erria, Puente Genil´eko lurraldean Lucena ondoan. (2) Guadalfeo = gaur Salobreñaiko ibaia dana. (3) Dólar = Dilar. (4) Erraltxor-zergatik askatu = liberarles de los impuestos fiscales. (5) Errioxa, Bureba eta Lenago Gaztela Zarra esten jakonai, Burgozeko iparraldetik Kantaurikoraño, lenago Iruñako erregetzarenak ziran.

Ekintza onegaz, Akitaniako dukearen asmoak geratuta, onek Auñamendi ostean egon ziran euskal lurralde guztiak berentzat gura ebazalako.

1.131ko urte oso baten inguratu eban Baionako erria, eta urte onetan menperatuta euren foruak emon eutsozan.

1.131ko urte onetan I Alfonsok Baiona inguratzen egoala egin eban bere azken naia, Jaungoikoaren alde egin eban, bere erregetza Templarios eta Ospitalarioak bideratu egien Jeruzalenero Illobi Sakratuaren alde.

Euskalerriko edesti onen IIIIn atalean esaten dodan lez:

Ekintza onegaz bakarrik, baten bat konturatu leike, zelango itsutasuna egon zan katolikotasunaren aberritasunean batzangotzeko erlijioagaz, eta sinetzi ezin leikena, Jaungoikuaren izenean, noraiñoko sakratu mailletara igoten ebezan egiten ebazan saraskitzailezko triskantzak.

Bestela, sinetzi ote leikez, azkenai orreik ?

Ez da lenengoa, eta ez da izango azkenekoa, gero ikusiko dogun lez.

Orregaitik gaur ulertu leike, ez dala erreza eritzi orretatik urtetea, 2.000 urteko sasi jainkotasunezko jokuak alboratu bear dabzelako, eta danok dakigu, fazizmoaren norkerizko ERPE sakon orreik ez direzela errez kentzen, gaur egun ta oraindiño, ondo ebatuta dagozelako gizarte-irabazkoi arlo batzuetan.

1.131ko urtean I Alfonso Gaskuñan borrokatzen egoala, Bearneko IVn Gaston eta bere bigarrena izan zan Estebanek, Aragoiko ego-ekialdean egon ziran borrokatzen Almorabide orrein aurka.

Maestrazgoa artu eben azkeneko erasoetan, mauritarrak baiña, Bizkondea il ebeanean borroka euren aldera aldatu zan, eta Gaztonen burua moztu ondoren, Granadara eroan eben mauritarrak, aizta-makil baten muturrean burua sartuta.

Asko ordaindu bear izan eben Gastonen gorputzagaitik, eta Saldubaren Pilarreko eleiz nagusian illobiratuta dago.

1.133ko urtean mauritarren eskuetan egon zan askeneko gaztelua, Mekinenzako uria inguratuta menperatu eban I Alfonsok bera bakarrik, euskal bearnesak eta gaskoiak euren etxeetara joan ziralako.

1.133ko urte onetan Orta de San Juan berrezkuratu eban, Eskarp eta Morellagaz, Aragoiaren mendebaleko mugak osotzen ebenak.

1.134ko urtean I Alfonso katoliko aberrikoi itu orrek, Ueskako lurraldean Sariñenako errian egoala aldatu eban 1.131ko urtean Baionan egin eban azken-naia.

1.134ko Uztailaren 17an I Alfonso 500 zaldunekin Fragako gaztelua ikusten egoala, mauritarren gudalozte bat gaztelutik urtenda, euren gaiñean jausi ziran, Nafar Aragoien gudari artean triskantza aundi bat eginda.

I Alfonsok, lortu eban iges egitea naita zauri sakonak euki, eta zauri orreik txarrera eginda il zan, Sariñena ta Grañen bitartean dagon monegroseko Poleñino errian, bere gorpua Montearagoneko lekaretxean illobiratu eben 61 urte eukezala.

Bere errege denboran ez zan egon beralakorik gudaren arloetan.

Bere gorpuaren ondarrak birriten atara ebazan: 1.920ko urtean edestiko biltzar baterako eta 1.985eko urtean, bere ondarrak ikertzeko.

1.143ko urtean Azaroaren 27an Jeronako itun edo elkartasunean, Barzelonako Kondea eta Aragoiko Jaun IVn Berenger´tar Ramonen ekintzagaz, Tenpeltar lekai-deak erdiugarte onetan sartu dagiezen erabagia artuta, I Alfonso Gerlariak sortutako gurutz-gudari taldeak, Tenpeltar lekaidearen talde orreikaz bat egin eban.

1.150eko urtean Epaillaren 30ean IIIIn Eugenio Aita Santuan baieztu eban elkarte ori, bialdu eban berun-idazkiagaz⁽¹⁾.

Nafar-Aragoiko erregetzaren banaketa, eta Nafarroako errege Vn Garzia´tar Ramirez Berritzailleak, Gaztelako VIIIn Alfonso Kaiserragaz eta Bartzelonako D. Ramon kondearekin, 1.147ko urtean Kordoba ta Almeriara egin ebezan gurutzada santuak, bai ta 1.150eko urtean, Kordoba berreskuratzeko.

Vn Garzia eta Ramirez´tar Juan Berritzaillearen aurkezpena.

Vn Garzia Ramireztar Juan **Berritzaillea**, Monzon eta Logroñoiko jauna izan zan, eta 1.134-1.150 urte bitartean, Nafarroako errege.

Vn Garzia Ramirez Berritzaillea, Monzon eta Logroñoiko jaun Ramireztar Ramiro, eta Bibartar Elbiraren semea zan⁽²⁾, baita, Kalaorrako Jaun, Ramiro Garzearen billoba.

Nafartarrak, Ramiro ta Garzetar Juan au izendatu gura eben errege, Peñalengo Santxo il zanean.

1.130eko urtearen baiño geroago ezkondu zan Vn Garzia ta Ramireztar Juan, Margarita L´Aiglegaz.

1.134an Olibako lekaidetxea eraiki eban.

1.134ko urtean, gotzai ta Nafar zaldunak egin eutsoen errege, I Alfonso Gerlariaren azkenaiak arbuiaitzeko, eta nik uste dot, geiago izendatu ebela errege, Nafarroa, Aragoiko erregetzaren lotuetatik banatzeko.

Gaztelako VII Alfonsok, truke egin gura eutson, Salduba⁽³⁾ eta bere ingurua, Logroño eta bere inguruagaitik.

Gaztelako kaisar saltzailleak baiña, Errioxa bere eskuetan geratu eban, Aragoiko lurak Ramiro lekaideari emonda.

Nafarroa, Gaztelar ta Aragoitarren artean erdibanatu gura eben.

Eta Leon ta Gaztelako errege VIIIn Alfonsok, Salduba edo Zaragozako erritarren borondatezko menpea artu ebenean, Nafarroa eta Gaztelako urruntasuna andiagotu egiten da, Aldi baten Nafarroako errege IIIIn Santxo Aundiaren jaurkintzapean egoana.

1.137ko urtean Vn Garzia ta Ramireztar Juan Nafar erregea, Portugaleko I Alfonsogaz alkartuta, Gaztelako VIIIn Alfonsoren aurka joan zan, naita Nafar errege Vn Ramireztar Garzia onek, VIIIn Alfonsori emon eutson menpekotasunpean egon.

(1) Aita Santuaren berunezko buldak. (2) Bibar´tar Elvira = Zid´en alaba izan zan. (3) Salduba = antiguo nombre euskaldun de Zaragoza.

1.139-1.140ko urte bitartean izenpetu ebazan bakeak.

1.144ko urtean Margarita L'Aiglegaz'etik alargundu zanean, Bagillaren 24an Leon'en, Gaztelako VIIIn Alfonsoren sasi-alaba Asturiaseko Urrakagaz ezkondu zan.

Ortik aurrera, Nafar eta Aragoiko erregeak, Leon ta Gaztelako senidetasunean sartuta, Berengertar Ramon VIIIn Alfonsoren koñatua, eta Vn Garzia Ramireztar Juan, VIIIn Alfonsoren suñe zana, biak onartu eben VIIIn Alfonsoren menpekotasuna.

Nafartar erregetzari aurrera begituta, Gaztelako Trastamararen senidetasuna artuko eban, gero Nafar, Aragoi ta Gaztelarren artean, lenengo mallaren senidetasuna Artuko ebanak.

1.146ko urtean Nafartarrak, Tuesteko errian sartu ziran, eta VIIIn Alfonsok artekarien lanak egin ebazan.

1.147ko urtean, Vn Garzia Ramirez'tar Juan Berritzaille au VIIIn Alfonsoren ala-beagaz ezkondu zanetik, beti lagundu eutson VIIIn Alfonsori, lur-berrezkuratzeko, gurutzadako lanetan, eta urte onetan batez be, Almeriako ekitaldian, katolikoagaitik artuta geratu zanean.

1.149ko urtean Vn Garzia Ramireztar Juan Nafarroako errege onek, Berengertar Ramonegaz sinatu eban bakezko elkargo bat, Nafarroako I Blankagaz ezkontzeko baldintza euki ebena, naita katalana, Aragoiko Petronilagaz itza emonda egon arren.

Baiña Nafarroako Vn Garzia Ramireztar Juan il zanean, ezan bete sinatu ebena.

1.150ko urtean Azaroaren 21ean Nafarroako Lorka errian il zan Vn Garzia Ramireztar Juan Berritaille au.

Kordoba eta Almeriaren menpekotasuna.

Gaztelako VIIIn Alfonsok ikusita, Almorabideak euren arteko borrokatan ibili ziralá, Almeriako uria menperatzera joatea asmatu eban.

Almeria diru aldetik, aberastasun aundikoa zan, bere giza motan, mauritar itsas-lapur asko euki ebenak.

Bertotik, Lurrarteko-Itsas bazterrean egon ziran uri guztietatik arrapaka ibili ziranak, baita Frantzia, Italia eta erdiugarte onen itsas-bazterretatik, lur santuetara joaten ziran gurutzatuen ontzi-luzeak ezereztuten eta abar.

Gaztelako VIIIn Alfonso Errioxa aldetik Nafartar lurak ostuten ibili, ta Aragoitarrakaz borrokan egon arren, katolikotasunezko erlijio bidez ez eban euki ezeren eragozpenik, Nafarroako Vn Garzia ta Ramirez'tar Juan berritzailleari laguntza eskatzen, Almeria menperatzera joateko.

Talde ori gero Berenger'tar Ramon Aragoiko errege, Bartzelonako kondea eta Italiaren Genoba ta Pisa'ko guda-ontzidiakaz osotu zan.

(1) Erregearen Uria = Ciudad Real. (2) Kalatrabako lekaidezko guda-taldea = 1.157ko urtean Fiteroko San Raimundo abatak irasi ebana, eta 1.164ko urtean IIIIn Alejandro aita santuagaitik baieztuta egon zana, Nafarroako IIIIn Santsok 999-1.035ko urte bitartean bizi zanak, bertoko gudari babeslariari emon eutsoenetik. Urtean guda lozte gogorrakoakaz Gaztelako lurraldea menperatzeko naian.

1.147ko urtearen asieran deitu eban Vn Garzia ta Ramirez´tar Juanek euskalerriko lurralde guztietatik, gure euskal jendea lerrokatu zedin gurutzada santu orreitan.

1.147ko urtean Loraillaren askenetan urten eban Lizarratik Tudelara, eta Bagilla-ren asieran urte eban Tudelatik, Toledora joateko.

Toledotik urten ebenean, Alemeriara zuzen joan barik, Kordobara joan ziran, eta egun gitxi batzutan borrokan ibilita, 13 urte lenago Fragako urian, Aragoiko I Alfonso Gerlariaren aurka irabazle urten eban Balentziako Abengamia mauritarra, etsaimendu jakon.

Eta Kordobako uria katolikotasunezko gurutzatuagaz zaintzeko, gudaloztea zatitu egin bear zan lez, etsaimendu zan Abengamiari emon eutson, feudo edo maiztergo lez zaindu egian.

Almeriarantza joan ziranean, Andujar eta Baezako uriak artu ebazan, eta Almeria lurrez eta itsasoz inguratu eban.

1.147ko urtean Urrillaren 17an etsaimendu zan Almeriako uria, katoliko gurutzatuak guda-ondakiñ asko atrapauta, baita gero saldu ebazan 12.000 mauritarrekin.

Kordobaren berreskuratzea.

1.150eko urtearen asieran VIIIn Alfonsok jakinda, Afrikako almorabideak urduri egon zirala erdiugarte onetara aldatzeko gudalozte aundiekin, borroka bizian egon ziran, Nafar Aragoiko erregeak bakeztu ebazan, katolikotasunezko erlijioaren aitzakiaz, biok joan zitezen Kordoba berreskuratzerara.

1.150eko urtean Urtarrillaren 11n batzartu ziran erregeak Zamorako urian, bide batez Portugaleko erregea batzar orreitarara eroateko asmoagaz, bertan iru urteko bakea ziñatuta Vn Garzia ta Ramirez´tar Juan Nafar errege, ta Aragoiko errege Berenger´tar Ramonen artean.

Toledon batu ziran Nafar, Aragoi ta Gaztelar gudalozteak, eta zabalduta Kordobako Abengamia mauritar erregeak, Gaztelako VIIIn Alfonsori egin eutson menpetasunari uko eginda, zelan aldendu zan almoadesen aldera, bereala inguratu eben kordobako uria.

1.150eko urtearen Uztaillan etsaimendu zan Kordobako uria, eta gauza bitxi bat sortu zan berton, Abengamia mauritar erregea osterara limurtu ebalu VIIIn Alfonso, Kordobako agintari lez itzi egian.

Andaluzia, Almoade mauritarrengaitik artuta, eta Gaztela ta Leongo erregetzak 1.230eko urterarte bananduta.

Nafartarren eraso Murtziako lurraldeetan Almoades´en aurka.

(1) Araba = La Guardia eta gaurko orren inguruaren euskal lurraldeak, ez ziran artzen Arabako lurraldeak lez, Nafar erriñukoak ziralako, eta Lizarraren merindadeak osotzen ebazalako. Ebro ibaia izan zan Errioxako lurraldearen berezko muga. Eta La Guardia, Sonsierrako San Bizente eta inguruko beste erri batzuk, euren ezar-lekua euki eben Nafarroako Korteetan, arik eta XVIIIn gizaldean eta guda-bidez, gaztelarren menpe geratu arte. (2) Agurain = Salviatierra.

Nafarroako VI In Santso Jakintsuaren aurkezpena.

VI Santxo Garzez *Jakintsua* Jimenatarren leiñukoa, aita Vn Garzia ta Ramirez´tar Juan, eta ama Margarita L´Aigleren bidetik, 1.130eko urtean jaio ta 1.194ko urtean Ekaiñaren 27an il zan.

1.150-1.194 urte bitartean, Nafarroa eta Iruñako errege zana.

Bera izan zan Nafarroako lenengo errege, Iruñako erregetzaren izena kendu ebanak eta Nafarroarena ezarri.

VI Santxo Garzez Jakintsu onek, gazte igon eban erregetzara.

Laster ikasi eban baiña ezerezean izten, Gaztelatar eta Aragoitarren artean ibili ebezan maltzur guzurrak, Nafarroako erregetza euren artean banatzeko, Blanka bere arreba, VII Alfonso erregearen Santso semeagaz ezkondu.

A-ta guzti, etenbageko borrokan ibili bear izan eban eurakaz, Europa guztian be-ti-lez ibili ziralako erlijio bidez, katolikotasunezko aberritasunean batzangotzeko as-mamenean.

Eta len, Frantzia ta Asturias´eko katolikotasuna bakarrik euki ba ebezan etsai, Gaztela ta Aragoitarrak erregetu ziranetik, Nafar erreñuari, lau biderrez aundiagotu egin jakozan, eurengandik iruntsita geratzeko larritasunak.

VI In Santsok, erregetza kaskar bat artu eban bere aita Vn Garzia ta Ramirez´tar Juanen eskutik, beti erasotuta egon zalako Leon ta Gaztelako errege VII In Alfonso ta Kataluñako IVn Berengertar Ramonen lapurrezko ametsagaitik.

1.140ko urtean, auek Karrioneko elkargoa egin ebenetik, Nafarroako erregetza eu-ren artean banandutea gura ebalako.

Gaiñera, Aita Santu ta gotzai katolikuak, ez eutsoen artzen Nafar errege lez, Aragoiko eta Nafarroako errege izan zanak I Alfonsok, 1.131ko urtean Baionan ida-tzi eban bere azkenaiko borondatean, Aragoi ta Nafarroako erregetzak, Tenpeltar lekaide, ta Ospitalario lekaideak bideratuta, Jeruzalenengo Illobi Sakratuen mesede, emon ebazalako.

Ortik aurrera eta Erromaren kaisertzazko katolikotasunean aberkidetzeko batzan-go zale Aita Santu guztiak, Euskalerrriak Nafarroagaz batera, Jainkoaren berezko le-gean daukazan aberritasunezko eskubideak kendu gura eutsoezan, European berezko aberri guztiari kendu gura eutsen bezela, I Konstantinok, I Silvestre Aita Santuak eta Kordobako Osorio gotzaiñak asmatu eben katolikotasunezko aberrikuntz fazizta orrei-tan aberritu gaitezen.

Aita Santu guztiak orregaitik, Vn Garzia Ramireztar Juan Berritzaillea, VI Santxo Jakintsua eta VII In Santxo Indartsuari, *Rex deitu bearrean, Dux deitzen eutsoen* narda-tzeko edo arbuiozko norkerian.

Badagoz edestilari maltzur batzuk esaten dabenak:

Aita Santuak erabilten ba ebezan Itz-bi orreik, “Dux, erriak aukeratutako erregeai esaten eutsoela, erriak euskal demokraziz aukeratzen ebazalako zala”.

Eta Rex alderantziz, “Erromako Aita Santuaren goitik berako agintean aukeratzen ebazan erregetik banatzeko izan zala”.

Ez dabena esaten, “325eko urtean eta Nizeako Eleiz Batzarrean, mundu osoaren giza, katolikotasunean aberritzeko artu zan erabagiagaz, Jangoikuak ipinitako Legean asierako Paleolitikotik azkuntzatu egin ziran errigizarte guztiak, ta berezko legean eskubidetu ziran errigizarte orreik, txarkerian azita lez artzen dabezala.

Orregaitik, Mundu onetan sortzen dan gauza arrigarriena, Goiko Jainkoaren Legeak baiño, norkeriz egindako legeak dirala balio dabenak da.

Nik itanduko neuskio: “zenbat denborarako ote da bizitz ori ?

Or bai sartzen direla Nostradamus´en antzera, norkerizko asmalari guztiak.

Olan bada, *katolikotasunezko Rex itzori*, gizon lapurretatik datorren erabagia da, eta *fazizta* gaiñera, 1.670eko urtetan odoljariozko alegiñez ekarri dabelako Europa onen gizarte guztia, sasi-jaintasunezko asmamen ori ezarri naian.

Mundu onetan, agertzen jakun txar guztia, guk txarto egin dogulako da.

Mundu fisiko onetan ez dagoelako gauza edo ta elementorik, egiten dauazan mugialdi txikerrenak izanda be, iturbururik ez daukenak, eta ordua da Jaungoikoak ipinitako legera aldatu gaitezcan, oraiñarte euki dogun nekaldizko eramana, naikoa izan dalako.

1.151ko urtean Urtarrillaren 27an Leon eta Gaztelako errege VIIIn Alfonsok, IVn Berengertar Ramonen adizkidetasunera urbildu gurean, Tulideneko elkargoa sinatu eben biak, Nafarroako erreñua euren artean banatzeko.

Eta iru egun beranduago Nafarroako VIIn Santso Jakintsuak, Leon eta Gaztelako kaisar VIIIn Alfonsorengana joanda, bere menpekotasuna berriztu eutson, bere alaba sarrena Blanka, Gaztelako Santxo, VIIIn Alfonsoren seme nausienagaz ezkondata.

1.162ko urtean Dagonillaren 8an il zan Kataluñaiko IVn Berengertar Ramon, Aragoiko erregetza eta Bartzelonako konderririk bere Petrolina emaztearen eskuetan itzita.

1.162ko urtearen udagoinean Nafarroako VIIn Santsok, Gaztela erasotu eban gutoki guztietatik, Errioxako zati bat berentzako artuta.

Nafarrak egin ebena gurutzada lez Murtziako erregetzan, Almoaden aurka.

1.156ko urtean aukeratzen da ekitaldi au, I Abdelmon Almoades´en kaiserra il zanean.

1.158ko urtean eta erdiugarte onen mauritarrak eskatuz, I Abdelmon´en seme Yusuf´k, erdiugarte onetara aldatu ta Andaluzi osoa bereganatuta, Gaztelarrak urduritasunean sartu ebazan.

Balentzia ta Murtziako mauritar errege Ebn Merdenix, edo katolikoak deitzen eutsoen Lupo edo Lope onek, ez eban ontzat artzen Yusuf´en agintaritzta, eta Yusuf´en larderi edo keiñadan geratuta, ez zalako ausartzen bere inguruko mauritarrak laguntza eskatzen, katoliko erregeari eskatu eutson bear eben laguntasuna.

Gaztelako errege VIIIn Alfonso arazo aundiak euki ebazalako bere lurraldeetan, eta Aragoiko IIIn Alfonso Italiara joateko prestuten ibili zalako, ez eutsoen laguntasunik emon Lupo errege mauritarrai, VIIn Santso Nafar erregeak emon eutsona izan ezik.

Eta 1.163ko urtearen Udabarrian, VIIn Santso Jakintsuak zaldun askoren laguntzagaz gualozte indartsu bat lortu ebanean, Balentzia ta Murtzi aldetik sartu zan, bere adiskide Lope gaz alkartzeko.

Laguntza ederra izan zan Lope mauritarrentzat, VIIn Santso Nafartarrak, Yusuf'en aurka eskaiñi eutsona Balentzia ta Murtziako erregetzak babesteko, eta garailari urten eban lez, Yusuf'eri, Jaen, Ubeda, Carmona, Guadix eta Granadako uriak kendu eutsoezan.

1.163ko urtean eta guda onen garaipenerako, Lizarrako Ruiz de Azagra tar Pedro izan zan ausartasunaren artean euki ebena leentariko aitzintzailletasuna, Ebn Merderrix edo Lupo mauritar erregeak saritu eutsona, Albarraziñeko⁽¹⁾ uri ta gaztelua jaun lez emonagaz, ortik aurrera, Lizarra eta Albarraziñeko jauna izanda.

Lizarra ta Albarraziñeko jaun Ruiz de Azagra tar Pedro onek, Albarraziñen egon ziran mauritarrak bota ebazan, eta Nafar gizarteagaz erritu ebanean indartu ondoren, Gaztela ta Aragoipetik aske geratu zan.

1.172ko urtean IIIn Alfonso Aragoiko erregeak baña, Albarraziñeko indarraren minkorti edo bekaitz, Lope mauritar errege ta Ruiz de Azagrari guda aurreratu eutsen, ekintza orregaz konturatu barik, Almoaden kaisar Yusuf'en gualozteak indartzen ebazala.

1.172ko urtean, Lope mauritar erregea Murtzian egoala eta bere loba baten judaskeri edo salkeriagaitik Uria inguratu eban, eta bertan il zan Lope mauritarra errenkura edo biotz-miñagaz. Beragaz amaituta, Mudejarren leiñua.

1.178ko urtean Ruiz de Azagratar Pedro au, Aragoi eta Gaztelako erregeagaz batera, Kuenka menperatzera joan zanean, bera izan zan erakutsi eben ausardi aundiena.

Nabas'eko gurutzada sakratua.

Gurutzada onen aurkezpena.

1.195eko urtean, arro senditzen ziran mauritarrak, Erregearen Uri⁽²⁾ ondoan dauan Alarkos'en, Gaztelako VIIIIn Alfonsori emon eutsoen astiñaldiagaz, eta garaipen orregaz, erdiugarte onen lurralde guztiak berrezkuratzeko prestuten asi ziran.

1.196ko urtearen Abenduraino, Miramamolin mauritarren kalifa'k, odoljariozko iru gudaldi gogorak egin ebazan Gaztelako lurraldeetatik.

Gaztelako errege VIIIIn Alfonso inguratuta ikusi ondoren bere egoera, Aragoiko IIIn Pedoren laguntza bakarrik euki eban, Leon ta Nafarroako erregeakaz asarratuta egon zalako.

Egoera orreitan VIIIIn Alfonsori, Nafar erregea bere aldera ekarteko, ez eutson balio ezeren trikimaillurik, nai eta IIIIn Zelestino Aita Santuak, Nafarroako VIIIn San-

(1) Albarrazin, Guadalajara ta Teruel'en artean dauan uria da, eta beregandik sorteen dira Tajo, Jukar, Guadabiar, eta Jilokako ibaiak. (2) Erregearen Uria = Ciudad Real.

tsori bulda ta guztiekin alegindu arren, arik eta VIIIIn Alfonsok, Nafartarrai kendu eutsoezan Errioxa, Bureba eta Arabako lurraldeak, ostera itzuli arte .

VIIIn Santso Indartsua gaiñera, Miramamolin mauritar kalifaren lagun aundia zan.

1.197ko urtean, Gaztelako VIIIIn Alfonsok bere egoera txar ori biguntzeko, gud-arte batzuk ziñatu bear izan ebazan mauritarren Miramamolin kalifa orregaz, las-ter amaituko ziranak.

Eta 1.209ko urtean gud-arte orreik amaitu ziranean, VIIIIn Alfonso, borrokan sartu zan mauritarren lurraldeetatik.

1.210eko urtean eta gualozte aundi bategaz igaro eban Miramamolin kalifa orrek, Afrika eta erdiugarte onen bitartean dauan itsas-estutasuna, baita ezeren eragozpenik bage, Morenako Mendiketatik Kalatrabako ibarrean sartu eta Kalatrabako lekaide gudariagaitik⁽¹⁾ ondo babestuta egon zan Salbatierrako gaztelu gogorra, iru illabeteko borroka gogorrean menperatu, Gaztelako VIIIIn Alfonso ez zalako ausartu eurak laguntzera joaten.

Miramamolin mauritarren kalifa ta garaipen onen ostean, Andaluzira itzuli zan, urrengo urtean gualozte gogorragoakaz Gaztelako lurraldea menperatzeko naian.

VIIIIn Alfonso egoera au ikusita, katolikotasunaren orokorrezko errege guztiari deia egin eutsoen, beragaz batera eta gurutzada santuan, katolikotasunezko sinismenaren aurkakoak ziran, mauritarren aurka egiteko.

Gaztelako VIIIIn Alfonsok, dei berezi bat egin eutson Nafarroako VIIIn Santso Indartsuari eta onek aaztuta bera Nafarroatik kanpo egon zanean, zelan kendu eutsoezan Araba⁽²⁾ ta Gipuzkoa, baita Aragoitarrak, eurakaz egon ziran mugazko erri bi, zillarrezko 10.000 mazmudin emon eutsoezan Aragoiko erregeari, bere gualoztea prestau egien.

Txarrago egin eutson Leon'go erregeak Gaztelako VIIIIn Alfonsori, gurutzada orreitan lagundu egin ez gaiñera, Gaztelako lurraldeak erasotu, bera Nabas'en borrokan ibili zan artean.

Portugaleko erregea be, ezan joan borroka ortara, eta emen itandu neuke nik: *Europako errege maillan, zelango eritzia egon zan Katolikotasunezko sinismenean, euren artean irabazkoi jokatzan ba ote eben ?.*

Mundu físico onetan argi dago, maltzurrezko guzurrean asmatzen dan eraiki bear dan edozin gauza, katolikotasunean aberrituta batzangotzeko asmakuntz onen bezela, maltzurkerizko guzurrakaz elikatu egin bear dirala asmamen orreik, guzurrak bizitzeko, guzurra bear daualako. Gaurko egoeran, argi ikusten doguna.

Argi dago, euskaldunak zirala sinismen aundikoenak, euren arteko maltzurkeriak alboratuta, Kristau zentzunez jokatzan ebalako, eta ez katolikotasunezko norkeriz.

(1) Kalatrabako lekaidezko guda-taldea = 1.157ko urtean Fiteroko San Raimundo abatak irasi ebana, eta 1.164ko urtean IIIIn Alejandro aita santuagaitik baieztuta egon zana, Nafarroako IIIIn Santsok 999-1.035ko urte bitartean bizi zanak, bertoko gudari babeslariari emon eutsoenetik. (2) Araba = La Guardia eta gaurko orren inguruaren euskal lurraldeak, ez ziran artzen Arabako lurraldeak lez, Nafar erriñukoak ziralakoa, eta Lizarraren merindadeak osotzen ebazalako. Ebro ibaia izan zan Errioxako lurraldearen berezko muga. Eta La Guardia, Sonsierrako San Bizente eta inguruko beste erri batzuk, euren ezar-lekua euki eben Nafarroako Korteetan, arik eta XVIIn gizaldean eta guda-bidez, gaztelarren menpe geratu arte.

III Innozenzio Aita Santuak agertu eban gurutzada santu onen bulda, eta Nafar kardinala Jimenez de Rada´tar Rodrigok, Frantzia Italia ta Alemaniatic zabaldu, Europako katolikotasunaren gudariak alkartu zitezten gurutzada orretarako.

100.000 oiñezko gudari ta 10.000 zaldunekoak baiño geiago ekarri ebazan Europa aldetik, Nafartar Jimenez de Rada´tar Rodrigo onek, Gaztela eta Aragoiko guda-lozteakaz batuta, bildurgarritzko guda-lozte bat osotzen ebena.

1.212ko urtean Bagillaren 23an ipini zan ibiltzen guda-lozte aundi ori, eta iru egun barru Malagonetik aldatu ziranean, erria saskildu eta bertoko babesle guztiari lepoak moztu ondoren, aurrera egin eben.

Ortik Kalatrabara joan ziran, bertoko gudariei, Malagonen egin eben antzera egini.

Amen baiña gauza arrigarri bat sortu jakien, atzerritar gudariak bero aundiaren aitzakiagaz, euren errietara itzuli zirala.

Sortu zan iges-aldi orregaitik, atsekabetasun aundian sartu ziran geratzen ziranak guda-lozte orretan, baita Alarkosera eldu ziranean poz aundia be, berton alkartu ziralako Nafarroako VII In Santso Azkarrak ekarten eban 7.000ko gudarien guda-lozte indartsuagaz, ta bereala urten eben Agurainentza⁽¹⁾.

Miramamolin edo Moamed ben Yusuf Almoaden kaiserrak, igarota eukan Afrika eta erdiugarte onen artean dauan itsas-estutasun ori, bere 160.000 gogozko gudariekin, eta gudari auek, Andaluzian almoadeak euki ebazan 300.000 gudariekin alkartuta, Bazarantza joan ziran, Miramamolinek erri orretan ezarri ebalako bere agintaritzazko toki.

1.212ko urtean Uztaillaren 12an eldu ziran katolikotasunaren guda-lozteak Muradal´eko mendikate estuetatik igarota, eta bidez mauritarrakin borroka batzuk egin ostean Ferraleko Kastrora joanda, bertoko gaztelua menderatu ta Nabaseko ibarretan karpapetu ziran.

1.212ko urtean Uztaillaren 16an eldu zan borrokaren eguna, mauritarrak astiñaldi oso gogorra artuta. Batez be miramamolinek, bere karpapean egon zanean eta garai-peneko euskal irrintziak entzun ebazanean, geratzen jakozan guda-lozteakaz, Baezatik Ubedako lurraldeetara ariñ egiteko.

Borroka onetan eta Rodrigo artx-apezpikuaren esanetan, 200.000 mauritar il ziran eta 25.000 gurutzatuzko gudariak. Ez zan mirari bat ba, egun gitxi barru, izurri edo elderi gogor bat agertzea.

1.212ko urtean Uztaillaren 23an, Ubeda inguratu eben katolikuak, eta zazpi egun geroago, 60.000 mauritar il ondoren Uria etsaimenduta, mauritar aundikiak alkazar edo erregearen jauregian ostonduz, giltzapetuta geratu ziran lez, diru asko ordaindu bear izan eben, euren askatasuna lortzeko.

Or amaitu ziran borrokazko talde orreik, kutsu edo elderi gogor bat agertu zalako, eta or galdu zan aukera andiena, mauritarrak Afrikara bialtzeko.

(1) Agurain = Salvatierra.

VIIIn Santso Indartsuak, Miramamolinen karpapea babesteko eukezan kateak artu, eta bere erredola gorrian, kate orreik aldetik aldera urre gorritzko margoan, erdian esmeral-arri bat eukela margoztuta, Iruña, Tudela, Iratze eta Orreagako Ama Birjiñaren eleizatan eskegi ebazan.

Nafarroako VIIIn Santsok borroka orretan, Miramamolín edo Muhammad An-Nasirren dendan artu eban ospea aundia izan zan.

Bere jarduera baiña, euskaldun begiakaz ikusi ondoren, VIIIn Santxo Indartsu onen euskal izatasunean, alperkerizko ezaugarri antzeko bat ikusten dogu, euskaldunaren aurka sortzen zan guztia, katolikotasunean batzangotzeko asmoetatik agertzen zalako, kontuan eukinda VIIIn Santxo beste errege-jaun guztien antzera, katoliko sutsua zala, itsutasunezko urloi orreitatik, katolikotasunean batzangotzeko asmatzailleak, euren garaipenak lortzen ebazala.

Ezertxo be ez dauena balio izan gaur ikusten dan lez, naita eurak tinko edo euren lanean aurrera eginda danon kalterako, asken baten mundu oneri Jaungoikoak bereztu eutsozan oiñarrizko legetara joan bear garelako.

1.215-1.216ko urte artean, VIIIn Santso Indartsuak egin ebana Balentziako mauritarren aurka, gurutzada sakratuaren izenean.

VIIn Santso Jakintsuak, lurrak Mauritarren lurrakaz mugatzeko euki eban bear-kuntzaren antzera, bardiñ sortu jakon bere seme VIIIn Santso Indartsuari.

Eta Aitak baiño obetotsuago egin ebala esan leike.

1.214ko Loraillan, Albarraziñeko jauna Fernandez de Azagrako tar Pedro joan zan Tudelara, VIIIn Santsori dirua maileguz eskatzera, eta zillarrezko 10.000 mozmedinazko diruaren truke, berak ordaiñarteko bitartean, Txodaseko gaztelua eta Zalata-morreko a-Peña bere mendiekaz gozatu egian emon eutsoezan.

1.215ko urtetik asita VIIIn Santsok, Txozaseko gaztelu au, bere gudaketaren erdi-toki lez ezarrita, ainbat eraso aldi egin ebazan Albarraziñeko mendikateetatik, mauritarrai Altxedo, Alokati, Mallo, Arañoneko Arkaitz, Arzediello, eta Abengaboneko gaztelu ta jauregiak kenduta, eurakaz mauritarrekin mugatzeko, ariñauko Nafar errege guztiak gura eben antzera.

1.216ko urtean eta Azaroaren illean, bulda bategaz IIIIn Inozenzio Aita Santuak ziurto ebena, bere asieran berba onek esanda: *mauritarrakaz mugarekin...*⁽¹⁾.

Danetatik egon zan joku onetan, Aragoiko IIIn Alfonsok, naita ikusiarren Nafar erregeak Aita Santuaren laguntza euki ebela, txarkeri guztiak egin ebazalako, ekintza orreik nekagarritzeko.

(1) Agurain = Salvatierra. (1) Aita Moret'ek esaten dau, beste bulda bi be idatzi ebezala Aita Santuak, bata: Toledoko artx-apezpikuari, eta bestea: Fitero ta Beruelako abateari ta Najerako praille buruari. Bertan esanda: ateleka edo zentzualdiagaz jokatu egien, Nafar erregearen lurraldeetan kalte egiten ebazanai, bera mauritarren aurka ibiltzen zan artean. Nafar erregea ekintza orregaz, bere berein-kapenaren babespeko laguntzapean geratuta.

1.231ko urtean, I Jaime Garaille edo Aragoiko Menderatzail errege zanean, eta VIIIn Santso Indartsuaren Nafar erregearen alegiñak eskertzeko: Peñarredonda, La Fajina, Ferrellon, Ferrera ta Zalator, Ademuz ta Kastelfabid'eko gaztelu ta erriak emon eutsozan betirako.

Lenengo iruak Monkaioko mendi barrenean, eta beste biak eukezan mendiakaz, Balentziako mugan egon ziranak, I Jaime bera be beartuta geratuz, VIIIn Santsok Ademud eta Kastelfabid'era, bertoko gudariak bear eben guda tresneri guztiak eroaten.

Zoriontsu ta bakez bizi zan Nafarroa VIIIn Santso Indartsuaren askeneko urte onetan, arik eta 1.234ko urtean bera il zan arte.

1.234ko urtean Jorraillaren 7ko egunean il zan VIIIn Santso Azkarra Tudelako bere gazteluan, eta gorpua San Nikolaseko eleizan illobiratuta, gero Orreagako Santa Mariaren lekaideko ikastetxera aldatu eben.

1.238-1.242ko urte bitartean, Lur Santuetara egin zan VIIn gurutzada santua eta Nafarroak egiten eban bigarrena, I Teobaldo Nafar erregeak eta Vn Txanpañako kondeak bideratuta.

Eta emen agertzen da I Teobaldo bere ausartasunekin, erdiugarte onetan egon ziran beste errege katolikoen artetik, iñork ezin dabena erakutsi, berak Lur Santuetan lortu eban antzekorik.

Gurutzada au, Alemaniako IIn Federico kaiserrak bideratu bear izan eban, baiña bere eskeintzagaz ziñ-ustel izateagaitik eta gurutzada ori atzeratzen egoalako, IXn Gregorio(1) Aita Santua asarratu jakon, IIn Federiko eleizatik atara edo exkomunikatuta, eta alan geratu zan gurutzada santu orren ardura, I Teobaldo Nafar erregearen eskuetan.

1.235eko urte orduko I Teobaldo Nafar erregeak, IXn Gregorio Aita Santuari esaten dautsoenean, berak bideratuko ebela lur Santuetako gurutzada ori, onek poz-ikaraz artu eban barri ori, eta Biterbotik bialduta arnas andiko eskutitzak artu ebazan I Teobaldok, nai Aita Santuaren aldetik, baita gaxo-zain lekaide gudarien buruzagi aundien aldetik, Aita Santuak, I Teobaldo ta bere emazte erregeiñaren gauza guztiak, San Pedoren babespean ipinita.

IXn Gregorio Aita Santuaren poztasunez, buldakaz lagundu eutson bere ekiñaldiak lortu egiazan, baita *sinismenaren babesle* izena ipini be.

1.235eko urtearen Iraillan Reati'tik bialduta meatxuz, beste gaitzezpeneko bulda(2) bat agertu eban IXn Gregoriok Nafarroa zirikatzen ebenentzako, I Teobaldo Lur Santuetatik ibiltan zan artean.

IXn Gregoriok beste bulda bategaz, Tudelako deannari, Iranzuko abatari, eta Orreagako nagusiari agintan dautsoe, Nafarroan, erregearen aurka egoten ziran zalduenezko batzar guztiak ezereztu egiezan

(1) IXn Gregorio = 1.227-1.241eko urte bitartean Aita Santua izan zana. (2) gaitzezpeneko bulda = bula censuradora.

1.235eko urtearen Urrillako 5ean Aita Santuak, Asis´etik bialdu eutsoen artx-a-pezpiku, gotzaiñ, eta eleiza guztietako abadeari eskutitz bat esaten: I Teobaldoren gudalozteak euren lurraldeetatik aldatzen ziranean, ez aspertzeko eta berak bear eban guztia emoteko.

1.235eko urte berean ta Urrillaren 7an IXn Gregorio Aita Santuak, agindu bat bialdu eutsen Marsellako erritarrai, euren lurraldeetatik aldatu egiezen gurutzatuzko gudalozte orreik, eta itsas-ontziak prestau, Afrikako lurraldeetara joateko.

1.235eko urtearen Urrillako 10ean eta agindu bardiñegaz, IXn Gregorio Aita Santuak beste bulda bat bialdu eutsen Aragoiko errege, Duke, Konde eta lurraldeen jabeari, Nafar gudalozteak Lur Santuetara aldatzeko.

Eta askenez, IXn Gregorio Aita Santuak, gudaldi orretan kontuan artu bear ziran gauza guztien ardurak antolatzeke, eta I Teobaldoren larritasunetik arduza guztiak kentzeko, iru bulda bialdu ebazan, bata, Gaztelako erregeñari, bigarrena bere seme erregeari eta irugarrena, Osmako gotzaiari, *bakex itzi egien Nafarroako erregetza*, gitxien, bera Lur Santuetatik etorri arte beintzat.

I Teobaldok gurutzada ori egiteko, eta IXn Gregorio Aita Santuaren zirikaldi gaiñetik, Jerusalemengo gaixo-zain lekaide gudalarien maisu nagusi aundiak bialduta, beste lau eskutitz artu ebazan, Ekialdeko kristauen egoera txarrak adierazten eutsoezenak, eta bereala joan bear izan ebala, gauza orreik zuzentzeko.

1.238ko urtearen Jorrailako askenetan urten eban I Teobaldo Nafar errege ta Txapainako Vn Kondea berak aukeratu ebazan 400 zaldunekin, eta Pariseko bidean Txanpaina ta Brieko bere konderritik batu ebazan beste gaskoi, frantzez, ta ingeles´tar zaldun askokin osotu eban bere napar gudalozte indartsu ori.

Marsellatik gurutzatuen irteera eta Tauroko mendiaren borroka.

1.238ko urtearen askenetan urten eban I Teobaldo Bertsolaria Marsellatik lur santuetara, ango katolikoaren egoera larriak lasaitzeko.

Eta Siziliko ugartean geratu ziranean, bertan esan eutsoen, Ekialde Txikerretik egon zan arabitar agintari indartsuena Soldan de Ikonio, Tauro mendikateetako atxarte edo trokartetan eukiko ebela itxaroten.

Lurreratu egin ziranean Nafar gurutzatuen gudalozte orreik, bereala bideratu ziran Tauro Mendikateetarantza, eta euki eben indar guztia erabili bear izan eben, arabitar aiek ez ziralako besamotz edo beso bakarkoak.

1.240ko urte onetan baiña, eta gurutzatu orreik lurreratu ziranetik amabost egun geroago, I Teobaldok eroan ebazan gudalozteetan garaipenaren aomen edo zurrumuru sortuta, igesean asi ziran arabiar aiek, Nafartarrak Antiokiako Uri zaarrea sartuta.

Berton atsedena artu eta eroan eben gudaloztea azterkatuta, gaixotasun eta borroketatik euki ebezan zauri-illakaz, irutik, zati bi gitxiago geratu jakiela ikusi eben.

Antiokiatik urtenda eta bidetik Uri ta gaztelu batzuk artuta, Tolemaida edo San Juan de Akreko Urira eldu ziran.

I Teobaldok, lurralde aiek sineste-bageko arabitarrengandik garbitzen asi zan geratzen jakozan gudariakaz, gero Jerusalemara joateko, eta arrigarrtuta ikusi eban, Tudesco edo alemanak ez eutsola laguntzen, IXn Gregorio Aita Santuak Alemaniako IIn Federico kaiserra, eskomunikatu ebalako.

Eta bertan sortu zan banaketa, Bretainiako kondea biurrikeri edo mende-gabeen sartuta, eta Gaza n artu eben astiñaldiagaz asarre, nai-eza edo atsekabetasunean ezarri ziran, arik eta Ingalaterrako Enrike erregearen anai Kornuallestar Ricardo bere gualozteakaz agertu zanean, 1.240ko urtearen askeneko illabetetan Jerusalemeko Urian sartu arte.

I Teobaldoren itzulera, Nafar erregetzara.

1.241ko urtearen Dagonillan, I Teobaldori geratzen jakozan gualozteakaz, eziñezkoa biurtu jakon Ejiptoko Sultan Malek-Kamel Saladinoren billobari aurka egitea, ez eta nai beste gualozte barri bat artu arren, IXn Gregorio Aita Santua urte ta illa onetan il zalako.

1.242ko urtean, katolikoen alde iztundu, ainbat gudarte eurentzat lortu, Monfort de Bar ta Ylla 'ko kondeak arabiarrengandik askatu, ta berak irabazi ebazanak gurutzatu katolikuen eskuetan itxi ondoren, Askaloneko kaian, itxaroten euki ebazan ontzietan sartu zan, etxe-bidea artzeko.

1.243ko urtean, bidean datozela Erroman geratu ziran, eta bertan San Pedoren eleiz nagusian illobiratu eben Monfort 'eko Simonen⁽¹⁾ seme Almeriko, beren biurrikeriariagaitik⁽²⁾ Gaza 'ko borrokan arrapau ebena, eta Frantziko lurraldera aldatzen egoala bere Txanpaña ta Brieko konderriak ikusi ondoren, Iruñara eldu zan urte onen asieran.

1.243ko urtearen Iraillako 3an, IVn Inozensio Aita Santuak Ajnanin argiratu eban agirian *Kristautasunaren begiratzaille berezi* lez izendatzen dau I Teobaldo.

I Teobaldo, 1.238an Lur Santuaren seigarren gurutzeko gudaldia bideratu ebela ta Tauro mendian betiko ospagarritasuna lortu ta gero, 1.243an itzuli zan ostera Nafarroara.

1.246ko urtean I Teobaldok, estaibada gogorrak euki ebazan Ximenez ta Gazolaztar Pedro gotzainarekin, Nafar Fueroen legeak dirala eta ez dirala.

Gotzain onek, zalantzan ipinten eutsezelako Nafar erregetzak euki ebazan berezko eskubideak, Aragoi eta Nafarroako I Alfonso Gudari erregeak lenago eta gero VIIIn Santso Indartsuen azken naietan, Aragoi ta Nafar erregetza, Jainkoari eskainita, Jerusalemeko Illobi Sakratuaren alde egin ebezalako, Nafarroako erregetza Templarios edo ta Ospitalarioseko Gaixo-Zain lekaideak bideratu egien.

Eta IVn Inozensio Aita Santuak gogoratuz I Teobaldok gurutzeko gudan egin ebanakaz, lege berezi bat argitu eban: *Bere baimen barik, inork ezin leikela I Teobaldo, eleizatik kanporatu.*

(1) Monfort 'eko Simon = Albijensearen aurka garaille urten ebena. (2) Biurrikeria = indisciplina.

Kontu aundian euki bear da, orduko denboratan errege baten bat, edozer gauza gaitik elizatik eskomunikatuta kanporatu egiten ba ebela, erregetzazko koroi ori aske geratzen zala, edozein printze katolikoari Aita Santuaren aldetik baimen guztiak eukinda, erreñu orretan guda indarrean errege lez ezartzeko.

Katolikotasunezko erromatar goitik berako lege orreik ez ziralako gureak, eskerrak emon bear dautsaguz gure arbasoeri, gure demokrazizko ta askatasunezko Batzar edo Lege-Zaar bidetik araututa egon giñelako, eta gure artean errege orreik, erriak aukeratzan ebazalako, I Teobaldori sortu jakon antzera.

Gure gaurko Euskalerrria, demokrazizko askatasunaren Izar aundienetariko bat da Europa onetan.

Europatik, Tunez'en aurka egin zan zortzigarren eta asken gurutzaldia, Frantziko San Luis erregea eta Nafarroako IIn Teobaldogaitik bideratuta egin zana.

1.244ko urtean eta lur santu orreik urrun egonda, alegiñ asko egin barik ezin ziralako Europeotarren ardurapean euki, laster asi ziran etsipen edo gogo-ezaren egoerak agertzen.

Geiago, Turkoak Antiokia, Zesarea, Jaffa⁽¹⁾, Nazaret ta Tiberiadeseke Uriak menderatu ebazanetik.

Turkoen ekintza bidetik, Ekialdeko latindar kaisertza berantza asita, Jerusalemeko leku sakratuak ostera, Turko ta Malek-el-Sele sultanen Karizmioak zikindu ta saskildu ondoren, Europan iñork ez eban entzuten IVn Klemente Aita Santuak egiten ebazan deiadarrak.

Ez eta, IVn Klemente Aita Santuagaz batera, IIn Balduino⁽²⁾, Tiroko artx-apezpikua, Tenpeltar eta Gaixo-Zaiñ guda-lekaidearen buruzagi nagusiak, Palestinatik etorri arren larritasunezko laguntza eskatzeari, be.

IVn Klemente Aita Santuari ordu onetan aurkeztu jakozan Europako errege bakkarrak, Frantziko IXn San Luis eta Nafarroako errege ta Txanpañako kondea IIn Teobaldo izan ziran.

1.268ko urtearen Epaillan, Paris'eko gorteetan ospatutako batzarrean, Txanpañako Santa Zezilia kardinala⁽³⁾ Aita Santuaren orde etorrita, Ekialdeko Lur Santuetan gurutzada bat egitea erabagi zan, gurutzada santu orren deialderako, Frantzia ta Nafarroan egiñez gaiñ, Ingalaterra ta Siziliako errietan be egin zan.

Nafarroan, Prantzizko ta Dominikar lekaideak aldarrikatu eben gurutzada au, IVn Klemente Aita Santuaren aginduz⁽⁴⁾.

1.269ko urtean, aldebietako Euskalerritik ibili zan IIn Teobaldo, Zaldun ta Gudaraik lerrokatzeko.

1.270eko urterako erabagitu zan gurutzada onetarako, Zaldun asko lerrokatu ziran Nafarroa, Gaskuña, Aragoi eta baita Gaztelako Zaldun batzuekaz.

(1) Jaffa = Jope. (2) IIn Balduino = Latiñezko-Ekialdearen askeneko kaiserra, 1.217-1.273ko urte bitartean bizi zana. Ekialdeko errege 11 urte euki zituzenean egin ebena. (3) Santa Zezilia Kardinala = gero 1.281-1.285eko urte bitartean, Aita Santua izan zana IVn Martino izenarekin. (4) Bulda au, Nafartarren Komptos'eko lege-etxean ikusi leike.

Euren artean, Frantziko IXn San Luisen Alaba ta Nafarroako erregiña lerrokatuta, aita ta bere senar IIn Teobaldori arnasa emoteko.

1.270eko urtean urten eban IIn Teobaldo bere sakratuzko guda-lozteakaz Iparral-deko Euskalerritik, Txanpaña ta Brieko gudariak batzeko, eta Lur-Arteko itsasoan Marsella ta Aiges-Morteseko kaietara joan ziran, bertan ontziratzeko.

1.270eko urtean Uztaillaren lenengoetan itsasontziratu ziran Jenobako ontzietan eta zazpi egun barru Zerdeñaren⁽¹⁾ Uri nagusia dan Kaller´era⁽²⁾ eldu ziran.

Edestilari batzuk esaten dabe, Zerdeñatik Tunezera joan zirala, bertoko mauritar erregea Muley-Mostansarrek euroi idatzi eutsoezan eskutizetan, berak bere erri guz-tiagaz Katolikotasunera aldatzea gura ebalako. Eta Tunezetik joan zirala Ejipto edo lur santuetara.

Beste batzuk, mauritarren itsasontziak keiñuz euki ebezala, Kallerretik Tunezera⁽³⁾ joan ziran, eta auek bildur edo ez ziralako ausartzen euren aurka joateko, lenauko Kartagoren aurrean dagon Tunezen lurreratu eta Mauritarrek babestu egiten eben gaztelu edo dorrean⁽⁴⁾, 200 gudariei samea ebagita menperatu eben. Nafartarrak, leku onetan erakutsita euken ausartasuna eta begirun⁽⁵⁾ aundia.

Gurutzatuak, Kartagoren ondamen artean ezarri ebezan euren karpak edo kanpaldiak, eroan ebezan Andere ta printzearen oialpeak, zulogune zabal sakon bategaz inguratuta euren babeserako.

1.270eko urtearen Dagonillan, gurutzatuak Tunez inguratzeko prestatzen asi ziranerako, Muley Mostansa mauritar errege onek etsaimendu⁽⁶⁾ baiño, guda-lozte indartsu bat euki eban antolatuta katolikuak agertzen ziranerako.

Eta Tunez inguratzen asi ziranean, katolikuaren etsimenerako⁽⁷⁾, elderi edo kutsu-eldea⁽⁸⁾ sartu zan gurutzatuen gudari artean, egun-gitxi bateko denboran ainbat milla gudarien eriotza sortu ebana, Frantziko errege IXn San Luis, artean zala.

Siziliako erregea agertu jakien bere guda-lozteagaz laguntzen, eta or biztu ziran ostera gurutzatuzko gudariak, eta bereala gudu-antzez egin-nai bat antolatu eben, zelay zabalean mauritarren aurka borrokatzeko, ta lortu eben mauritarrek menperatzea, 3.000 mauritarren samea ebagi ta 7.000 baiño geiago Estaigneko idoi edo aintxiran ito-arazita⁽⁹⁾.

Ostera erasotu ebazan Tunezeko erregeak gurutzatuen guda-lozteak, baiña berriro menperatu eben katolikotasuneko gudu-indarrak.

Muley Mostansak bakea eskatuta, gurutzatuak 200.000 urrezko-ontzakaz zergatu eben ta Siziliako erregearentzat 40.000 ezkutu artero emonda, baita katolikotasunaren erlijiozko gurraketa ta predikua, eta 10 urteko bakea.

Ainbeste zoritxar bidez eta 10 urteko bake-une orreik egin ondoren, Ekialdera joan bearrean, Siziliarantza itzultzea erabagi eben, eta Trapaniko kaiara eldu ziranean, aiñ gogorra izanda itsasoan sortu zan ekaitza, bertan ondatu ziran 18 ontzi nagusi ta beste ainbeste txiker. Ito zirenak, 4.000 gudari baiño geiagoak izanda.

(1) Zerdeña = orduan Pisaren errepublikarena zana. (2) Kaller = gaur Kagliari dana. (3) Tunez orduko denboran = bere 10.000 etxe ta iru alduri edo auzun andiak, Afrikako Uri aberatsenetakua izan zan. (4) Gaztelu edo dorre orrerri = La Goleta deitzen eutsoen. (5) Begirune = disciplina. (6) Etsaimendu = rendirse. (7) Etsimenerako = desesperación. (8) Elderi edo kutsu-eldea = peste. (9) Idoi edo aintxiran ito-arazita = obligados a ahogarse en la laguna de Estaign.

1.270eko urtean Abenduaren 5ean, Trapanin lurperatu orduko gaisotu zan II In Teobaldo Nafar erregea eta Trapaniko Uri onetan ilda, bere emazte Isabel erregeña, I San Luis aita, bere anai Juan ta bere senar II In Teobaldoren iru gorputzakaz, Marsella-ko bidea artzeko itsasontziratu zan.

Isabel Nafar erregeña, bera be il zan Siziliatik Marsellako bidai orretan.

Ekintza guzti onen ondorioz, gurutzatuari bakarrik geratzen jakien Tolemaida edo San Juan de Akreko uria, 1.291ko urtean galdu ebena, borroka gogor baten ostean.

Aljeziraseko gurutzada.

1.343-1.344ko urtebitartean, III In Felipe Nafar erregeagak egin eban gurutzada au, Gaztelako XI In Alfonsoren zaldunakaz.

Aljeziraseko ingurutasunaren aurre kontuak eta Nafarroako III In Felipe erregeak egin eban garaillezko bidea bertoraiño.

1.340ko urtean, ostera egon zan Benimerinek edo Marinidas mauritarra Afrikatik urten eta beste sarrera bat erdiugarte onetara eginda, Tarifako Uria inguraturaz.

Mauritarren sarrera au ikusita, VII In Benedicto Aita Santua Abiñonetik izan zan aurreratu zana, orokorrezko gurutzadaren eleiz opideak aginduz, guda oneitan borrokatzen ziranentzako.

1.340ko urtearen Azaroan Gaztelako XI In Alfonso ta Portugaleko IV In Alfonso erregeak batera, Kordobako lurraldera joanda, eta Kadizeko Salado ibaiaren ibarretako borrokan, Abul-Asan eta Yusuf-Abul- Agiag ´en mauritar godalozteak menperatu ebazan.

Eta Gaztelako errege XI In Alfonso bere garaipeneko ostera bat eginda mauritarren aurka, Aljeziraseraíño eldu zan.

Aljezirasen egon ziran mauritarrak, 12.000 gudarien baiño geiagoko gudaloztea euki eben bertan, eta gaiñera laguntzaren eskaera egin ezkeru, Jibraltarretik sartuta, bereala eukingo ebazan Marruekos eta Granadatik bialdutako gudalozteak.

Gaztelako errege XI In Alfonsok, Nafarroako errege III In Feliperi laguntza eskatu eta onek baietza emon ostean, Aljeziraseraíño egin eban garaipeneko bidaldia.

XI In Alfonso Gaztelako erregea, ainbesteko borroka bidetik gudari gitxi edo ezean geratuta, Nafarroako II In Juana erregeñaren senar III In Felipe Biotz-Andiko erregeari eskatu eutson laguntza.

1.343ko urtean Nafarroako errege III In Felipek baietza emon ondoren eta Donostin ainbat itsazontzi, janari, larru-aterpe euren sarrerako estalpekin, guda-tresneri, 100 zaldi ta 300 oiñezko gudari bere babeserako, eta guzti au bere kontura aukeratu ondo-

(1)Eskarniatu = falsificar. (2) Eskomunikatu = para excomulgar a los reyes de Navarra.

ren, Sebillarantza urten eban bereala lortu eban gudalozte indartsuagaz, gero lurretik joanez, Marruekos eta Granadako mauritarrekin borrokatzeko.

XIn Alfonsok, IIIIn Felipe Sebillan onartu eta agurtu ebanean, erriko aundiki guztien laguntzagaz bialdu eban Mugazko Jerezeraño, bertan Gaztelako erregearen semeak eta zaldun askoren laguntzagaz, Aljeziraseko Uria joateko.

1.343ko urtean Dagonillaren 3an inguratu eban Aljeziraseko Uria, Frantzez, Aleman eta Ingeles zaldun asko eurei laguntzen egon zirala, eta dirurik ez zalako egon euroi ta ekarri ebezan gudariei ordaintzeko, gero alde egin ebenakaz.

A ta guzti, aurrera egin eban Nafar ta gaztelarrak, eta naita inguratuta egon ziranak, ainbat laguntza artu Granadako Yusuf mauritar errege, ta Marruekoseko kaisar Abul Jassan 'en seme Ali 'ren bidetik, asken baten etsaimendu ziran.

1.343ko urtean Iraillaren 26n egunean, Mugazko Jerezen il zan gaisorik Nafarroako IIIIn Felipe, naita XIIn Alfonsok, ainbat alegiñ egin bere gaisoa osatuteko.

1.343ko urtean, Urrillaren 29an illobiratu eban Iruñako Eleiz Nagusian IIIIn Felipe.

1.344ko urtean Epaillaren 27an sartu ziran Aljeziraseko Urian gurutzatuzko Nafar eta Gaztelar gudariak, eta Erramu eguna zalako, mauritarrak euki eban mezkita edo eleiza, Erramuko Santa Mariaren izena ipini eutsoen.

1.344ko urtearen Jorraillan eldu ziran Nafartar gudariak etxera.

Nafar Gurutzadaren Ondorioa.

VIIIIn gizalditik aurrera ikusten dogu Nafarroako euskal erregetza, mauritarren aurkako borroka onetan.

Leen: bere euskal lurak askatzeko, mauritarren menpetasunetik.

Bigarren: Aita Santuak katolikotasunezko erlijio lez, Europa, Frantzia ta erdiugar-te onen erregetza guztiak Islamen aurka alkartzeko, errege ta gudalozte indartsu orreik sakratuzko gurutzada santuzkoetan biurtu ebazanean.

Nafar erreñuko erregeak konturatu ez arren, eurak Demokrazizko Kristau aldetik borrokatzen zirala, katolikotasunezko eleizagaz euki eban artu emona menpekoa izanez gaiñ, goi maillakua izanda beti⁽¹⁾, naita Frantziko erregetza Karlomajnotik asi eta Asturias, Leon, Gaztela ta Aragoiko erregeak, Nafar erregetza ezereztu gurean, bere lur eta giza euren artean banatzeko, nafartarrak beti zirikatzen ibili.

Eta gaztelar ta Aragoitarrak naiezta, Nafarroako erreñua izan zan, neurri aundiena emon ebana katolikotasunaren erlijiozko arazo orreik argitu edo garaipentzeko.

Naita bere euskal bizitzarako etsai aundiena, 325eko urtean Nizeako Urian norkeriz asmatuta, Europa, Afrika eta Asiaren errigizarte guztientzat, danok katolikotasunean kaisar-jaurkintzan-berkidetuta batzangotzeko, ezarri zan eritzizko erabagia izan.

(1) Kontuan euki bear da, Nafartarrak edo ta Euskalerrri ta Europa osoak, ez ebela euki beste aukerarik, 325eko urtean Nizeako Urian, katolikotasunaren aberkuntza fazizta edo kaisergetza ori ezarri zalako guda-indarraren bidez, orduan esagutzen zan mundu osoarentzat, eta Euskalerrriko gizak askatasunezko demokrazian eukan sinismenean bizitzeko, ez ebalabeste aukerarik euki, eritzi orregaz nasteen irautea baiño.

VIII In Gizaldian.

795eko urtea esan leike dala, Nafartarrak euren lur maiteak itxi ta Asturiasera joan zirela, II In Alfonso Nasgabearen erregetza ta lurrak, I Iksen mauritar kalifaren gudalozteak, Abdelmelik´en agindutara egon ziranak, Asturiaseko lurraldetatik kanporatzeko.

IX In Gizaldian.

Bigarrenez, 859ko urtean Albeldan egin zan borroka baiño arintsuago, 854-858ko urte bitartean Asturiaseko I Ordoñori, Tajo ibaiaren ibarretatik mauritarrak botateko laguntzen.

871ko urtean, Asturiaseko errege III In Alfonso Ospatsua, Nafarroako errege II In Garzia Iñiges´en alabeagaz ezkondu.

Irugarrenez, 875-878ko urte bitartean, 875eko urtetik asi ta Kordoba ta Toledo-tik garaille ibilita, 878ko urtean Leongo lurraldeetan dauan Orbigo ibaiaren ibarretan egin zan Polborariako borrokan, Almondir mauritarren kalifa guztiz menpean artu, eta bere gudaloztetik 15.000 gudari baiño geiago ilda.

887ko urtean, Frantziako lurraldean eta Tribur´eko batzarrean Frankoak, Iruñako erregetzaren askatasuna on artzen dabe.

X In Gizaldian.

Laugarrenez. 908-911ko urte bitartean, euskal Nafartarrak Iparraldeko mugetatik etsai barik, bealdera joaten dira eraso gogorrean, eta Ebro ibaia igarota, Errioxa osoa berrezkuratzen dabe Nafar erregetzarentzat, 912-915ko urte bitartean Monkayoko mendi barrenetik eta Dueroko iturrietatik mauritarrak kanporatuta.

Bost´garrenez. 919ko urtean Nafartarrak, Leon-Asturiaseko errege II In Ordoñoren laguntzan urtetan dabe euren lur maiteetatik, Mondoñedo inguruan eta Mindonia edo Britoniako borrokan, III In Abderramanek II In Ordoñori euki eutson estutasunetik askatzeko.

Seigarrenez. 933ko urtean Leongo erregetzaren laguntzan joan ziran mauritarren-gandik askatzeko, Osmako borrokan garaipeña lortuta.

Zazpigarrenez. 939ko urtean, Simankaseko borrokan, III In Abderramanen kementa apurtzeko, onek ortik aurrera katolikuaren aurka, ez ebena geiagoko borrokarik egingo.

Zortzigarrenez. 978ko urtean Gormazeko borrokan, Gaztelar konderria mauritargandik askatzeko.

XI In Gizaldian.

Bederatzigarrenez. 1.002ko urtean, Almanzor mauritar kaifaren aurka, Numan-tziaren ondoan dauan Katalañazorren Uriko borrokan, III In Santso Aundiaren indarrari esker menperatu ebena. III In Santso Aundi onek, bederatzigarrenez urtetan ebala bere mugetatik.

Amargarrenez. 1.085eko urtean katolikuen ibilaldiak asten dira mauritar lurretatik, VI In Alfonso gaztelarra Nafartarrakaz, Toledon sartuta.

Amaikagarrenez. 1.096ko urtean, Aragoian borroka sutu ta gogorrenak eukinda mauritarrekin, I Ramiro Aragoi Nafar erregearen semeak, indar aundia euki eban oraindiño, bere gudalozte indartsuakaz, Europaren Igo gurutzada santura bialdu ebeanean, 1.099ko urtean Jerusalemara sartuta, betirako izen ospatsua artzeko.

Amabigarrenez. 1.096ko urtean Ueska mauritarrengandik askatzeko, Alkorazeko borrokan I Pedro Nafar Aragoiko erregearen gudalozteak garaille agertuta.

Amairugarrenez. 1.097ko urtean, Balentzia inguratzen eban mauritar almorabidetik askatzeko, Nafar Aragoiko errege I Pedro Gudariak lortu eban garaipena.

XII In Gizaldian.

Amalagarrenez. 1.101eko urtean Ekaiñaren asieran I Pedro Nafar-Aragoiko erregea gudalozte indartsua antolatu, ta Zaragozako Uria inguratuz, erdiugarte onetan lenengo gurutzada santuari asiera emonda ekintza onegaz. Euren jantzieta eskumako soin edo besagaiñean gurutz zuri baten ezaupideagaz joan ziran.

Amabostgarrenez. 1.104ko urtean, I Pedro Gerlaria Nafar-Aragoiko erregea Zaragoza inguratzen egoala, artu zituzen zauriakaz iltzeko egoala, eta Zaragoza askatzeko euki ebazan ametsak bete barik, bere anai I Alfonso Gudariak agindu eutson amaitu egiezala berak asi ebazan lanak, eta bere zeregiñak artuta, Uri nagusiaren gaztelu geinak eskuratu ebazan, batez be, Baltierra ta Tudelakoak.

1.110eko urtean Zaragozako II In Al Mostain emirra ilda, mauritarren eskuetan egon ziran Nafartarren lurraldeak berrezkuratu ebazan.

1.111-1.114ko urtetan arto ibili ebazan Nafar Aragoiko errege I Alfonso Gudariak bere ikurrak Leon eta Gaztelako lurraldeetatik.

1.114ko urtean I Alfonso Gudariak, Zaragozako Uri nagusia inguratu ondoren eta mauritarrak indartsu jokatzin ebelako, ia bost urtetan euki eban inguratuta Zaragozako Uri ori.

1.116ko urtean I Alfonso Gudariak Errioxa ta Bureba berrezkuratu ebazan Nafartar erregetzarako.

1.118ko urtearen Abenduraino iraun eban I Alfoso Aragoi-Napar errege Gudariak Zaragozari egin eutson ingurutasun orregaz, asken baten, Uri ta beren inguru guztiagaz geratzea lortuz.

Amaseigarrenez. 1.129-1.130ko urte bitartean, eta I Alfonso Nafar erregeak ariñautik artutako erabagiagaz, eta Gaztelatarrakaz bakeak egin ondoren, mauritarren aginpideari leiatu egiten dautso, ta amaika mauritar erregetxo etsaimendu ondoren, Granada menperatu eban, ia 10.000 sendi katolikuak askatuta.

Amazazpigarrenez. XII In gizaldi erdian eta VII In Alfonso Gaztelako erregea gogoratuta, I Alfonso Nafar-Aragoiko Gudari erregeak, Andaluzian egin ebanakaz gartsu, Nafarroako Vn Garzia ta Ramirez´tar Juan berritzailleari eskatu eutson laguntza, Al-

meria menperatzen joan egiezen, eta Nafar, Gaztela ta Aragoiko gudalozteak, Andujar eta Baezako Uriak artuta, Lizarrako Andujar´tar Rodrigo bereztu zan danon gaiñetik, Kordoba ta Almeriako Uri nagusiak artu ta gero.

Amazortzigarrenex. 1.150eko urtean eta iru urte beranduago, Kordobako mauritarrak matxinatuta Gaztelako erregearen aurka, eta Almoadesen kaiserragaz artu emon aundiak eukiaz, ostera joan ziran Gaztela, Aragoi eta Nafarrako gudalozteak kordobarrantza, barriz berrezkuratuta.

Emeretzigarrenex. 1.161-1.163ko urte bitartean, Balenzia ta Murtziako errege eta katolikuaren lagun aundia Ebn Merdenix⁽¹⁾ izan zanak, katolikuaren laguntza eskatu eban Almoades´eko Yusuf´en aurka egiteko, eta Nafarroako VI In Santso jakintsuaren laguntza bakarrik artuta, bion artean gelditu ebazan Yusufen gudalozteak, Segurako mendikateetan, eta izen bardiñeko ibaiaren ibarretan menderatu, arik eta 1.172ko urtean Lope edo Ebn Merdenix erregea il zan arte.

XIII In Gizaldian.

Ogeigarrenex. 1.212ko urtearen Uztaillan 16garren egunean, Nafartarrek VII In Santso Indartsuaren agindutara, ta Nabaseko borrokan mauritarren gudalozteak ezeretzuz, artu eben ospetik datoz Nafarroaren armarriko kateak.

Ogeitabatgarrenex. 1.215eko urtean, VII In Santso Azkarra bere Nafarrakaz Balentziara joan zanean, an egon ziran mauritarren aurka, eta garaipen batzuk lortu ondoren, Aragoi eta Gaztelako erregeak bekais, txartxat artu eben VII In Santsok egin ebena, eta III In Onorio Aita Santuak bulda batzuk atara bear izan ebazan VII In Santso Naparraren alde, izildu zitezten.

Ogeitabigarrenex. 1.238ko urtean, Katalanek eta Aragoitarrek Balentziako Uria menperatzearen amaierazko lanean egon ziran bitartean, Nafartarrak Palestinara joan ziran I Teobaldo Bertsolariaren agindutara, 1.238-1.242ko urte bitartean, Europaren seigarren gurutzada santua beteta.

Ogeitairugarrenex. 1.270eko urtean, Nafartarrak ta Frantzezak ziran bakar-bakarrik egin ebena zortzigarren ta azkeneko gurutzada Ekialdeko lur santuetan, Tunezera eldu ziranean txarto ibilita, euren gudalozteetan izurri edo elderia sartu zalako.

XIV In Gizaldian.

Ogeitalaugarrenex. 1.342ko urtean, Gaztelako errege XI In Alfonsok, mauritarrak erdiugarte onetara sartzeko euki eben zubia ebagitzeko, Marruekos eta Granadako erregeekin lagunduta egon zan Aljeziraseko Uria inguratu eban, eta gudalozte naikorik ez ebelako euki, Nafarroako III In Feliperi eskatu eutson laguntza.

1.343ko urrengo urtean joan jakien III In Felipe Nafar erregea laguntzen, eta naita garaipeneko borroka askoren ostean III In Felipe Nafar erregea sukarraldi-txar batzuekin il, aurrera egin eben Nafartarrek, 1.344ko urtean Aljeziraseko Uria, mauritarren-gandik askatu arte.

(1) Ebn Merdenix = Naparraren kondairatan “ El Lope edo Otsoa esaten eutsenai”.

Oar txiki bat emen.

Gauza bi berezkatuko neukez nik edestiko idaz-lan onetan:

a).- Euskaldun Nafartar eta Euskalerriko gizarte osoa batez be erlijiosko sinismean, Kristau lez jokatzan ebela. Naita katolikotasunaren maltzurtasunezko inkisizio edo siñezte-zain bidetik, bildur edo itsutasunezko siñezkintza batera eroan, Europa ta orduan ezagutzen zan mundu onen lurralde guztientzako norkeriz, katolikotasunean aberrituta, kaisartzazko lege ori arnasa lez, danoentzat ipini zalako.

-Euskaldunak baiña, Jainkoak mundu oneri ipini eutsozan bereztutako legean jokatu gendulako beti, gure baitan lortu genduzan askatasunezko demokraziak **Lege Zaarrak Lez** oituratu arte, gatx egin jakie beti, guk gure Jainkoari begira lortutako eus- kerearen nortasun orreitatik ataratea, edesti guztian ibili dabezan alegiñak, odol-jari-ozkoak izan arren.

b).- Katolikotasunezko lege-bidez jaio ziran erregetzak, norkerizko edo guzurrezko lege bidetik jaio ziran, edo berezkatasunaren tronkaleko legepetik jaio ba ziran be, berezkatasunaren nortasuna galduta, katoliotasunaren norkerira aldatu ziran, Jainkoak ipinitako berezko legetik urtenda.

Eta Joko ber-berori ikusten dogu talde bien edesti guztiko alegiñetan. Berdinkatu egin bear dira, arlo guztietan danok daukaguzan eskubidearen ordezeko ardurak, jakin daiguzan zeintzuk diran Jainkoak ezarrikoak eta zeintzuk gizonaren norkeriz, ipini gure dabezanak⁽¹⁾.

Or agertzen jaku Jaungoikuak emondako askatasunaren ardurea.

Orregaitik geratzen da katolikotasun ori ipurdi-agirian, berezko errigizarteetatik askatasuna kenduta, erritarren ardura guztiakaz geratu ziralako.

Gaur mundu onetan agertzen dan lez, eta eurak izan leuke gura-nai daben aukerea edo eratik ibili, ustekabean edo ala-bearrez baten bat guzur edo norkeriaren maltzurrezko irakaskintza orreikaz aurrera egiten badau, berezko errigizarteakaz, borroka utsa baiño ez dabe lortuko ta.

Jaungoikuak emoneko danon ardurazko lege orretara ez ba-gara itzultzen, katolikotasunean aberkidetuta batzangotzeko amets gaizto orreikaz beti borrokan agertuko gara, askatasunean bereztutako nortasunezko errigizarte orreik, berezko legean jendekuntzatuta dagozelako, eta Euskerea da, argien erakutsi leukena Europa onetan, zeintzuk diran askatasunezko demokraziaren nortasunezko zentzuak.

Ordezko-Ardurea da mundu onen ardatza, eta bere kanpotik egiten diran alegiñak alperrezkoak dira, guzurra elikatzeke jakinda gaiñera, guzurragaz bakarrik elikatu leikela, mundu fisiko onetan, guzurra edo egia izan, euren zentzuegaz elikatu leikezelako bakarrik.

Orregaitik, naita IIIn ta IIIIn ataletan len erakutsita eukinda be, lekuko da emen, zeintzuk diran, Euskalerriak bere Batzar Nagusietan Lege-Zar lez erabili dauazan demokrazizko baldintzak, euki dauazan Jaun eta Erregearen epaiketa edo antolabidezko erabagiak, beren batzarraren agindupeagaz bat eginda egon egiezen.

(1)Gizonak norkeriz ipini gura dabezanak = eufemismo edo itz-estaliko zentzuagaz ibiltzen dok esan au, edestiaren bi-milla ta erdi daroaguzelako odoljariozko borroka onegaz.

Bizkaiko batzar nagusiaren baldintzak, Jaunakin elkar aditzeko:

Bizkaitar batzar-nagusiak, iru gauzatarako aukeratzen ebazan Jaunak artekari lanak egin egiezan:

- a).- Gudal-buru izateko.
- b).- Zuzenbidearen buru-nagusia izateko.
- d).- Bizkaiako errigizartea ta ondorezko lur zabalak zaindu egiezan.

Eta Jaunaren irudizko buruzagitasuna jarraitasunezko lasaitasunean iraun egian, ain almen ta ondasun aundiakaz jantzi ba eben be, kontuan artuta, emon jakon guztitik berea ez zala ezer, bizkaitarrak, egin bear eben antolarazia⁽¹⁾, itzalgarritasunean⁽²⁾ ezarri zedin emoten eutselako.

Orregaitik, erabakitasunean, egilletasunean eta lege-egilletasunetik apurbat baiño bakarrik ez eutsoen emoten, aginduaren eskubide bakarra *errian egoala* erakusteko.

Baiña alderantziz, gure Batzar Nagusia Jaunaren aldeko baldintza bategaz lotuta geratu zan: beren gauzatarako izaten zanean eta *gudarako gizonen laguntza bear ebe-nean*, gure *batzarra* beartuta geratzen zan bere guda taldea gure mutillakaz osotzen, naita esan dogun lez, beren gauzatarako izaten zanean, *aurretik ordaintzeko bearkuntzagaz*.

Ortik aurrera eta erromatarrak Euskalerrian sartu ziranean bezela, gure lurraldearen jabetasunezko jaurkintzak eta gureak diran askatasunezko demokraziaren eritziak babesteko, Bizkaiko Jaunak eskatutako baldintza orren erruz, Euskaldunak beartuta, beti borrokan agertu gara gure artean.

Orreik izan dira ordaindu bear izan doguzan sariak, Jainkoaren legeari begira Paleolítico Neolítico bitartean lortu genduzan askatasunezko demokrazi ederrak zentzu onenean zaintzeko.

Bizkaiko batzar-nagusiak, izendatutako Jaunak kendu eikiezan emon jakien jaurkintza lekutik ?

Euskal batzarrak almen guztia euken, jaunak ziñez ez ba ebezan artzen batzarraren agindutako baldintzak, edo eta ziñ egindako baldintza orreik bete ta lotsakortasunean ez ba ebezan eukiten, emon jakien arduetatik kentzeko.

Bizkaiko batzarrak, agintaritzan ez eban euki mugarik, berea izan zalako jabetasuna.

Orregaitik, Bizkaitarrak, eurak izan ziran aukera bakarra euki ebenak jauna ipini ta kentzeko.

Eta zeintzuk izan ziran Asturias Leon Gaztela ta franko erregearen katoliko arauetatik, Euskalerrirentzako sortzen ziran arazoak, eta gero Europako erregetegi guztietatik ?

325eko urtetik aurrera mundu onen jaurkintzarako oraiñarte ikusi dogun lez, Ni-zean katolikotasunezko ziñeskintzan artu ziran arauetatik ez dabelako ezer aldatu, beti

(1) antolarazia = arbitraje. (2) Itzalgarritasuna = respetabilidad.

izan dira Aita Santuaren uts ezintasunezko almenagaz, goitik beerako agintaritzan, erritar ta agintari guztien erantzupidearen almenezko arduraz guztiak, Aita Santuaren eskuetan batu egin ziralako.

Ortik aurrerantza eta edozein agintaritzazko mailla guztietan bardiñ sortu daiten, odoljariozko alegiñekaz ibili dira beti, eta gaur be sortzen dan lez, or dabiz katolikotasun aberritar asmatzailleak laterrituta euren norkerizko guda indar guztiagaz, Europa ta mundu guztiko errigizarteak morroitzeko alegiñetan.

Gaur, norkeri orregaz jokatzen ba dabe, zer ez egingo ote eben Fernando katolikuaren denboran ?.

Adibidez: *Nafarroako erregetzagaz geratzeko, maltzurrezko guzurtasunean Aita Santuaren buldak, amaitu ezinezko ekintza baten eskarniatuta⁽¹⁾ ibiliten ebazanean, onek nafar erregeak eskomunikatu⁽²⁾ egiezan.*

Orduko denboran eta nik uste dot beti izan dala, Aita Santuak errege edo jaun baten bat eskomunikatu ezkerro, Europako edozein printze edo errege katoliko batek euki ebala baimena, eskomunikatuko errege jaunak euren ezar lekuetatik kendu ta eurak ipinteko.

Argi ikusten da emen, Aita Santuak ibiliten ebazan katolikotasunezko legeak, ez ebela zer ikusirik Jaungoikoak bereztu ebazan legeakaz, katolikotasunezko legearen lenengo aizkorakadagaz, berezitasunezko errigizarteak nortasun barik izten ebazalako.

Joko ori izan zan merkantil-katolikotasunezko araupidean gaur lez ibili zana.

Edestilari maltzur batzuk esaten dabe:

Aita Santuak *Dux*´eko berbeak erabiltzen ebazanean Nafar erregeari deitzeko, ta Frantzia, Gaztela ta Aragoitarren erregeakaz *Rex*´en itza erabilten ba ebela, berezko errien lege-bidez aukeratzen ziran erregeak, katolikotasunezko lege bidez aukeratzen ziranetik berezkatzeko zala.

Eta guk sinistu: *“Abereak be, ulertuko ez eben alango zuriketarik”*.

(1)Eskarniatu = falsificar. (2) Eskomunikatu = para excomulgar a los reyes de Navarra.

2. ZATIAN.

Orain, III garreneko ataletik ari artuta, goazan IV garreneko atal onen kondairatik asten, gure Errege-Jaun bakoitzaren aurkezpen eta biziak azalkeratuta, Euskalerrriaren kondai oneri, al dogun argitasuna emoteko.

1.253ko urtean il zan I Teobaldo Nafar erregea.

1.254ko urtean III In Lopeztar Diego.

Eta Bizkaiko 12gn jaunagaz amaitu gendulako gure Euskalerrriaren III In ataleko idaz-kondaira, Nafarroako II In Teobaldo erregeagaz asiko dogu IV n atal onen idaz-lana, berari egokitzen jakolako oraingo txanda.

Vn Teobaldo Txanpaña ta Brieko konderrri leiñuan, eta II Nafar erregetzan.

Armarri au izan zan II Teobaldoren etxeko mairu-arria



Eta erredola lez, II In Teobaldo ren zainpea

Txanpaña ta Brieko Konderrriaren IV na eta Nafarroako I Teobaldo “Bertsolaria edo Izneurlaria” ta bere irugarren emazte Borbon ta Danpierreko Margaritaren semea zan.

1.238ko urtean Siziliako ugartearen Trapaniko errian jaioa ta 1.270eko urtean Abenduko 4an Tunez en itsasontziratuta, bere Nafarroako erreinurantz itzultzen egoala il zan.

1.250eko urtean ta erregeen geiegikeririk ez zedin sortu, Nafarroako nagusiak erabagi ostean, Nafartarren orokorrezko foru legeak idatzi ta siñatu ziran.

1.253ko urtean, 14 urteagaz igon eban II In Teobaldo Nafar erregetzazko aulkira, bere amaren errege-ordezko ta Aragoiko I Jaimeren gurasordetasunean, leen egunetik Nafar Laterrien arazoetan sartuta.

1.253ko urtean Azaroaren 27an zindu ebazan Nafarroako foru-legeak, Nafarroako zaldun edo aberats gizonai mugak ipinita, berak 21eko urterarte ezin ebalako ezer epaitu, arik eta bere gurasordearen aolkua euki arte, eta onek be ariñago, 12 nafar aberats gizonen aolkua euki ondoren egiten ebana.

1.255eko urtean Jorraillaren 6an II In Teobaldok, Frantziko errege IXn San Luis'en laguntza aurkitu eban, eta urte onetan bere alaba Isabelegaz ezkondu zan.

1.256ko urtetik eta ezkondu zanetik aurrera Frantziko errege IXn Luisek, Nafararren arazo guztien epaille edo artekaritzak egin ebazan.

1.256ko urtearen Urtarrillako 1ean Leon-Gaztelako Xn Alfonso errege Jakintsuaren alaba, Frantziko erregearen semeagaz ezkondu zanean, Xn Alfonso onek, Ondarribia ta Donostiko kaiaren ibilkera itzi eutson II In Teobaldori bera biziko zan arte, Nafar erriarren salerosteko mozkiñak, atzerriko errietara bialdu edo atara egiezan.

1.257-1.259ko urtetan, II In Teobaldok Nafar erregetzako agintaritzak eukin arren, ez eban gura Nafar foru-legeen azpian egon, eta Aita Santu IVn Alejandroren bidetik lortu eban urte onen artetan igurtzi edo ta koroazioko eleizkizunak sartzea, erregeak Zeruko edo jainkotarren etorbidezkoak zirala esateko.

II In Teobaldok, Nafar andiki edo aberatsaren laguntza euki eban, auek zerga bereziak ordaintzen ebazalako, berak alderantziz politikako arloan euroi, ospe, entzute eta esku emonda.

1.269ko urtean, Iruñako forua zabaldu eban Lanz'eraño, eta Lizarrako forua, Tiebas ta Torralbaraiño.

Eta urte onetan Zangozako merindadean, Erroibarko Aurizberri edo Espinaleko uria sortu eban.

Iruñako erregetzaren obekuntzan iraun eban, diru sarrerak eta irteeraren jaurkintzak obetuz, erregetzaren Nafar gizartea, 30.000 zutegi ta 150.000 erritarrak zenbakituta.

1.266ko urtearen jaurkintzazko diruaren arloak argibidetuta: %'tik 6'75'tak, gizarterearen burokrazian edo erriaren jaurkintzan ibiltzen ziranentzat; %'tik 33'84ak gudu jaurkintzan; eta %'tik 59'6ak erregeari ta beren egipidearen ordainketarako.

1.270eko urtean II In Teobaldok, Nafar erregetza bere anai Enrike agindutara itzi ondoren, Frantziko IXn San Luis aitagarrebagaz ontziratu zan, VIIIn gurutzada santu lez, Tunez'en aurka egiteko.

Tunez'era eldu ziranean, Frantziko errege IXn Luis il zan, beitiko kakeria edo sa-beleko lasterkeriaren elde edo izurriagaz kutsatuta.

1.270ko urtean Abenduko 4an itsasontziratuta, bere Nafarroako erreñurantz itzultzen egoala il zan II In Teobaldo Nafar errege ta Txanpaña ta Brie konderriaren Vn au.

Txanpaña ta Brie'ko konderriaren III In Enrike, Nafarroako errege I Enrike izenagaz.

Nafarroako I Enrike Lodi edo Gizen au, 1.244ko urtean jaio zan, eta 1.274ko urtean Garagarrillaren 22an il. Bere erregetza 1.270-1.274ko urte artean bete ostean.

Txanpaña ta Brieko Konderriaren IVna eta Nafarroako I Teobaldo “Bertsolaria edo Izneurlaria” ta bere irugarren emazte Borbon eta Danpierreko Margaritaren semea ta II In Teobaldoren anaia zan.

1.269ko urtean Artoiseko Blankagaz ezkondu zan, eta Nafar foruai ziñ egin ondoren, Frantzira aldatu zan, Frantziko errege Felipe Ausartari, beren leiñuzko ardurapean jaurkitzen ebazan Txanpaña ta Brieko konderriagaitik, ziñ-egiteko.

1.270eko urtean, bere anai II In Teobaldo ondorengotasunarik gabe il zanean, artu eban Nafarroako erregetza.

Erri xume edo bealdeko errigizartearen aldekoa zan, 1.266ko urtean sortu zan Iruñako San Zernin eta San Nikolaseko auzotasunaren uri-menpetik⁽¹⁾ askatu ebazan, eta lege bereziak emon eutsezan Lizarra, Arkos eta Bianari, zalduneko aundikiakaz artu emon onak eukinda.

1.274ko urtean bere gizentasunagaitik il zan, iru urte errege izendatu ondoren.

1.274ko urtean il zanean, iru urteko alaba bat itzi eban, gero Nafarroako I Juana izango zana, bera baiño zarragoa zan anai Teobaldo, Lizarrako gazteluaren dorre batetik jausita il zalako.

Txanpaña ta Brieko konderriaren Juana konde-andrea, Nafar erregeña bere senar I Felipe Ederra ezkon-lagun lez, I Juana´ren izenakin.

I Juana´ren armarria



1.271ko urtean Jorraillaren 17an jaiotako Paris aldeko Ekialdean Aubeko lurralde eta ibai inguruan, Bar-sur-Seineko errian, eta 1.305eko urtean Jorraillaren 4an, Pariseko Ekialdean Bal-de-Marne lurraldeko Binzenes erriko jauregian il.

1.284ko urtean Dagonillaren 14an, Paris´eko Notre-Dam eleizan ezkondu zan I Juana, Frantziko errege izango zan IVn Felipe Ederragaz, Nafar errege lez I Felipe izango zana eta Frantziko ta Nafar erregetzagaz batera, Txanpaña ta Brieko konderriaren izenak lotuko ebazanak.

1.285-1.305eko urte bitartean gure I Juana Frantziko IVn Felipe Ederragaz ezkondu zalako, Frantziko erregetzaren erregeñ kidea be izan zan.

Nafarroako I Enrike ta Artois´eko Blankaren alaba izan zan, eta Txanpañaiko leiñuak euki eban erregeñ bakarra.

(1) Iruñako San Zernin eta San Nikolasen auzotasuneko Uri-menpetik askatu = permitir que la navarrería se desvinculase de los Burgos de San Zernin y de San Nicolas, (ver los Burgos de Pamplona el año 1.266).

I Blanka, 3 urte euki zituzenean igon eban erregetzara, bere amaren errege-ordegoan.

Arrigarrizko aukerea agertu jakien gaztelar, aragoitar, eta frantzezari, I Juanagaz ezkondata, Nafar erregetza euren agindupera eroateko.

I Juanaren ama Artois'eko Blanka baiña, IXn Luisen arreba izan zan, eta Artoiseko I Robertoren alaba lez Frantzirantza begituten eban, eta bere leen maillako anai-lengusu IIIIn Feliperi laguntza eskatuta, onek bere seme Felipek 16 urte euki zituzenean, 11 urteko I Juanagaz ezkondu eban, Gaztelako Xn Alfonso Jakintsuaren asmoari aurreratuta, onek bere semeagaz ezkondu gura ebalako.

Orrela igon eban Txanpaña ta Brieko konde Felipe Ederrori erregetzazko Nafar aulkira, Nafarroako I Feliperen izenagaz, emendik aurrerako Nafar erreinua, Frantziko edestiagaz guztiz lotuta geratuz.

1.285eko urtean, Frantziko errege IIIIn Felipe il zan, eta bere seme Nafarroako I Felipe, Frantziko erregetzara igon eban IVn Feliperen izenagaz.

Frantziko IVn eta Nafarroako I Felipe onek, batzangotasunezko ta guztiz altsuzko jaurkintz bat gure eban, eta alango jaurkin batek diruaren bearra eukinda, alangoko política bat eroan bear izan eban Frantzia ta Nafar errigizarteetan:

-Dirua merkeagotzeko, urre-gorri ta urre-zuriaren neurriko pixuak beratu ebazan.

-Orduko katolikoen eleizak, katolikuari debekatu egiten eutsielako diru-etxekoen zeregiñetan ibiltzea, atxiki edo besteen-dirua ibiltzen eben juduei, zerga aundiak ezarri eutsiezan.

-Aberatsari, aundikien-izenak saldu. Menpeko zerbitzariari diruaren truke, bear-kuntzatik askatu be. Eta eleiz apaizari, amarraren zergakaz beartu.

Frantziko IVn eta Nafarroako I Felipe onek neurri onekaz, VIIIIn Bonifazio Aita Santuaren atsekabe edo esarrea bizkortu eban, eta eleiz-apaizari debekatu eutson onek, iñungo laguntza emotea erriko gizonai.

1.301eko urtean eta asken baten, Aita Santu VIIIIn Bonifacio onek, Frantziko IVn eta Nafarroako I Felipe onen gaindu aurrean, atzerantza egin eban, erregeak ata guzti baiña, Pamiers'eko gotzaia atxilotu eban, eta Aita Santuak errege onek eleizako eskubideak zapaldu egiten ebazalako exkomunikatzen joan zanean, erregearen gizonek atxilotu eben.

1.301eko urte onetan, VIIIIn Bonifacio Aita Santua erritarrak askatu eban, eta 1.303ko urtean il zan.

VIIIIn Bonifazioren ondorego XIIn Beditok⁽¹⁾, amor-emonda edo atzerantza eginda, VIIIIn Bonifaziok, IVn Feliperen aurka artu ebezan erabagi guztiak ezereztu ostean, frantzez kardinalak izendatu ebazan, eta bera kokatu zan gorte guztiagaz Abiñonen, Frantziko laterriak, Batikanoko laterriari irabazita, euken obariko leian.

Tenpeltarrak, eurak euki eben ospe edo entzuteagaitik, diru-zaiñ lez ibili ziran, eta IVn Felipek diru orrekaz geratzeko, tenpeltarrak salatu ondoren, lortu eban auek aienatzea.

(1) Eta Vn Klemente, askeneko au Frantzi ta Nafar erregetzaren IVn-Igo Felipegaitik ipinita egon zana geiago.

1.305eko urtean il zan I Blanka Nafar erregiña, eta Nafartar erritarrak gogaituta I Feliperekin, bere seme Luiseri emon eutsoen erregetza.

1.307ko urtearen Urrillan Luisek ziñez itz eman eutsoezan Nafarrako Foruai.

1.307ko urtean Tenpeltarren buruzagi nagusia Jakkes Molai eta auek euki zituzen nagusi guztiak atxilotu ebazan, siñausle lez salatuta.

1.309ko urtean, eta sutzarrezko lenengo txanda baten, ainbat tenpeltar erre ebazan.

1.312ko urtean Vn Klemente Aita Santuak, debekatu eban Tenpeltarren lekaidegotza.

1.314ko urtean, naita Aita Santuak Tenpeltarren lekaidegotza debekatu arren, IVn Felipek, Tenpeltarren agintariak sinist-auzletasunean jauskor edo bir-eroriko lez salatuta, sutan erretzeko agindua emon eban, eta olan berak, tenpeltarrak euki ebezan tresneri edo altzari guztiakaz geratu zan, onibarrezko-ondasunak⁽¹⁾ arrotzale-lekaidearen⁽²⁾ ardurapean ipinita.

Nafarroako ekintza guzti oneik, juduen aurkako zaletatuna bizkortu eban, eta I Juana ta I Felipek aginduta, juduei euren zeregiñezko prestamu edo maillegugintzan, debekatu eutsen euneko mozkiñik artzea, eurak maillegu emoten eben dirua baiño besterik ezin ebelako artu.

Nafarroako I Felipek, Korellako eleizari Grandmont´eko lekaidego maillagaz izendatu ostean, urteroko 125 liberaren sari osoak emon eutsozan, Tudelako lekaide-txearen aberaski edo ondasunaren truke, lekaidetxea eraikita egon ziran lurrak, barazti, ur-odi edo ur-bide, ta eurak euken Bardenaseko mendiaren onurak izan ezik.

1.250eko urtean I Felipe errege au joan zan, Nafar nagusiak idatzi ebezan Nafartarren orokorrezko foru legeak kentzera, erriak eta erriko nagusiak baiña, geiago egin eutsoen.

Ezkontza onetatik jaio ziran alaba-emeak.

I Juana Nafar erregiña ta Frantziko IVn ta Nafarroan I Felipe Nafar-Frantziko ezkontza onetatik, 7 alaba-eme jaio ziran:

-1.289ko urtean Urrillako 4an, **Luis Buru-Gogorra**, bere gurasoen il ostean eta 1.314-1.316ko urte bitartean, Nafarroa ta Frantziko errege izan zana. Borgoñako Margarita eta Ungriako Klemenziagaz ezkontuta, Nafarroako IIIn Juana eta Frantziko I Juan´en aita izan zana.

-1.290-1.294ko urte artean bizi zan **Margarita**. Gaztelako IVn Fernandogaz ezkontzeko itz emonekoa, gazterik joan zan lez baiña, ezerezean geratu zana.

-1.293-1.294 **Blanka**.

-1.291 jaio ta 1.322ko Urtarrillaren 3an Longtxamps´eko errian il zan **Felipe Luzea**.

Borgoñako Juanagaz ezkondu zalako Borgoñako kondea izan zana, eta 1.311ko urtean Poitiers´eko konderriaren gozatzaille edo jabe-uts⁽³⁾ izan zana.

(1) Onibarrezko-ondasunak = bienes-inmobiliarios. (2) Arrotzalezko-lekaideak = frailes hospitalarios. (3) Gozatzaille edo jabe-uts = usufructuario.

Frantziko erregetzan, I Juanen ondorengoa zana eta 1.316-1.322eko urte bitartean Frantziko errege Vn Felipe izenagaz.

Berak irasi eban Salika edo gizonezkoaren legea, Kapetoren leiñutik, bere loba Juanaren errege bideak ebagitzeko.

-1.292eko urtean jaio ta Roseing'en 1.358ko urtean Dagonillaren 22an il zan *Isabel*(2), Frantziko Otso-Emea esaten eutsoenari.

Ingalaterrako IIIn Eduardo 1.284-1.327ko urte bitartean bizi zanagaz ezkondu ta, IIIIn Eduardoren ama izan zana, eta IIIIn Eduardo au izan zan 100eko guda sortu ebena.

-1.294ko urtean jaio ta 1.328ko urtean Binzenes'eko Bois gazteluan il zan *Karlos, Ederra* esaten eutsoenai.

1.314ko urtean Martxeko kondea izendatu eben, eta 1.322 1.328ko bere anai Vn Feliperi ondorengotuta, Frantziko errege izan zana IVn Karlosen izenarekin.

-Eta 1.297ko urtean jaio ta St. Jermain-en-Layen 1.308ko urtean il zan *Roberto*.

Oar txiki bat lez.

I Teobaldoren erregetzatik emen ikusten doguna, Teobaldotar erregeak Frantziko obturan, batzangotzailleak izan arren, ez ebela zeregiñik euki, Nafar erritarrak euren

Lege Zar bidetik ekarten ebazan Batzar-Nagusiko erri-legeakaz, Nafar-Legeak beti bete ziralako Nafar-Errigizartearen Askatasunezko Demokraziaaren borondategaz.

Orregaitik emen, eta Bizkaiko Jauntzaren zenbakiakaz aurrera egin orduko, Gernikako Lege-Biltzarratik asiko gara aurkezten, euskal leiñutan euki genduzan legeak jakin daiguzan, Nafar, Benafar, Giputz, Arabar, eta Bizkaitar legeak, orokortasuneko Euskal-Sendiarenak izan zirela, inoren zalantzarik bage.

Gernikako Lege-Biltzarra.

SARRERA.

Lasa ta Apalategi'tar Jose'k, esakunde⁽¹⁾ eder bategaz azten dau berak argitaratutako *el pueblo vasco* liburu au: ez dala bardin *demokrata zarela esatea, izatea baiño*.

-Gero, Euskalerrria, gaurko demokrazizko berba oneik zer gura esan eben jakin barik demokrata izan zala.

Eta Abraham Linkoln'ek XIX'n gizaldian Ameriketaren bereizketako⁽²⁾ gudan *demokraziaren* itza: *erriaren-Jaurkintza, erriagaitik eta erriarentzat* mugatu ebanean baiño, euskaldunak askoz ariñago, demokratak giñela.

Orretzaz gaiñera, gure legearen oiñarrian sartzeko, iru adierazpeneko atal ederrak aurkezten dauskuz:

(1) Esakune = proverbio, sententia. (2) Bereizketaren gudan = guerra de secesión.

1^a *Politika'ren bardintasuna*: Iñor aldendu barik Lege aurrean, danak izan zirela bardiña 'k. Txiroak ta aberatsak neurri-bardiñean, Jaun-Jabedunak izan ziralako.

2^a *Politika'ren askatasuna*: Legearen aurrean danak gozatu ebela askatasunezko politika bardin bategaz, bereziketak ta bakartiaren eskubide zaleak, borrokatuz.

3^a *Esabide edo esabidearen askatasuna*: Danak, edo erriak on-bear eben gauza guztiagaitik, nai auzoko errepublikaren batzarretan, Udaleri, edo orokorrezko batzarretan, askatasun osoagaz berba egin eikiela. Gure erriak *askatasun au*, ardura aundiz zaindu ebalako.

-Gure Euskalerrri onek, eta Nafar, Giputz, Arabar, Benabar eta Bizkaiak batez-be, ondo jakin eban XVn gizaldiko erri nasletik aldatzen, 1.452ko Foru zarrean idatzita dagozenak esaten dabean lez.

-Eta XVIn gizaldiko aurrerakuntzagaz, bake ta aberastasunaren argira zabaldu ziran lekuko bideetan, 1.526ko Forua-berriztu zanaren legeakaz agertuten dira.

-Beste aldetik, ez dago iñungo arrazoirik ez sinesteko, Euskalerrria XIXn gizaldiko lantegi-gintzaren aldaketara ez zala egokituko, 1.876ko Uztaillaren 21ean esku zikin batek, samatik oratuta eta guda bidez, Bizkaia, Gipuzkoa, Araba ta Nafarroako Erri-Foruak ez ba-ebazan ebagi.

Gernika'ren Batzarretarako Deia:

-Genikako Lege-Biltzarrera joateko, bost mendietatik egiten zan adarrezko deia-gaz osotzen zan:

-Gorbea, Bizkaitar mendigoizaleen biotzeko-menditik.

-Oiz, ibai eta ibai-adar askoren iturria dan goi aldetik.

-Sollube, betiko arrantzale ta itsas-gizonen mendi-gidari dan goi-aldeetik.

-Bilbaon, Ganekogortatik.

-Eta Kolixa, Balmaseda eta Nerbioi-Ibarraren oartoki edo talai-mendietatik.

Gernikako Lege-Biltzarra.

Leen esan bear doguna, erdi-aroan ainbat tokitik egiten baziran orokorrezko batzarrak, garrantzi andia euki ebenen artean, Larrabetzuren eskumendeko Aretxabalaganaren goian egiten zirala.

Gernikako erria oizko batzar-toki lez, 1.366ko Jorraillaren 28an Tello Bizkaiko jaunak Orduñatik iribilduaren izena emon orduko esagutzen zan.

Lunoren eskumendeko lurraldea zan, Antziñako Santa Mariaren Bas-eliza kokatuta egoan arizti lekua, eta Gernika esaten eutsoenai.

Gero, Gernikako auzo au danon erreztasunerako, erdigune biurtu zan lez, Tello jaunak iribildu ondoren XVn gizalditik aurrera, bereganatu ebazan Orokorrezko-Batzar-Nagusiak.

Eleiz-Aurreko Batzar edo ta Errepublikaren aitor-sembleak, ordezkoko arloan, zelango eratan ote ziran itxuratuta⁽¹⁾ *Gernikako Lege-Biltzarrean ?.*

Itaunak, argi azaltzen deusku, Busturia, Uribe, Arratia, Bedia eta Zornotzako Ibar Yaurerri edo Merindadeagaitik berba egiten dogula, eurak izan ziran Gernikako Lege Biltzarren sortzailleak eta 1.452 ta 1.526ko urtetan, gure Aitor-Semeen lurrean Bizkaiko Foruaren Legeak bildu ta berriztuta idatzi ebezan.

Errepublika bakoitzak, erkidetasunezko erri-batzar zabalean ordezkoko-bi aukerazten ebazan, eta erriko-idazkariaren aurrean egokiro⁽²⁾ alminduta, nai-ta nai-ez Gernikako Lege Biltzarrera bialdu bear ebezan.

-Aukerazten ziran ordezkari oneik, erri-batzararen izenean berba egiten eben, emoten eutsen mugatutako almenagaz.

-Ordezkariak, errepublikako batzarren agindua, ia geienetan zabalik eroaten eben, eta euretik batek bakarrik eukiten eban itza ta autamenaren⁽³⁾ eskubidea.

-Biak ondoan, beste ordezkariaren eskubideko eginbearra, aolkularitzarena izan zalako, eta autespeneko orduan ez ba ziran adoz aurkitzen, euren autarkia ezereztuta geratzen zan.

-Ordezkariak, ez ziran deitzen eurak euki eben izenagaitik, eroaten eben errepublikaren ordezkogaitik baiño.

Adibidez: Biltzarreko lendakariak deitzen ebanean berba egiteko, *Bermeoko Jaunak dauka berbea*, esaten eban; *Bolibarreko Jaunak* eta abar.

Eta autarkia emoterakoan bardin: Bermeok dauka autapidea, Laukiniz dauka autapidea eta abar.

Gernikako Lege-Biltzarra era orreitan, ordezkarien batzarra izan barik, Bizkaiko erri baltzu⁽⁴⁾ edo errien-elkartasunezko batzarra izaten zan.

Gernikako Lege-Biltzarrak, 12-15 egunekoak izaten ziran, eta Errepublika bakoitzak ordaindu bear izaten ebazan, ara bialdutako ordezkarien lo, janari ta joan-etorri bidea.

Ordezkarien ardurak, Orokorrezko-Batzarrak amaitzen ziran egunean bukatzen ziran, eta Bizkaitarrentzak ez zan egon omen andiagorik, nai-ta euren bizitzan, legegille aginte ori, baten bakarrik bete egiten ba-eben be.

IRIBILDUA'k.

Iribildutako Uriak, noztik ta zelan egon ziran ordezkatatuta Gernikako lege-biltzarrean ?.

Iribilduaren izen barri au gogoratu bear dogu:

a) Auzo, leiñu, erri ta Gernikako batzarrak baiño, milla-urte askoren ostekoak dirala, eta euren euskal-lurretan eraiki ba-ziran, Bizkaitar guztien baimenakin eraiki zirala.

(1) Itxuratuta = representados. (2) Egokiro alminduta = debidamente autorizados. (3) Autamenaren = derecho a voto. (4) Erri-baltzu = confederación, liga de pueblos.

b) Uriaren gizartea babesteko izanda be, arresidunezko orma barruen esitzea, euskal luraren zabaltasunezko bizitzan, sakabanatuta egotearen aurkakoa zala.

d) Iribildutako erri oneik, baleiteke neurri andi baten, kanpotik ekarritako kolonitar eritziekin erriratu gure ebela.

e) Eta euren jaurkintza, euskalerritarren eskubidearen gaiñetik, Logroñoeko foru arrotz-legean ezarri ziran.

Iribilduetan, eleiz-aurreko batzar-zabaletan egiten ziranen aurka, Udaletzeko batzarrak alkatearen aginduan, itxita egiten ziran.

XVIIgarren gizaldi erdirarte, Iribilduak ez ziran sartu Gernikako lege-biltzarrera. Naita XVn gizalditik aurrera Eleiz-aurreko batzarretan eskubidearen gora-beran, zalantza eta asarre andiak euki.

Bien aldeko bakeak eginda, 1.630eko urte inguruan asi ziran Iribilduak euren ordezkari biak Gernikara bialtzen.

Eta naita Uri aundia edo txikerra izan arren, beste eleiz-aurreko ordezkariak lez, ordezkari bat bakarrik euki eben legeztuta berba egiteko, autarkia emoteko, eta beste ordezkari bat, aolkularizko lanak betetako.

Baten batek esango dau, zuzen-aurkakoa dala, Bizkaian Bilboko Uri-batzar nagusiarenak, Ereño-batzar txikerrenaren beste, autarki bat eukitea.

Lasak baiña, itaun oneri beste itaun bategaz erantzuten dautso: *Ez ote naikoa izan, berezkoaren beste autarki ta mintzaren eskubide emotea, Euskalerriko lurak, espainako jaurkintzaren kabuz kolonizetan etorri ziran aurrekoai ?*

Euskal-Batzarrak ata guzti, ez eben: *Legeen aurrean danak bardiñak izatearen ekinzagaz, Lege-Zarraren urrezko-zentsuari, bear eben ordezkoa emon baiño besterik egin.*

Eta arrotzari erakutsi: *Errepublikaren autarkia, lur ta bertako jaiotzaren eskubide-tik agertzen zala, eta Iribilduarena Errepublikak emoneko bidetik”.*

A-ta guzti, non ikusi da: *Nor-Bere etxean kanpotarra, etxeko-Jauna beste aginduten lagatzea ?.*

Espainolak, erakutsi ete dozkue guri, DEMOKRAZIA zer DAN ?

Bizkaiko Batzar-Nagusiaren Izkuntza.

Euskerea zan izkuntz bakarra, Euskalerriarren eta Bizkaiko lege biltzar guztietako mintzagintzan, arek eta gure jauntza espainaren eragipenean nastu arte, eta batez be, espainako errege izango zan I Juanen⁽¹⁾ eskuetan jausi arte.

Noztik ete, edo zergaitik sartu zan latin-kume edo gaztelera ori gure Batzar Nagusietan ?:

Ata guzti, Gernikako Batzar Nagusietara joan orduko, eleiz-aurreko askatasunean egiten ziran errepublikako batzar guztiak, danak euskeraz egiten ziran.

(1) *Baleiteke pozoituta* (1) I Juan (1.358-1.390) II Enrike eta Billena'ko Juana Manuela, Diaz de Haro'tar Maria Teresa'ren bost'garren biloba eta Dn. Lopo'ren arreba izan zanaren semea. Lope onen eskubidetik etorten jakon Bizkaia'ko Jauntza eta 1.371'n Bizkaitarak bere izenean ziñ eginda, 1.379'an I Juan'ek Espaina'ko erregetza artu ebenean Bizkaia'ren Foruak be zindu ebazan.

Bai eta Iribildu edo Billaren mugatuko Udal-batzar geienetan be.

Lege Biltzarrean, latin-kume⁽¹⁾ edo gaztelera, agintezko-izkuntz bezela artu zala, antziñatik datorren gauza da. Erregeak bere ardurak zaintzeko, bialtzen ebazan zuzendari⁽²⁾ bidetik ain zuzen.

Euskeraz bakarrik jakin eben errepublikaren ordezkari geienak.

Eta ata guzti, gaztelerea indarrez legeztu zan 1.614ko Abenduaren 10ean.

Ortik aurrera, Orokorrezko Batzarretara joan bear ziran ordezkariak, latin-kumez idatzi ta berba egiten ebenak bakarrik bialtzea agindu eben, gorputzaren zigor, diru-ziggor eta espetxeko keiñadurakaz.

1.624ko urtean Epailaren 19ko egunean ospatu ziran Orokorrezko Batzar Nagusietan alan sortu zan, Libano-Arrieta, Ispaster, Sondika, Leioa, Berango, Lemoiz, Laukiniz, Bakio, Areatza eta Ubideako ordezkariak, kanpora bialdu ebezanean, gaztelera ez ebelako jakin.

Eta alan dakar Labairutar Estanislao apaizak bere idatzitako liburu *Historia General de Bizkaia* bostgarren atalean:

1.625eko urtean egin ziran Orokorrezko Batzar batzuetan, zelan ez ziran onartu: Barakaldo, Ereño, Mujika, Berango eta Berriatuak bialdu ebezan aginduak, ordezkariak ez ebelako jakin irakurten, idazten eta gitxiago gaztelera berba egiten, zigortuak eta espetxeratuak izan da.

Argi ikusten da, katolikotasunean aberkidedutako batzango-menperatzaille zale errege orreik, antziñatik asi zirala erri irasle edo kolonogille lanetan, naita *gaur arte ezer lortu ez*.

Gaur, gure ordezkari abertzaleak euskeraz bakarrik alegintzen dira, eta nai-ta itzultzeko gailluak euki, adeitasunak⁽³⁾ emoten dauan lotzagaz gaztelera be berba egiten dabe.

Espainol-menperatzaille eritzikoak batzuetan beartuta, Euskeraz ez dakielako, sarrera labur batzuk baiño ez dabe egiten.

Ekintza ori, Bizkaitarren jabetzako elburura begituta, pauso andiak emoten ga-bizela esan nai dau.

Naita gaur, espainolak guzurraren bidez, legeak euren aldera maltzur-biurtuta, eta gure autesmeneko⁽⁴⁾ aukerak indarrez murriztuta, Gernikako Lege-Biltzarren eta Euskadiko jaurkintzaren pesoeko Franzizko Lopez lendakariak euskereagaz ezer jakin gura ez.

Zergaitik sortu oteko zan Pase Forala ?.

Gure ordezeko batzarkideak antziñatik konturatu ziran, euki genduzan jaun-errege Gaztelar orreik azpikeriz, gure auzunek iribilduten asi ziranean, Euskalerra kolonizetan ibili zirala, eta geiago, gure jauntza 1.379an Gaztelako I Juan⁽⁵⁾ erregearen eskuetan jausi zanetik.

(1) Latin-kume = romance. (2) Zuzendari = corregidor. (3) Adeitasun = cortesía, deferencia. (4) Autesmen = facultad de votar. (5) Juan I de Castilla (1.358-1.390).

Gure ordezkariak, orregaitik arduratu ziran, *arazo barrieri, neurri barriakaz* aurre egiten.

1.406an Gaztelako III Enrike Gaxoa⁽¹⁾ il zanean, gure jauntza, urte bi bete barik euki eban IV Juanen eskuetan jausi zan, eta Katalina ta Fernando beren aita-amak ordezekoak egiten egon zirala, gure Lege-Biltzarkideak beartu ebazan Foruak ziñ egiezen.

Eta Juan berak be, zin egin bear eutson adiñekoa biurtu zanean.

Denboraldi oneitan baiña, Gaztelako erregeak *Pase Forala* kendu gurean ibilita, Bizkaitarrak asarratu ziran, eta Jaunak, arrazoia eukiela ikusi ondoren, 1.452ko Uztailaren 21ean Gernikako zuaitzpean egingo zan batzarrean, Bizkaitarrak euki ebezan oiturazko eta aukerazko-legeak idatzi egiezala esan eban: *Para que cualquier carta que el Señor de Vizkaia diere contra Fuero de Vizcaya, fuere obedecida y no cumplida.*

Eta alan idatzi zan Errigoitiko Santa Maria eleiz-barrutian, foruaren leenengo liburuan.

1.526ko urtean gure legegilleak, kontu aundiagoa euki eben *pase foralaren* gora-beran, gure foruak berriztu ebazanean, Bizkaiko Jaunaren ulermenak ez egin zalantzarik euki.

Eta alan diñoe barriztutako Foruan bere XIIn legezko I izen-buruan:

Otro si dijeron: Que habian por Fuero, y ley, y franqueza y libertad que cualquiera carta o Provisiòn Real, que el dicho Señor de Vizcaya diere o mandare dar, o proveer, que sea, oser pueda contra las Leyes o Fueros de Vizcaya, directe o indirecte, que sea obedecida y no cumplida.

Bizkaitarrek, euren legegintzaren zentzuak, era orreitan oiñarritzen ebezalako, eskubide osoagaz agertu ziran, mende gabetasunaren⁽²⁾ jazarraldiak aurrera eroateko.

Gure Jaun edo Gaztelar erregeak, zelako ibilbidea egiten ote eben gure Bizkaitar Foruei itza edo ziñ egiteko ?

1.369an espainako errege-kume⁽³⁾ I Juanek gure jauntza artu ebenean, Bizkaiko Jauntza ez eben bat egin Gaztelako koroiaz, gure Batzar-Nagusiak I Juanen pertsunagaz bakarrik itzarmentzen⁽⁴⁾ ziralako.

Orrela, Itzarmen orreik, ez eben zer ikusirik Gaztelako erreñuaren izatasunarekin.

Bizkaiko lurraldea, ez zan sekula geratu lotuta Gaztelako legearen mende, Bizkaiko Jaunarekin baiño, eta iñoz iñoren mende, Jabetasuna Bizkaiko Batzar Nagusiarena izan zalako.

Orregaitik, Gaztelar erregeak euren errege aulkian ezartzen ziranean, jauntzaren lenengo urtean zindu egin bear ebezan gure Foruak, Foru-legeak agintzen ebazan leku ta eratan 14 urte beteta edo bete ostean. Bestela, bere ordezkariak, gurasorde edo legezko aita/ama ordezekoak.

Jauna Bilbora elduta, gure Foruak agintzen eban lez, Iribilduaren esi'ko⁽⁵⁾ atean emon bear eben lenengo ziñ-itza. Santos Juanes gaxo-etxe ondoan egoana, eta gaur Atxuri'ko lur orretan langintzazko-trebetasunaren ikastetxea kokatuta dagoan lekuan.

(1) III Enrike (1.378-1.406) Gaxoa = Enrique III el doliente. (2) Mende-gabetasuna = desobediencia. (3) Errege-kume = infanzon, hijo de rey. (4) Itzarmendu = pacto, acuerdo. (5) Esi, arresi = muralla.

Bertan, Bizkaiko Jauntzaren ondoretzagaitik⁽¹⁾ onartua izaten zan, eta Bilboko errege jauregian atsedean labur bat eginda, Txorierrri 'ko ibarrean egoan erromatar arbidetik⁽²⁾, Gernikara bideratzen ziran⁽³⁾.

1.526an Foru-liburu barrien agindu bidez, Larrabetzuko Goikolexea auzoan XI In gizalditik dagon San Emeterio ta Zeledon ziñ egiteko Eleizan egiten zan bigarren ekitaldia.

Larrabetzu gero, I Juanek, Iribildu eban.

Morgan egiten zan irugarren ekitaldia, Aretxabalagana bizkar-zelaian jaunaren eskuari

musuak emonda, Bizkaitarrak jaun barriari umajea⁽⁴⁾ egiteko.

Laugarren ekitaldian, Gernikan dagoan Antziñako Santa Maria Eleizara joaten ziran, eta bertan Bizkaiko Lege-Biltzarkideen aurrean, ziñ aundiena emoten eutsien Bizkaiko Foruai.

Eta ortik, Bizkaiko Jauntzan Zuzentasunezko Lege Buru izan zan Bermeora joaten ziran, Santa Eufemiko Eleizan oiturazko ziñ egiteari amaiera emoteko.

Au da, gure lenengo idazpuruaren, I eta II n. legeetan, 1.452ko Foru Zarrak agintzen eban ibilbidea, eta aldakuntz txiker batzuekaz 1.526an barrixtutako Foruak, gure Foruari ziñ egiteko esaten dauana.

1.476an Vn Fernando katolikuak egin eban azkenez bidai ori.

Gizaldi bat geroago Mendietatar Frantzizkok margoztu eban, Gernikako Lege Biltzar gelan dingilizka eskegita dagoena: V Fernando erregea aberats errege-aulki baten ezarrita, eta alboetan Oñaz ta Ganboatarrak euren armarren paperezko bilgoagaz⁽⁵⁾. Goialdean, Bizkai 'ko andrak euren txuntxur-antzeko burtsareakaz⁽⁶⁾ eta atzean auzo bat bere eleiza, errekea ta mendiak ikusten dira.

Erregeak emendik aurrera, ziñatuta, paperezko agiri bat bialduko eutsoen Bizkaiko Batzar Nagusiari, Gernikako zuaitzpean batzartuta irakurten zana, eta Bizkaiko batzarraigaitik beste barik onespanduta geratzen zan.

V Karlosek olan egin eban, eta Lasak diño: *Ex zala jaio gure bide latzetatik mando gainean ibilteko*. Baiña baleike, beren burua, beste amets batzuen kabia izatea.

Nafarroako eta Bizkaiko errege-jaunen aria ostera artuta.

13gn. Jauna Bizkaiko Jauntzan.

Alfaron jaio zan, Aroko leiñuan Lope izeneko III In Lope Diaz eta Bearne 'ko Jaun au, Aroko III In Lopez 'tar Diego ta Bearneko Konstanzaren semea zan.

1.254-1.288ko urte bitartean izango zan Bizkaitarren urrengo Jauna.

Edestilari batzuen gora beran, zortzigarren jauna izan zala diñue, jaun batzuk ez dabelzelako onartzen leenengo jaun lez. Nik eroaten dodan zerrendan, 13garren lekua betetan dabena.

(1) Ondoretzagaitik = corregimiento del señorío. (2) Erromatarren arbidetik = calzada romana. (3) Gero Bermeotik, salerosle-merkataritzak joan-eterkeko izango zan bidetik. (4) Umaje egiteko = rendir pleitesia. (5) papezko-bilgoagaz = rollos de papel. (6) Txuntxur-antzeko burtsareakaz = cofias-coniformes.

1.255eko urtean izendatu eban Bizkaiko Jaun lez, eta IIIIn Lopez'tar Diego bere aita il zanean, Gaztelako Xn Alfonso Jakintsuagaz euki zituzen artu emonak, txarrak izan ziran lez, bere jaunordezkoak Lizarrara eroan eben, euren serbitsua Nafarroako erregeari eskeintzeko.

1.255ko urtean, Xn. Alfonsok⁽¹⁾, Gaskuñako lurraldea Ingalaterrako I Rikardoren eskuetan itxi ebalako, Enrike erregearen anaia eta Aroko Lopez Diazek, Aragoiko errege I Jaime Menperatzailearengana joan ziran, alkartasunean artu eben erabagiagaz Gaztelako erregearen aurka egiteko.

1.256ko Epaillan Aragoiko erregea I Jaime, Gaztelako errege X Alfonsoren aita-gierraba izan zalako, onek Xn Alfonsori deituta, danak adiskidetuta geratu ziran.

Aurreragoau eta Gaztelako errege Xn Alfonsogaz bakeak eginda, beragandik lortu eban IIIIn Lopez Diaz ta Bearnoko Diego onek, bere aitak galdu ebazan Aroko uriaren fueroak ostera berrezkuratzea, eta bake ori ospatzeko, Xn Alfonsoren seme Zerdako Fernandok, IIIIn Diego zaldunzkoa izendatu eban.

1.256an Otsaillaren 5ean, X Alfonsok Urduñako Iribilduari, ostera emon etutsoezan kendutako Gazteizko foruak, eta Urduña ta Balmaseda Lope Diazen eskuetara ez ziran ostera itzuli, areik eta 1.274an, X Alfonsoren aurka egon ziran eztaibadak amaitu arte.

1.269ko urterarte ez eban artu zaldun mailla Aroko III Lope Diazek gaztea izan zalako, eta urte orreitan ezkontzen da Juana Alonsorekin Gaztelako erregetzaren baimenik euki bage, neskea egon zan Arroyoko San Andres Lekaidetxean, Leongo IXn Alfonsoren biloba eta Alfonso de Molina errege semearen alaba izan zanagaz.

1.270eko urte onetan borroka gogor bat egin zan Bizkaitarren artean, Santo Domingo gainean dagon Abril mendian, Zamudiokoak, Legizamon etxeokoren aurka.

Zamudiotarrak joan ziran irabazten borroka au, Legizamontarrak irabazi eban, danak guztiz nekatuta egon ziranean, Legizamonen loba Luzarratar Pedro 22 lagunekin agertuta, Zamudiokoak baiño geiago izanda menperatu ebazalako. Zamudiotarren aldetik 80 gizon ilda ta Legizamonen aldetik 10.

1.275eko urtean eta Zerdako Fernando il zanetik, Fernandoren seme Zerdako Alfonso eta bere osaba Santxo borrokan asi ziran, Gaztelako erregetzan nor izateagaitik.

Xn Alfonsok lenengoetan, Santxoren alde egoan lez, gure Bizkaitar Aroko Jauna be bere alde kokatu zan.

1.282ko urtean Xn Alfonso baiña, bere illoba Alfonsoren alde kokatu zan, gure IVn Diegori Aroko jauntza kenduta, Jaime errege-semearen alde. Jaime baiña, 18 urte euki zituzenean il zan lez, ez eban artu Aroko jabetasunik.

1.282ko Jorraillaren 21ean Xn Alfonsoren⁽²⁾ seme Santxok, Lope ta Gaztelako gortearen geienekin, aita kendu eben erregetzazko-aulkitik, eta bera geratu zan errege orde lez.

1.284an Jorraillaren 4an il zan Gaztelako X Alfonso eta bere bigarren seme IV Santxo⁽³⁾ *Suar Burua*⁽⁴⁾ izango zan Gaztelako errege.

(1) Xn Alfonso Jakintsua = 1.221-1.284ko urte bitartean bizi zana. (2) Xn. Alfonso = 1.221-1.284 urte bitartean bizi zana, eta errege lez, 1.252-1.284 urte bitartean. (3) IV Santxo 1.257'an jaioa eta 1.295an il, errege 1.284-1.295eko urte artean izanda. (4) "Suar-Buru" = cabeza brava.

IVn Santxo au, IIIIn Lopez Diaz emaztearen aizta Molina 'tar Mariagaz ezkondu-ta egon zan, eta IVn Lopez 'tar Diego, Santxo erregearen koñatu biurtu zan lez, onek izen aundia emon eutson, Gaztelako etxe-zaingoaz gain, Kantziller, Nagusitasunezko Alfereza, eta Aroko Jauntza berrezkuratuta, Burgosetik Kantaurirauñoko jaurkintza emon eutsolako.

1.287ko urtean IVn Lopeztar Diego, Gaztelako erregetzaren ordezkoa biurtu zan, Astorgako gotzain Gonzaleztar Martiñegaz batera.

1.287ko Urtarrillaren 1ean Gaztelako IV Santxok, Lope bitartez euki eban laguntza erregetzara igoteko, eta lagun aundiak izan da, Aroko Lope Diaz konde izendatu eban, ostera berrezkuratuta Gaztelan bere aurreko arotarrak euki ebezan alferazgo eta aundikizko ardura guztiak.

1.287ko Loraillaren egunetan Lope Diaz, IV Santxo erregeagaz ostera asarratzen da, eta errege seme⁽¹⁾ zan Juan bere suñegaz, gortetik urruntzen dira.

1.287ko urte berean eta Ekaiñaren 6an Aroko Lope Diaz Bizkaitarren jauna, Burgosera joanda, XIIIIn gizaldian Fenestosa edo Frenestosa, Finestosa edo Finestrosako erri esaten eutsoenai, gaur Lanestosa erriko izenagaz esetzen doguna, Iribildu eban. Eta siñatu eben agirian, Aroko konde ta Bizkaiko Jaun lez agertzen da.

Ortik aurrera, Lanestosa, Lope leiñuko izan zan jabetasunetik, Bizkaitarren jauntzara aldatu zan, eta Urduñagaz batera beti geratu dira Bizkaitarren jabetzan.

Aroko Lope Diaz jaunai, andizalezko norkerian zirikituta, ez eutson ardura aundirik emon, IVn. Santxok emon eutsozan ardura andiko aginpide truke, agirian ipini eban baldintzari: ***Beren serbitzura egongo zala beti, eta emon eban berbeari uko egiten ba eutson, Bizkaiko jauntza, Gaztelako koroara aldatuko zala.***

Lope ez zan konturatuko, Bizkaia eta Gernikako batzar nagusiak ez zirala bereak, bera itzarmen bidez aukeratuta, artu ebazan Jauntzazko arduraren jabe baiño ez zalako izan.

Dana dala, ekitaldi orregaz, beren ondorengoak larrialdian kokatuta itxi ebazan. Eta norkeri orreitan sartuta, Alfaron sortuko jakona, bera konturatu barik prestuten asiko jakon.

Gaztelako IV Santxo erregea, beren gorteko andiki guztiakaz asarratuta, Lope ta Juan beren suñe artean zirala, IVn Santso bere emazte Andre Maria Alonsoren aolku bidez oartuta, Loperen eragipenetik zurtasunez aldatzea erabagi eban.

IV Santxo rregeak, IVn Lopeztar Diego Karrionera deituta eta beragaz solasean berba egiten dauala, beren suñe Juanek egiten ebazan kaineriagaitik itandu eutsoanean, Lopezek arrokeriz, begirunbageko erantzunak emon eutsozan, eta erregea ez bazan ezer gertatu lez, beren gelatarra joan zan.

1.288ko Ekaiñaren 8an IVn Santxo erregeak, gorteak Alfaron ospatzea erabagi eban, IVn Lopeztar Diego ta Juan bere suñeri be, deituta.

Danak batzartuta egon ziranean, IV Santxo premiña baten aitzakiagaz, bera etorten zanerako, erabagi bat artuta euki egiela agindu eutsoen.

(1) Errege-seme = infante.

Erregearen premiña baiña, gazteluan zenbat eta zelako gudari ta zaldun mailla-koak euki

ebazan zaintzeko ikustea izan zan, eta oartuta bere aldekoak geiago zirala, ostera itzuli zan batzarrera.

Erregeak, errezel edo oialak zabaldu ondoren itandu eutsen: Artu dozue erabagirik ?.

Sartu ta esango jatzu, erantzun eutsoen batzartuta egon ziranak.

Erregeak: Ba ni, beste gogapen bategaz nator, zuek biok nigaz emen geratzea, nere gaztelu guztiak ostera itzuli arte.

IVn Lopeztar Diegoren erantzuna: Atxilotuak ala ?. Eta Lopek beren guda mullai deituta, erregeari aizto edo laban bategaz keiñatzaille dagoela, erregearen zaldun batek ezpateagaz eskua ebagi eutson, eta lurrean dagoela guda makil bategaz buruan jota il eben.

Bizkaiko Jaun IV Lope Diaz eta bere emazte Molinako Juana Alonsok, seme alaba bi euki ebazan:

1.289ko urtean Aroko IVn Lopeztar Diego, bere gaztetasunezko urte onetan ondorego barik il zana.

Eta Aroko I Maria Diaz⁽¹⁾, Gaztelako errege seme izan zan I Juanegaz ezkonduko zana.

1.289ko urtean il zan Bizkaiko Jauna, Aroko IIIIn Lopez ta Bearnetar Diaz au, eta ilketa orren ondore, IVn Lopeztar Diego eta bere arreba Aroko Diaztar Mariaren artean asi ziran epaiketazko leiak Bizkaiko Jauntzagaitik, Maria bere senar Gaztelako erregearen seme Juanengaitik lagunduta.

14gn. Jauna Bizkaiko jauntzan.

1.288-1.289, edo 1.288-1.292ko urte bitartean?. IIIIn Lope izenaren Aroko Lopeztar Diazen ondorengoa eta Gaztelako erregearen alaba Alonsotar Juanaren semea izan zan, edestilarien zerrendan bederatzigarren Bizkaiko jaun au.

Gaztelako IV Santxok, IIIIn Aroko Lope Diaz kondea maltzurkeriz il ebanean, Bizkaia ta Gaztelako adiskidetasuna apurtu zan. Eta IIIIn Lope Diaz'en seme Aroko IV Diego Lopezek, Nafar ta Aragoitarrakaz alkartu zan IV Santxoren aurka egiteko, eta Gaztelako errege aulkian, Alfonso de la Zerda ipinteko.

Alfonso de la Zerda, Gaztelako errege IV Santxoren anai zarragoa izan zan, eta Aroko IVn. Diego Lopezek bere Bearneko lengusuagaz euki eben alkarteekin, Gaztelako errege izendatu eben.

Eta 1.292ean Aragoien gudarako antolatzen egoala, IVn Diego ondorengo barik il zan, bere ondorengotasuna zalantza askokoa biurtuta, Gaztelako IVn Santxo Bizkaian sartu zalako.

(1) Aroko Diaz'tar Maria = 1.270-1.342ko urte bitartean bizi zana eta Gaztelako Xn Alfonso Jakintsuaren seme Juanegaz ezkondu zana.

15gn. Jauna Bizkaiko jauntzan.

Aroko IV Diego Lopez il zanean, Bizkaiko jauntza Aroko I Maria Diazeri egokitzen jakon, amargarrenengo Andre-Jaun lez. Baiña bera Nafarroan egonda, beren senarra Juan, Alfaron atxilotuta, eta ezeren laguntza barik, ez eben euki, Bizkaiko jauntza etenbago eskatzea baiño beste aukerarik.

1.292ko urte inguruan, Aroko V Diego Lopez⁽¹⁾, Aroko IIIIn Lope Diazen anaia eta Mariaren osaba maltzurkeriz, Bizkaiko jauntza bereganatzen asi zan, bere ustez, Mariaren aurretik bera izan zalako Bizkaiko Jauna.

Eta 1.293an Bizkaitarrak onartuta lortu be, Bizkaiko jauna beren eriotzerarte izatea.

Onen aitzakia, Aragoiko legeak emakumeai debekatzen eutsielako, errege edo jauntzazko jaur-jabetzakaz arduratzea izan zan.

Denbora onetan, Gaztela, Aragoi, ta Arotar eurak be, andi nai izan gurean, euren artean zirriborrotuta, Bizkaiko Batzarrak kontuan artu gabe ibili ziran antza. Baiña gero ikusiko doguz, zelan zuzentzen ziran okerkeri orreik gure Bizkaiko Jauntzan.

Vn Diego Lopez onek, itsasbazterrari emon eutson garrantzi aundia, ta 1.237an Bermeo Iribildu ta portu lez antolatuta egon ba zan be, sasi-jaun esaten eutsoen, Vn. Diego Lopez onek, aaztuta egoalako beren aitonak Plentzia Iribilduta euki ebal, 1.299ko Urrillaren 5ean berak ostera Iribiltzeko Logroñoeko foruakaz.

Eta Bilbaoko erritarrak eskatuta, nai onarte kai edo portua eta ibaiaren albo biak, ezker aldean Abandoko eleiz aurrekoa, eta eskoma aldekoa Begoñaren eleiz aurrekoagaz naiko jendetsuakin bizitza euki.

1.300ko Ekaiñaren 15ean Begoñako eskoma aldea⁽²⁾, Logroñoeko foruakaz Iribildu eban, Bizkaiko mugaren askatasunezko política maillan gerorako ain garrantzizko gauza izango zan almenean, kai zabala izendatuta⁽³⁾.

1.301eko Urtarrillaren 4an Gaztelako errege IV Fernandok ainbat lege berezi ta emaitza emon eutsezan Bilboko erritarrak, Uria aundiagotu zedin.

1.310eko Urtarrillaren lenengo egunetan Gaztelako IVn Fernandori, Aljeziraseko Uria inguratzezko guda-lanetan laguntzen egoala il zan Aroko Vn Diego Lopez, eta beren gorputza, Burgoseko Frantzizkotarren lekaidetxean illobiratu eben, edestilarien gora beran Bizkaiko amargarren jaun au.

16gn. Jauna Bizkaiko Jauntzan.

1.287an Urtarrillaren 10an Aroko V Diego Lopez il da, ariñagotik ikusi dogu Aroko I Maria Diazeri egokitzen jakola Bizkaiko Jauntza, eta au urte onetan, Gaztelako errege X Alfonsoren seme Juanegaz eskonduta, bera daukagu amaseigarren Bizkaiko Jaun lez.

1.288ko urtean Mariaren aita Aroko IIIIn Lope Diaz Bizkaiko Jauna, eta IV Santxo Gaztelako erregea il ondoren, bere senarra Juan, IV Santxo anaia zanagaitik atxi-

(1) Aroko Vn Lopeztar Diego "Sasi- Jaun edo Sarkoia" esaten eutsenai = 1.250-1.310 urte bitartean bizi zan, eta Bizkaiko Jaun lez 1.295-1.310ko urte bitartean. (1) Begoñako eskuñ-aldea = Bilbo-zaarren aurrez egoana. (frente a Bilbao la vieja). (2) Kai-zabala = puerto-franco, libre de impuestos.

lotu euki arren, eta Bizkaiko Jaun Aroko IV Diego Lopez izango zana gaixorik il da, Aroko I Mariari egokitzen jakon Bizkaiko Jauntza amargarren Andre-Jaun lez.

1.295eko urtean Jorraillaren 25eko egunean il zan Gaztelako errege IVn Santxo "Bioztuna", eta Gaztelako gortean IVn Fernando erregea, gaztea zalako sortu ziran arazoakin, Aroko Lopeztar Diegok aukera orreikaz baliotuz, Aroko I Diaztar Mariak, Juan bere senarra Alfaroko borrokatik espetxeratuta egon zalako, Bizkaian sartu zan ezeren aurkakorik bage.

Eta Mariaren senar ta errege seme Juan onek espetxetik urten ebanean Bizkaiko Jauntza bere emaztearen ardurapean ezartzeko, orduan Gaztelako Fernandoren errege ordegotzan egon zan bere ama Molina 'tar Mariaren aurka joanda, onek, Aroko Vn Lopeztar diegoren laguntza artu eban, eta Aroko Diaztar Maria ta bere senar Juanek, ez eben iñungo aukerarik euki Bizkaiko jauntzagaz jabetzeko.

1.300eko urtean Bagillaren 15eko egunean, Aroko Vn Lopeztar Diegok, Iribildu eban Bilbaoko kaiaren auzotasuna.

1.307ko urtean Aroko Vn Lopeztar Diego onek, Aroko Diaztar Mariarekin alkar-tuta, au Bizkaiko Jauntzan bere ondorengo izan egian erabagi eban, Gaztelako errege izando zan XI Alfonso bitartekoa zala.

Baiña beren senarra Gaztelako erregearen seme Juanek ezin eben artu Bizkaiko Jauntza, arik eta 1.310ean Urtarrillaren lenengo egunetan Aroko V Diego Lopez il zan arte.

1.310eko urtean Urtarrillaren lenengo egunetan il zan Aroko Vn Lopeztar Diego, mauritarrak Aljezisetik bialtzeko, Gaztelako errege IVn Fernandori laguntzen egoala.

Eta 1.310eko urte onetan artu eban Aroko Diaztar I Mariak Bizkaiko jauntzaren jaurkintza, Bizkaiko amabigarreneko Andre Jaun lez. Lenengo txandan, 1.322ko urterarte iraun ebena, bera errigizarteko arduratik baztartuta, bere seme Juanen eskuetan itzi ebalako.

Gaztelako errege seme Juan au, alargunduta eta seme batekin egoan, Aroko I Mariagaz ezkondu zanean, eta bion artean iru seme alaba euki ebezan:

-Nagusiena, Lope gazterik il zana.

-Bigarrena, Aroko II Andre Maria izango zana ta Nuñez de Laratar Juanegaz ez-konduta egoana.

-Irugarrena, D. Juan *Begi-bakarra* esaten eutsienai, eta ama Aroko I Mariak, beren arrebaren aurretik onartu ebana Bizkaiko Jauna izan zedin, Portugaleko Isabel erregearen alabeagaz ezkondu zana, ta euki eben alaba, Aroko II Maria izango zan Bizkaiko Jauntzaren ondorengo.

1.348ko urtean Iraillaren 16ko egunean il zan Aroko Igo Diaztar Maria bere seme Nuño Diaz euki ta egun gitxi barru. Bizkaiko Jauntzan amaikagarren Andre-Jauna zana.

1.350eko Ekaiñaren 26an Xn Alfonso erregearen seme Juan, Aroko I Mariaren senarra, eta Gaztelako errege izan zan XIn Alfonso gaztearen aita ordeagaz, Grana-dako ibarrean moruen aurka borrokan egoala il zan, eta Burgoseko Frantzizkotarren lekaidetxean illobiratu eben.

Nafar errege leiñua osterartuta.

Txanpaña ta Brieko kondea Nafarroako errege I Luisen izenagaz.

1.289ko Urrillaren 4an Paris´en jαιο zan, Nafarroako errege, eta Txanpaña ta Brieko kondea I Luis, gero Frantziko errege Xn Luisen izenagaz esagutu zan *Buru-Gogor* au, eta 1.316ko urtean Bagillaren 5ean Binzennes´en⁽¹⁾ il.

1.305eko urtean egin eben Nafarroako errege.

Eta 1.314ko urtetik beren eriotzerarte Frantziko errege, Xn Luis Buru Gogorraren izenagaz.

Frantziko IVn Felipe erregea eta Nafarroako erregiña, I Juana Txanpaña ta Brieko konde-Andrearen bigarren seme ta lenengo mutikoa izan zan.

1.305eko urtean Jorraillaren 4an bere ama I Juana il zanean egin eben Nafarroako errege ondorengo lez.

1.305eko urtean ezkondu zan Borgoñako Margaritagaz, Borgoñako IIn Roberto dukea eta Frantziko Ines´en alabea zanagaz⁽²⁾.

Borgoñako Margarita au, beren koñataren laguntzagaz, Nesleko dorrean egiten ebazan ezkon-loikeriagaitik, Margarita Gaillard´eko Txateau errian atxilotu eben, eta berton esaten dabe ito-erazi ebela bere senarraren aginduz.

1.311ko urtean ezkontza onetatik, gero 1.328-1.349 urte bitartean Nafar erregetzan, IIn Juana erregiña izando zana jαιο zan.

1.314ko urtean bederatzi urte geroago, bere aita Frantziko Vn Felipe il zanean, Frantziko errege egin eben Xn Luis´en izenagaz.

Bere erregetzan, zerbitzariak askatu ebazan, eta bere aitak Frantzitik atzerriratu ebazan juduak, berriz ekarri egiezen agindu eban.

1.315eko urtean Nafar eta Frantziko Xn Luis au, bigarrenez ezkontzen da Ungriako Klemenziagaz, Anjou-Siziliako dukea eta Ungria ta Kalabriako errege Karlos Martel ta Absburgoko Klemenziaren alabeagaz.

1.316-1.316ko urte onetan eskontza onetatik, eta Xn Luis aita bost illabete geroago pozoituta il zanetik, jaioko zan *il-ondoko* Juan esaten eutsoenai, jαιο ta egun batzuk geroago il zalako.

(1)Baleiteke pozoituta. (2) Frantziko Ines´en alaba = 1.260-1.325eko urte bitartean bizi zana.

Txanpaña ta Brieko kondea, Frantzia ta Nafarroako errege il-ondoko I Juanen izenagaz.

1.316ko urtean Azaroaren 15ean Paris'en jaio zan I il-ondoko Juan au.

Eta 1.316ko urtean Azaroaren 20an Paris'en il zan Kapetoko leiñuaren I Juan. Eta Saint

Nafarroako errege ta Txanpaña ta Brieko kondea I Luis

Eta 1.314ko urtetik aurrera Frantziko errege Xn Luis'en izenagaz



Frantziko Xn Luis'en argazkia, Bibliothèque Nationale de France



Frantziko errege Xn Luis'en aramarria eta erredola lez, bere zainpea

Denis'eko Eleiz-Nagusian illobiratu eben.

Bere ondorengo lez, aitarek aldetik beren osaba izan zan Poitiers'eko Vn Felipe kondea egin eben errege, bere lobaren erregezko-ordegotza bete egiten ebanean.

Kondaira luze bat dago ondorengotasun oneitan, I Juan il zanean, Borgoñako IVn Kondeak, Xn Luis eta Borgoñako Margaritak euki eben lenengo neskeagaitik erasoan asi zalako, bere loba izan zanaren aurka.

(1) In Karlos Txarra = 1.332-1.387ko urte bitartean bizi zana. (2) Frantziko errege VIn Felipe In Karlosen lengusua = 1.293-1.350ko urte bitartean bizi zana.

Neska au, Borgoñako Margarita erregeñak Nesleko dorrean egineko ezkon loieriaren denborakua izan zalako, ez eutsoen onartu eta Felipe bere osabea egin eben errege.

Badagoz Maurize Dron´ek batutako beste pozoitasunezko kondaira zikin batzuk, idatzi eban *Los Reyes Malditos*´eko liburuan IVn Inozenzio Aita Santuak be aipatzen dauana, baiña or itziko doguz, zikinkerizko gauzatan naiko irumenduta daukulako edesti au.

Vn Felipe Luzea, Txanpaña ta Brieko kondea, Nafar eta Frantziko erregea.

1.292ko urtean, Frantziko Lionen jaio zan, eta 1.322ko urtean Urtarrillaren 3an Lontxanps´en il.

Frantziko IVn Felipe eta Nafarroako I Juanaren semea zan, Frantziko Xn Luis´en anaia eta Frantziko I Juanen osaba.

Frantziko IVn Felipe bere aitak izendatu eban Poitiers´eko kondea, eta bere anai nagusiagaitik Frantziko erregetzaren bardiña⁽¹⁾.

Borgoñako Juanagaz ezkondu zanean, Borgoñako jauregiaren kondea, ta 1.316-1.322ko urte bitartean Kapetoaren errege leiñuan, 14garren errege izan zana IVn Feliperen izenagaz eta Nafarroako errege IIn Feliperen izenagaz.

1.307ko urtean ezkondu zan Vn Felipe au, Borgoñako IIn Juanagaz⁽²⁾.

1.314ko urtean bere aita IVn Felipe il zanean baieztuta egon zan bere ondorengotasuna, mutillezko erregearen seme artean bigarrena izan zalako, bere anai I Luis Buru Gogorraren ostean, au errege egin ebenean illabete gitxi barru il zalako.

1.316ko urtean Frantziko Xn Luisek, alaba bat bakarrik euki eban, Juana, bere buruzalantza asko egonda, Xn Luis Ungriako Klemeziagaz bigarrenez ezkondu zanean, au aurdun egoalako.

1.316ko urtearen Azaroko 15ean jaio zan Frantziko erregearen seme I Juan, jaiotzatik bost egunera il zana. Pozoituta il zala esaten dabe batzuk.

Juana gazte zala ta, Poitiers´eko Felipek, geiago egin eutson Juanaren errege orde izan zan Borgoñako IVn Odoneri, bere semeagaz ezkontzeko eukena.

Eta 1.317ko urtean Urtarrillaren 6an Reims´eko Notre-Dam eleiz nagusian ko-roatu eban Vn Felipe au errege, Kourtenay´tar Robert gongotzaiñak edo artx-apezpi-kuak.

1.317ko urtean Otsaillaren 2an Vn Felipe onek, Pariseko orokorrezko gorteak batu ebazan, eta erregetzarako bere loba Juanaren baiño legezko gaitasun obeagoa argitu ta gero, 987ko urtetik egon zan ezereztutako Salikako legea biztu eban, eta lege orreri esker, ez eben erregetzara igon berak eukezan alabak, bere eriotzaren ondorengoa, IVn Karlos bere anaia izendatu ebelako.

(1) Bardiña = Par del reino de Francia. (2) Borgoñako IIn Juana = 1.291-1.330ko urte bitartean bici zana. 1.315-1.330eko urte bitartean Borgoñako condesaren izena artu eban. 1.329-1.330ko urte bitartean Artoiseko konde Andrea I Juanaren izenagaz.

1.317ko urtean Vn Felipek, Frantziko zaldun nagusiak arteztu edo beren agindupera ekartea lortu eban, Nebers'eko Luis menderatu ondoren.

1.318ko urtean Vn Felipek, berriztu eban Eskoziakin len eukien elkargoa.

1.320ko urtean Loraillaren 5ean Vn Felipek, Flandeseko IIIIn Robertogaz borrokan ibili ta gero, onek, Uri nagusiaren gaztelua etsaimendu eutson, berari mendeko ziñ-eginda.

1.320ko urtearen Bagillako 2an, Vn Felipek trebetasun aundiz, flandestarrakin euki ebazan eztabaidak, zurtasun edo giza legez konpondu ebazan.

Eta 1.320ko urte orretan Vn Felipek flandestarrakin, IVn Felipek asi ebazan borrokak amaituta, Flandeseko lurralde batzukin geratu zan.

1.320ko urte orretan Bagillaren 29an Vn Felipek, Ingalaterrako errege ta bere koñatu izan zan IIIn Eduardo Amienseko eleiz nagusian onartu eban, Guyenako dukerri, Pontieuko konderri, ta Montreuileko uri nagusiagaitik egin ebazan ziñ-egiteak ospatzeko.

Vn Felipe, indarrezko agintari, maltzur, arriskuzko, ausarti ta ulermen aundiko gizona zan, erabagi ta egiten ebazan gauzak egiteko.

1.320ko urtean Beljikako Tournai Uria alkartu eban Frantziko erregetzagaz, eta menderatu ebazan, artzaiñ ta legendunak⁽¹⁾ egin eutsoezan matxintasunak.

Orokorrezko laterriak batu ebazan sarritan, erriko gudari talde ugari antolatu ebazan, eta Juduari zerga askogaz beartu, bere aitak eroan eban jaurkintzagaz aurrera egin da.

Vn Felipe, 1.307ko urtean IIIn Juanaren ezkontza bidez, zazpi seme-alaba Auki zituzten:

Juana, 1.308-1.349ko urte bitartean bizi zana. IIIIn Juana izenagaz Borgoñako konde Andrea zana. IIIn Juanaren izenagaz, Artoiseko konde Andrea, eta 1.318ko urtean IVn Eudes Borgoñako dukearekin ezkondu zana.

Margarita, 1.309-1.382ko urte bitartean, Loraillaren 9ko egunarteraño bizi zana. 1.320ko urtean Flandeseko I Luisegaz ezkondu zana. 1.361-1.346ko urte bitartean Borgoña ta Artoiseko konde Andrea zana.

Isabel, 1.312-1.348ko urte bitartean bizi zana. 1.323ko urtean Bienako VIIIIn Giges delfiñagaz ezkondu zana, eta 1.335ko urtean Faukogney'ko Jaun, IIIIn Juanegaz.

Blanka, 1.313-1.358ko urte bitartean bizi zana.

Felipe, 1.313-1.321eko urte bitartean bizi zana.

Luis Felipe, 1.316-1.317ko urte bitartean bizi zana.

Eta Juana, 1.317ko urte inguruan il zana.

1.321eko urtearen Dagonillan gaisotu zan Vn Felipe zukar eta berakoagaz.

Eta 1.322ko urtean Urtarrillaren 3an bost illabete beranduago, Longtxanen il zan giza semerik bage, Frantziko Koroia bere anai IVn Karlosen eskuetara joanda, berak bizkortu eban Lege Salikaren bidez.

(1) Legendunak = leprosoak.

Saint-Deniseko eleizan illobiratu eben bere gorpua, arik eta 1.793ko urtean iraultzako matxinatuak, eleiz orreitan egon ziran erregezko illobiak ezereztu arte.

Barriz, Bizkaiko jauntzaren leiñua artuta.

17n Jauna Bizkaiko Jauntzan.

1.319ko Ekaiñaren 26an, Aroko I Mariaren senarra Juan il zanean, euren seme Aroko Juan **Begi Bakarra** izan zan Bizkaiko Jauntzan edestilarien gora beran, amabigarren jauna.

Aro 'ko Juan, Portugaleko errege Alfosoren Isabel alabeagaz ezkondu zan, eta laster be alargundu, Aroko II Maria Diaz alabea eukinda.

Juan Begi Bakarrak, Gaztelatarrakin ainbeste zeregin, moruekaz eta gortean euki eben XI In Alfonso errege gaztearen aita-ordezkoztagaz, baita Bizkaian beste aldetik, Oñaz eta Ganboa alderditarren artean ainbeste borroka egonda, Aroko I Maria Diaz esan leike, Bizkaitarren tituludunekoa izanaz, arduratu zala Bizkaitarren jaurkintzagaz, bere semea kanpotik ibili zan artean.

1.320an I Maria aita-ordezkoztan asi orduko, Erreterria Iribildu eban “Villa Nueva de Oiarso”ko izenarekin. Erreterriko leen izena izanda baiña, gure egunetararte etorri jakuna.

1.320ko urte orretan, Martiartu ta Zamudiotarrak, Legizamon'en dorreari sua emon eta erre ondoren, bertan egon ziran Legizamontarrak il ebezan ume bat izan ezik, andra batek altzoan ostonduta eroan ebalako.

Aroko I Maria Diazek, gogaituta ainbeste ezinezko borrokarekin, ilteko agindua emon eban, zalatuta edo txar egiteagaitik, izendatuta⁽¹⁾ egon ziranai.

1.322an Aroko I Maria Diazek Portugaleteko ingurua Iribildu eban Logroñoeko fueroekin, erritarrai aginduta, Santa Mariari eskeiñitako eleiza eraiki eguela, Santurtziko amarraren alzatitik dirua emonda.

Iribilduaren agindu orrek ez dauka egun eta illerik, agiria uretara jausi zalako, baiña 1.333ko Ekaiñaren 11n egiten dauan eskutitzatik, esaten dau 1.322an agindu ori emon ebala.

1.322ko urte onetan eta erriko leiñuen ta Gaztelako bere leiñuakin ainbesteko borroka bidez gogaituta itzi eban Aroko I Maria Diazek Bizkaiko jaurkintza 1.310 1.322eko leen txanda onetan.

1.325eko Azaroaren 3an Aroko I Mariak, Paredes de Nabatik, Lekeitio Iribildu eban Logroñoeko fueroakaz.

1.326an, XI Alfonsok, Aroko Juan kendu ebalako euki ebazan alferazgo eta beste arduratik, au Gaztelako erregeagaz asarratuta, Aragoira urbildu zan Jaun Pedro errege semearen alabagaz ezkontzeko, eta Gaztelako errege XI Alfonsok, bildur zalako Juanek artuko eban indarragaz, maltzurkeriz ainbeste bider Torora joateko deituta Urriaren 31n Santu guztien egunerako, bertan il eban.

(1) Txar egindakoak, izendatuta egoteagaitik = acotados.

Aroko I Mariak, Gaztelako erregearen bildur, onek Bizkaiko jauntza berentzat gura ebalako, Juan begi-bakarraren alaba Aroko II Maria, Baionara eroan eban, eta an geratu zan bere ama orde Teresa de Lenizegaz, Gaztelako Juan Nuñez de Lararekin ezkondu zan arte.

1.326ko urte onetan artu eban ostera be Aroko I Maria Diazek, Bizkaiko jauntza-
ren jaurkintza, 1.334ko urterarte iraun ebena.

1.327an, Aroko I Maria Diaz Peraleseko lekaimetxean zokoratu zan, eta bertan egoala, Gaztelako XI In Alfonsok bialduta, II In Garzilaso de la Bega joan jakon Bizkaiko Jauntza erosten, eta Aroko I Maria gauzak beren lekuan eutsita, Gaztelan egoan Peraleseko lekaimetxea bertan itzi eta Nafarroako Lizarrara joan zan.

1.327ko Iraillaren 28an Lizarratik, Aroko I Mariak Ondarroa Iribildu eban.

1.342ko Azaroaren 3an il zan Aroko I Maria, Bizkaiko amaikagarren Andre Jauna.

IVn Karlos Frantziko errege lez eta I goa Nafarroako erregetzan.

1.294ko urtean Abenduaren 11ko egunean, Frantziaren Iparraldeko Oisen, Kreil'eko gazteluan, jaió zan Frantziko IVn eta Nafarroako erregetzan I go Karlos Ederren izenagaz ezagutuko zan errege au.

1.314ko urtetik, Martxeko kondearen andiki izenagaz jantzi eben.

1.322-1.328 urte bitartean, Frantziko errege izan zan, eta 1.328ko urtean Otsailaren 1ean Binzesnes'eko gazteluan il, Kapetoaren leiñuan 15n eta askeneko errege izando zana.

Frantzi ta Nafarroaren IVn Felipe Ederra eta Nafarroako I Juana erregeñaren semea zan.

1.307ko urtean IVn Karlos, Borgoñako Blankagaz⁽¹⁾ ezkontzen da.

1.314ko urtearen asieran zigortu ebena, ezkon-ausele⁽²⁾ izateagaitik.

XXII In Juanek aita santuaren aulkira igon ebenean, ezereztu eban ezkontza au, odol bardiñeko arazoaren aitzakiak ipini ondoren.

1.322ko urtean Otsailaren 21ean, XI-XIIIko gizaldian egineko Saint-Reims'eko eleiz nagusian koroatu eban Kourtenai'tar Roberto gongotzai edo artx-apezpikuak IVn Karlos au, bere anai Vn Felipe Luzeak ipini eban Salikako legearen bidetik, Vn Felipe Luze onek bere alabari Frantziaren erregetzazko bideak moztu ondoren.

IVn Karlosek erregetzazko aulkira igon ebenean, bere ariñauko errege Vn Felipe Luzeak esku zabalekua izan zalako, diru gitxigaz aurkeztuta, lonbardo diru-zaiñak zigortu ebazan ezin besterarte, eurak errukari izan ba ziran lez.

Auzi-epaikariekaz bardiñ eginda, de la Guett'tar Girard epailaria, Vn Felipe Luzearen diruaren arduradun nagusia izan zanari espetxean sartuta, 120.000 libera oker edo eralgi ebazalako⁽³⁾.

IVn Karlos Eder onen erregetzazko sei urteetan, zergak goraldtu ebazan ezin geia-
goan, beren gustukoak ez ziran nagusiái euki zituzen lurraldeak legez kendu eutsezan, eta ainbat giza seme zigortu ebazan lan astunekaz.

(1) Borgoñako Blanka = 1.296-1.326ko urte bitartean bizi zana. (2) Ezkontza-nasle edo ezkon-ausele izateagaitik = por adultera en su matrimonio con Karlos I de Navarra y IV de Francia. (3) Diruak, oker edo eralgi ebazalako = por malversar el dinero de las arcas del reino.

Frantziko eta Nafarroako errege IVn eta I Karlos onek, ainbat borroka euki zituzten Ingalaterrako II In Eduardogaz, Guyena ta Ponthieu 'ko lurraldearen jabetzagaitik.



IVn Karlos'en ezkontza Luxenburgoko Maria'rekin.

1.322ko urtean Iraillaren 21eko egunean, Melun'eko ekialdean dauan Probins'eko Urian ezkondu zan bigarrenez Luxenburgoko Maria'rekin, eta alaba bat euki eben, illabete gitzi barru ilgo zana.

Eta 1.323ko urtetik ingelezagaitik lagunduta egon ziran Gaskuñako Jaun batzuen bidez, Frantziko lurraldeetan asi ziran sartzen, Gaskoi oneik Frantziko errege orreik, Endesa edo sasikume lez euki ebazalako. Orregaitik deitu ziran borroka oneik, *sasikumeen borrokak*.

1.324ko urtearen Epaillako 21ean, Luxenburgoko Mariak, Indreko lurraldean Berry'ko Issoudun'era joan zala, eroan eben zalgurdia goraberatu zan, eta bertan il zan Maria, sabelean euken semeagaz.

1.325eko urtearen Uztaillako 13an, irugarrenez ezkontzen da bere lengusu Ebreux'eko Juana'rekin⁽¹⁾.

1.326ko urtean, bigarren alaba Maria⁽²⁾ emon eutsona.

1.327ko urtean IVn Karlos Eder onek, bere arreba Frantziko Isabeleri lagundu eutson⁽³⁾, bere senar Ingalaterrako II In Eduardogaz euki ebazan auziketetan.

Askenean IVn Karlosek, II In Eduardo atxilotu ta burua moztu eutson.

1.328ko urtearen Otsaillako 1ean IVn Karlos erregea il zanean, bere emazte Ebreux'eko Juana aurdun egon zan, ta itxaron bear izan eben jaio arte, ia Kapetoaren leiñua aurreantza egiten eban erregetzan edo berton ebagi ba ote zan euren leiñua, neskea izan ezkeru.

1.328ko urtearen Jorraillako 1ean jaio zan neska ume ori, Blanka izenekoa izan zana⁽⁴⁾, 1.345eko urtean Baloiseko VI Felipek semea zan Orleanseko Felipegaz ezkondu zana⁽⁵⁾.


1.328ko Jorraillaren 1ean Maria jaio zanean, Kapetoren leiñua amaitu zan, eta ararte Baloiseko Felipe Frantziko III In Felipeen billoba zana, IVn Felipek loba eta IVn Karlosen lengusua errege ordearen lanak egiten ebazanek, ondorengo lez ipini eben eta bera igon eban Frantziko erregetzara VI In Felipe izenarekin.

(1) Ebreux'eko Juana = 1.310-1.371eko urte bitartean bizi zana. (2) Maria = 1.327-1.341eko urte bitartean bizi zana. (3) Frantziko "Otso Emea" esaten eutsonari. (4) Blanka = 1.328-1.345eko urte bitartean bizi zana. (5) Orleans'eko Felipe = 1.336-1.375 urte bitartean bizi zana.

IVn Karlos, bere irugarren emazteagaz illobiratuta dago Saint-Deniseko eleiz nagusian.

Beste ondorengo batzuk be egon ziran erregetza ori beteteko, IVn Karlosen loba izan zan Ingalaterrako IIIIn Eduardo lez, baiña eme-leiñutik etortezan lez, ez eban euki aukerarik, eta alegiñ orreitatik etorriko ziran, zati baten leiñuzko borroka auek errudun zirala beintzat, sortu ziran 100 urteko borrokarenak.

IIn Juana Nafarroako erregiña.



IIn Juana Nafarroako erregiñaren armaría

1.311ko urtean Urtarrillaren 28an Frantziko Txarentoneko erriaren errixka baten dauan Konflanseko gazteluan jaio zan Nafarroako IIn Juana erregiñ au.

Eta 1.349ko urtean Urrillaren 6an, Brebalen il.

IIn Juana, Nafarroako erregetzan Ia eta Frantziko erregetzan Xn Luis Buru-gogorra, eta beren lenengo ezkontzako Borgoñako Margaritaren alaba izan zan.

1.328-1.349ko urte bitartean bete eban bere erregetza.

1.316ko urtean Bagillaren 5ean Nafarroan lenengoa ta Frantziko Xn Luis Buru Gogorra eta bere anaiorde I Juan il-ondorengoa il ziranean, IIn Juanaren ama Borgoñako Margarita ezkon-ause izateagaz sortu ebazan zalantzak, Juana bere alaba sei urte euki zituzenean, bere erregetzazko eskubideetatik alboratu eben, bere osaba Frantziko Vn Felipeen alde.

1.317ko urtearen Otsaillan Vn Felipe onen erregetza, baieztuta geratu zan Pariseko Orokorrezko Laterrien batzarra ospatu zanean, Frantziko erregetzan, debekatuta geratu zalako andraskoaren erregetza.

IIn Juanari, ez eutsoen Nafarroako erregetza debekatu, naita urte bian itxaron bear, arik eta onartuarde.

1.322ko urtean Urtarrillaren 3an Frantziko Vn Felipe ta Nafarroako IIn Felipe au il zanean, bere anai eta IIn Juanaren osaba, Nafarroako Igo eta Frantziko IVn Karlosen izenakin ezagutuko zana igon eban Frantzia eta Nafarroako erregetzara.

1.328ko urtean Frantzian, oar-gabeko zirkiñak⁽¹⁾ lez, eta juduaren aurka egiten ziran jarraialdien⁽²⁾ antzera, Nafarroako erri-batzar batzuetatik zirikituta asi ziran juduaren aurkako jarraiketak, eta Lizarra, Muskaria⁽³⁾, Iruña eta Sangesako juduaren batzarrak⁽⁴⁾ asi ziran euren babeserako, euki ebezan gudari-taldeak sendotzen.

1.328ko Epaillan ata guzti, zuurtasun guzti orreik ez eben ezertarako balio, Ollogoyentar Pedro lekaideak zirikituta, juduaren aurkako mantxintasuna sortu ebalako, Artajona, Ribaforada, Buñuel, Kortés eta beste erri batzuk, euki eben jarraipena salata.

(1) Oar-gabeko zirkiñak lez = como movimiento reflejo de las persecuciones que los judios sufrían en Francia. (2) Jarraiketa = persecución. (3) Muskaria = Tudela. (4) Juduaren batzarrak = Aljamas, sinagogaz.

Jaurleriak, nai Muskariako juduaren artean egiten ebazan sarrasketak geratzeko joan arren, eta Lizarra, Biana, Billafranka, Gares, Funes eta San Adrianeko judu-ilketak ikusi ondoren, oneik Aragoira iges egin eben, IVn Alfonsok emon eutsoen babespeagaz askatzeko.

Eta 1.328ko urtean, Frantziko IVn ta Nafarroako I Karlos il zanean, Frantziko erregetza ondorengotasunezko zalantzan geratu zan, erregetzazko ondorengotasun bi orreik, batzuk banatu gura ebazalako.

1.328ko urteen Epaillan, Nafarroako gortearen Zaldun eta Urien arduradunak Garesen⁽¹⁾ batzartuta, erregetzazko bien ondorengotasuna, batera eroatea erabagi zan, Karlos erregearen jaurleri Rabastens´tar Pedro Ramon eukan arduratik kenduta eta bere orde, Korbaran de Leet´tar Juan eta Martinez de Medrano ipinita bere lekuan, II In Juana eta bere senar Ebreux´eko Feleiperi deituta Nafarroako erregeak zitezen.

1.329ko urtean Epaillako 5ean beste aldetik, Frantziko Lainen Saint-Germain´eko aolkularitzaren batzar nagusian alkartuta, Frantziko VI In Felipe errege zala, Juana eta bere senar Felipe´ren erregetzazko Nafar eskubideak onartzea erabagi eban.

1.329ko Lorailaren 1erako Nafarroan, errege ordezkioak egiten ebazanak au ikusita, erregetzazko gortearen batzarrak ospatu ebazan, bertan II Juana ta Felipe errege lez onartuta, eta deitu ebazan Nafarroara joateko errege lez ziñ egien.

1.329ko urteko Uztaillan, II In Juana ta Felipe, Frantziko errege VI In Felipegaz alkartuta, Nafarroako erregeak izango zirala erabagi eben, eurak Frantziko errege lez, Txanpaña ta Brieko konderriari uko egiten ba eutsoen, Angulema ta Mortaineko konderriaren orde.

1.329ko urtean Jorraillaren illean Nafar erregeak Iruñan egon zirala eta ikusi ondoren juduakaz zer gertatzen zan, auzi-etxe barri bat eraikitea erabagi eben, Dignon´tar Guiralt eta Bast kalonjearen aginduan ipinita, ordalkeri orre in errudunak arrapatuko.

Auzitegi orrek iker-bidez, artzainketazko lepoetan botaten ebazan erruak kenduta, laster aurkitu ebazan gorteko jendeen artean nortzuk ziran errudunak, eta Ollogoyen´tar Pedro lekaidea salatuta, matxintasun orre in errukari lez, Lizarran atxilotu ondoren, Iruñako gotzaiñarengana bialdu eben, onek gotzaitegiko-espexean sartuta.

Juduak ata guzti, ordainkatu barik geratu ziran, zigortasunezko diru guztiak Nafarroako gortean geratu ziralako, ondorengo barik il ziran juduaren diruak Nafarroako erregeiñak artuta.

1.330eko urtean Epaillaren 5ean ziñ egin eben Nafarroako errege izateko, II In Juana eta III In Felipe izenakin.

II In Juana eta III In Felipe oneik, iru illabete barru urten eben Nafarroatik Frantzira, eurak Frantzian euki zituzen ainbat lurralde zaintzeko, eta Frantitik jaurkitu eben Nafarroako erregetza eurak il ziran arte.

Nafar erregetzaren agintaritzza sendotzeko euren jaurkintzazko lanetatik aipatu leikena, 34 txatal barriakaz egin eben Nafartarren orokorrezko Foru legueen oberaldia,

(1) Nafarroako Gares edo Erregeiñ Zubiaren erria = Puente La reina, pueblo de Navarra.

Zaldunak euki eben agintaritzatik, Nafarroaren Zangotzako merindade eta Esteribar-ko ibarrean daua Larrasoañako errian gorteak batuta, baieztu zana.

Bardin egin eben errico aberatsakaz be, euren arduradunak gortetako batzarretara eroanda.

Baita aurrerakuntza batzuk be, erraltxo-zergaren salataritza obetuz⁽¹⁾, jaurkintzaz-ko zeregiñak erreztuteko.

Eta aolkularitzazko taldeak sortuz, erregetzaren aolkularitza, erregetzaren Gort edo auzi-etxe nagusia sortu eben lez.

1.334ko urtean asi zan, Gaztelako XIIn Alfonsogaz egin eben borroka.

Eta 1.334ko urte berean, Konstantinoplan asi zan elderri edo izurri baltza⁽²⁾, 20 urtetan Europako gizaren artean sortu eben eriozkortasunagaz, %'tik 75eko neurrian moztu eban.

1.335eko urtean amaitu ebezan Nafartarrak, Gaztelako XIIn Alfonsogaz asi ebezan borrokak, Fiteroko lekaidetxea eta Tudugeneko gaztelua Nafartar erregearen eskuetan geratuz.

1.336ko urtean, Iruñako Nafar juduari, ormakin ingurututako batzar baten antzera bizitzen, beartu ebazan.

1.339-1.344ko urte bitartean, 1.219ko urtean egin zan Orreagako lekaidetxea barriztu eben.

Eta 1.343ko urtean Benimerinaren aurka egindako Saladoko borroka ostean itzuli zan IIIIn Felipe Nafarroara, Nafar gudaloztearen aurrean ipinita, Gaztelako XIIn Alfonsori gurutz sakratu gudalozte lez laguntzen, Aljezirasen egon ziran mauritarrak botateko.

Eta borroka orretan zaurituta, Jerez'eko errian il zan IIIIn Felipe Nafarroako erregea.

1.349ko urtean, Europa guztitik zabaldu zan izurri edo elderri-baltza, kalte geien, Nafarroako judu-auzoetatik eginda.

1.349ko urtean Urrillaren 6an Parisen ondoan dauan Brebaleko gazteluan il zan IIn Juana, elderri-baltz zitalagaz kutsututa, Parisko Saint Denis eleiz nagusian illobiratuta.

Eta IIn Juana il zanean artu eben bere seme IIn Karlos gizon adintsu lez, 17 urte bete zituzelako.

1.328-1.349ko urte bitartean izan zan Nafarroako erregiña.

Eta 1.328-1.349en 20urteko bitarte orreitan egin jakozan zigortasun aundienak Nafarroako erritarren artean egon zan gaizkintasunari.

1.350ko urtean, 53.000 biztanleko erri baten, 1.636 txarkeri zenbatu egin ziran, % 50 ilketazko ta borroka gogorrak izan zirenetik, aipamen berezian, lapurkerizkoak izanda.

(1) erraltxo-zergaren salataritza = tareas de fiscalidad. (2) Eldrri edo izurri balaza = peste bubónica, o, peste negra que asoló a Europa durante 20 años.

Erregetza onetatik agertzen da, pelota-jokuaren lenengo aipamena, dominikoaren kalostrean⁽¹⁾ egin zan zabalko edo trapa⁽²⁾ baten, erregeak “a la palma”ko jokua edo *esku-pelotea* ? ikusi egien.

IIIn Juana ta IIIIn Felipek euki zituzen alaba- semeak.

IIIn Juana sei urte eta IIIIn Felipek 12 urte euki zituzenean ezkondu ziran, eta euren ezkontzatik seme-alaba auek jaio ziran:

-*Ebreux'eko Juana*, 1.325-1.387ko urte bitartean Lonjtxanps'eko abat-eleizan lekaime lez bizi zana, eta naita 1.329ko urtean bere gurasoak Aragoiko erregeagaz bakeak egiteko IVn Pedrogaz ezkontzeko agindu, berak lekaime sartu zanean erregetzako ondorengo guztiak ukatu ebazalako, IVn Pedrogaz egon zan antolabide ori, bere aizta Mariari aldatu eutsoen.

-*Ebreux'eko Maria*, 1.330-1.347ko urte bitartean bizi zana, eta 1.338ko urtean Aragoiko IVn Karlos'ekin ezkondu zana, bere aizta juanak beren eskubikoari uko egin eutsonean.

-*Ebreux'eko Blanka*, 1.331-1.398ko urte bitartean bizi zana eta 1.349ko urtean Frantziko VIn Felipe erregeagaz ezkondu zana.

-*Ebreux'eko Karlos*, 1.332-1.387ko urte bitartean bizi zana eta Nafarroako errege zana IIIn Karlos'en izenarekin.

-*Ebreux'eko Ines*, 1.334-1.396ko urte bitartean bizi zana, eta Foix'eko konde ta Bearneko Bizkondea zan IIIIn Gaston'tar Febus'ekin ezkondu zana.

-*Ebreux'eko Felipe*, 1.336-1.363ko urte bitartean bizi zana, Longuebilleko konde lez.

-*Nafarroako Juana*, 1.339-1.403ko urte bitartean bizi zana IIIn Juana lez, bere aizta nagusiena be Juana deitzen zalako, Ron'eko Bizkondeagaz ezkondu.

-*Ebreux'eko Luis*, 1.341-1.372ko urte bitartean bizi zana Beaumont-le-Roger'tar Konde lez.

Bizkaiko Jauntzaren aria osterata artuta.

18n Bizkaiko Jauna.

1.334an, Aroko II Maria Diaz, Aroko Juan “Begi-bakarra”ren alaba, Nuñez de Laratar Juan, irugarren maillako lengusuagaz ezkontzen da. Eta bera izango zan edes-tilarien gora beran, 1.334-1.348ko urte bitartean Bizkaiko amairugarren Jauna.

Aroko I Maria Diazek orretarako, II Maria izendatuta euki eben ondorengo lez Bizkaiko Jauntzan, eta Bizkaiko Batzarra 'k on artuta, lau seme-alaba euki ebazan bere ezkontzan:

-*Lope, oso gazterik il zana.*

-*Juana.*

-*Isabel.*

-*Eta Nuño semea*, Aroko II Maria il orduko jaio zana, beren ondorengoa izanda.

Nuñez de Laratar Juanek, Pedro eta Diego semeak euki ebazan ezkontzatik kanpo.

Juanek, lenengoetan Gaztelako erregeagaz XI In Alfonsorekin asarratuta egon arren, Lermako inguratasunezko larrialdetik urten da adiskidetu ziran eta barriri emon eutsoezan bere aitagiñarrebak gaztelanian euki ebazan gazteluak eta erregetzaren alferazgoa.

1.338ko Dagonillaren 15ean, gaur Areatza esaten jakona, eta len Aroko izena euki ebana, Billaro iribildu eben Logroñoeko fueroakaz.

1.342an Nuñez de Laratar Juan, Gaztelako gortetan Bizkaiko Jauntzaren ize-nagaz ezagutzen zana, Bizkaiara etorri zan arduratuta, bertoko legeak ez ebazalako ezagutzen, eta batez be aukeramenezko foruak⁽¹⁾, larre-sari edo abeltsari⁽²⁾ ta zuzenbidetik⁽³⁾ dagokiena jakiteko.

Eta Bizkaiko-Batzarrean batuta, 37 legezko itun-atalak edo gaiak idatzi ziran.

Edestilari batzuk txarto ulertuta, *Bizkaitarrak idatzitako leenengo Forua* izan zala esaten dautsoenari.

Ez ziralako erabagitzat artu eta gitxiago *Foru-Orokortzat bildumatu*⁽⁴⁾.

1.342ko urte orretan, Aroko II Maria Diaz eta bere senar Nuñez de Laratar Juanek, Bizkaitarrak orokorrezko batzarrean batuta, ziñ egin ebezan gure Foru-Legeak.

Eta 1.346an VI Klemente Aita Santuarengandik, euren lengusutasunezko ezkontzaren baimena lortu eben.

1.346-1.347ko urte bitartean, Elgoibar Billa-mayor de Markina izenarekin, Logroñoeko foruan, eta Eibar ta Zumaia Donostiko foruan Iribildu ebazan.

1.348an Iraillaren 16an Aroko II Maria Diaz Palenzian illobiratuta dagoena, Nuño de Lara Diaz semea euki ta laster il zan. Eta Nuñez de Laratar Juan 1.350ko Azaroaren 28an. Beren gorpua Burgoseko San Pablo lekaidetxean illobiratuta dago.

19n Bizkaiko Jauna.

1.350eko Azaroaren 28an Nuñez de Laratar Juan il zanean, bere seme Nuño de Lara eta Diazeri iru urte eukazala egokitu jakon Bizkaiko jauntza, edestilarien gora beran, amalaugarrena zana.

Gaztelako errege I Pedro Odol-zale esaten eutsoenai, 17 urte euki ebazala, Nuñoren atzetik il naian ibilita, Ruiz de Abendañotar Martinen emazte Menziak, Paredes de Nabara eroan eban ostonduteko, eta or be larrialdian egoala konturatuta, Bizkaitarrak babestuta, Menzia bere zaindariagaz batera Bermeora eroan eben, Santa Gadea-raiño I Pedro atzetik euki ebala.

1.352ko Iraillaren 4an 5 urtegaz Bermeon egoala itsasora jausita il zan, ta beren gorpua Bermeoko Atalaiaan Santa Maria eleizan illobiratuta dago.

(1) Aukerazko-Foruak = Fueros de albedrio. (2) Larre-sari = montazgo. (3) Zuzenbidea = Justicia. (4) Foru Orokortzat artu eta gitxiago Bildumatu = no fueron reconocidos y menos en el libro foral recogidos.

Nafarroako erregearen aria ostera artuta.

IIn Karlos Nafar erregea.

IIn Karlos deritson Txar onen erregetza⁽¹⁾ zeaztuta idatzi ba gendun, oso luzea egingo jakun, mugimendu aundiko denborak ziralako Europaren inguru oneitan, garai orduko erregeak andikeriaren billa ibili ziralako.

IIn Juana eta IIIIn Ebreuxko Feliperen semea izanda, IIn Juana amaren aldetik Frantziko erregearen alaba bakar lez, Frantziko errege Xn Luis Buru gogorraren illo-baso edo billoba zan.

Baloisen erregetzazko denbora oneik, oso gogorrak izan ziran diru ta politikaren aldetik, geiago, Ingalaterragaz 100 urteko borrokak asi ziranetik, gero eta geiago gogortu ziranak, Ingelesak garaipen aundiak lortzen ebazalako.

IIn Karlosek, maldaberazko denbora txar auecas ausartuko zan, Frantziko erregetza beragantzeko, eta Frantziko erregetzaren aurka egiten eban zirikitatsunari ez eutson itziko, arik eta berak bizkortuta, Frantzia ta Ingalaterraren artean 100 urteko borrokakaz agertu ziran erritarren azarreak, Frantziko erregetzagaz euki ebazan esku-bide guztiak lortu arte.

1.316ko urtean Frantziko Xn Luis Buru Gogorra il zanean, Frantzian agertu eben Salikako legearen bidez, bere amari kendu eutsoen erregeña izateko euki eban ondorengo eskubidea.

1.316-1.322ko urte bitartean bere osaba Baloiseko VIIn Felipek eroan eban Frantziko jaurkintza, oraindiño bera ez zalako jaio.

Eta 1.322-1.328ko urte bitartean Frantziko Baloistar IVn Karlos ta I Karlos Nafarroako errege lez bere beste osaba.

Eta 1.328ko urtetik aurrera, Baloiseko bere lengusu VIIn Felipek⁽²⁾, bera 1.332ko urtean berandu jaiota, VIIn Felipek lau urteko erregetza eroan ebalako.

1.328ko urtean Frantziako IVn Karlos eta Igo Nafarroako erregea seme barik il zanean, Nafartarren jaurkintza Gares eta Iruñako gortetan batzartuta, Juana ta Felipe onartu ebezan Nafarroako errege lez.

Gero 1.328ko urte berean, Frantziko erregetzagaz jabetzea beartu eutsoen, Angulema Mortain eta Longebilleko Dukaterriaren truke, Felipek Txampana ta Brieko Konderriak emonda.

1.329ko urtean, Iruñan emon eben ziñezpena Nafarroako erregeak izateko.

Aipagarriak dira 1321-1328-1.349 arteko urte oneik, urduritasun aundikoak ziralako.

1.332eko urtean Urrillaren 10ean Jaio zan IIn Karlos Frantziko lurraldearen Ebreuxeko konderrian.

(1) IIn Karlos Txarra = 1.332-1.387ko urte bitartean bizi zana. (1) Frantziko erege VIIn Felipe IIn Karlosen lengusua = 1.293-1.350ko urte bitartean bizi zana.

1.336-1.387ko urte artean II n Karlos beartuta, Gaztelako I Pedro Odol-zalea-gaz⁽¹⁾ eta Aragoiko IV n Pedro zeremoni-zaleen⁽²⁾ artean, artekari lez agertu bear izan eban, gero denborak zelan etorten ziran, bategaz eta besteagaz beinbanan alkartzeko.

Jarrera orretan lotuta geratu zan, eta Frantzia, Aragoi ta Gaztelako erregetzak gero ta indar geiago artzen joan zirelako, irurak Nafar-erregetzazko jabetasunaren billa ibili ziran.

Nafarroa txikerra izanda eta Euskalerrria beste aukera barik bananduta egon zalako, denboraren etorkizuna izango zan bakarrik, baten edo bestien eskuetan jaustea.

Azken baten 1.512an eta lege guztien kanpo, buldazko exkomunikatuen trikimai-lluakiñ, Aragoiko II n Fernando izando zan guda bidez, Nafarroa menperatuko ebana.

1.343ko urtearen Iraillaren 23tik Ebrauxeko kondea egin eutsoen 1.378ko urterarte, urte onetan Frantziko V n karlos jabetu zalako konderrri orregaz.

1.349ko urtean, bere ama II n Juana il zanean, berari egokitzen jakon Nafarroako erregetza, eta erregetasunezko jaurkintz orregaz aurrera egingo eban, bera 1.387ko urtean il zan arte.

1.349ko urte onetik aurrera eta European sortu zan elderri baltzaren kutsaduragaz beartuta, bake antzeko bat sortu zan 100 urteko borroka orretan.

1.350eko urtean koroatu eben II n Karlos Nafarroako errege lez Iruñako Urian.

Nafarroak orduko denboratan 200.000 giza seme euki ebazan, eta bere aberastasunezko bidean, berun eta urre-antz, tupiki edo burdiñ-gorritzko⁽³⁾ langintzan euki eban.

II n Karlos, Nafar zaldun aundikiaren aolkularitzagaz gortearen jaurkintzazko gauzatan ikasita, bere adimendun argiagaz ta gortekoakin mintzatasunezko leiak eukiten ebezanean, laster erakutsiko eban, berak Frantzez ta gaztelako izkuntzatan euki eban trebetasunezko ulermena.

II n Karlosek berak, gero ta trebetasunezko indar aundiagoa artzen doala jaurkintzazko leiaketetan, Frantziko erregetzaren aurretik ipiniko eban Nafarroako erregetza lege biltzarrezko arduratan, eta erakunde orreitan oituratuta, Frantziko erregetzaren berriztasunerako, leenetariko bat jakitunen artean biurtuko zan.

1.350eko urtean Frantziko errege VI n Felipe il zanean, erregetza bere anai Luisen eskuetan itzi ondoren, Frantziko gortearen ardurazko gauzatan sartu zan buru-belarri, Nafartarren eskubideak lortzeko.

1.350ko urte onetan II n Juan Frantziko errege koroatu ebenetik, iñork ez eben eskubiderik euki Frantziko erregetza eskatzeko, ta gure II n Karlosek, Frantziko lurraldetan berari eskubidez egokitzen jakozan Brie ta Txanpainiako konderrriak berrezkuratzen asi zan.

-Nafarroako II n Karlosek, laguntza aundia euki eban lurralde orreik berrezkurtzeko bere izeko aldetik, Frantziko errege IV n Karlosegaz ezkondata egon zan Ebreu-keko Juana erregiñagaz.

(1) Gaztelako I Pedro Odol-Zalea, 1.334-1.369 urte artean bizi zana, eta errege lez 1.350-1.369ko urte artean. (2) Aragoiko errege IV n Pedro Zeremoni Zalea, 1.336-1.387ko urte bitartean bizi zana. Kataluñako errege lez III n Pedro izenarekin. Balenziako errege lez II n Pedro ´ren izenarekin, eta Mallorca ta Zerdeñako errege lez I Pedro izenarekin. (3) Urre-antz, tupiki edo burdiñ-gorritzkoa = cobre.

-Beste aldetik bere aita III In Felipe eta ama II In Juanak euki zituzen alabak, Frantziko VI In Felipegaz Blanka, Aragoiko erregeagaz Maria, ta Foixeko Gaston Febo kondeagaz Ines, ezkondu ebazalako.

-Baita, lenengo Baloiseko erregekaz naigabetuta egon zirenak batu, eta II In Juan bere arrebagoz ezkondu zanean, Borgoñako jaurkintzan egon ziran anai eta senide guztiak bota ebazalako.

-Eta Boulogneko kondea, kardinala, Auberniako bere anai bi ta senideak, ta bere ama II In juanaren alde egon ziran Txanpañako baroiak, eta eragipen aundiena euki eban Pariseko Goi-Ikastetxearena euki ebalako.

-Argi ikusten da emen, Txarra izan balitz, ez ebela eukingo euki eban ainbesteko laguntza, Frantzi ta Nafar gortekoak beragaz euki ebazalako.

1.352ko urtean II In Karlos, Frantziko II In Juan erregea eta bere emazte Luxenburgo-ko Bona´ren alabeagaz ezkondu zan.

Emen esan bear dot, beren txarrezko izen gaizto-orren etorkizuna, baleiteke 1.334-1.354ko urte bitartean Europa guztitik zabaldu zan elderriaren⁽¹⁾ erruz izatea, edo geiago zeaztuta 1.348ko Iraillan izurri baltza edo ertzaien gaixotasunezko ostetik izatea.

-Nafarroako gizartea eunetik irurogeta amarrean murriztu egin ebana, eta lurgintzaren lanerako besoen ezean agertu ziralako, Nafartarrak gose aundian sartuta, askori lapurketara emonda.

-Neurri gogorak artu bear izan ebazan ekintza orreik bakezteko, batzuri lepoak moztuta eta beste batzuk mii-luzeko zubitik urkatuz.

-Batera, baserritarrak zirikitu ebazan aundiki batzuen aurka, bere seme III In Karlosek bakeztu ebana ostera aundikiak goralduta.

Txar izen ori baiña, Frantziako erregetzatik ta batez be Frantziako edestilarien bidetik dator, oneik amurru aundian euki ebelako. Nafarroan, bide ortatik zabalduta ?.

II In Karlosek, maitasun aundian euki ebazan Nafartarrak, bai erritarrak eta bai beren inguruko aundikiak zintzotasun aundian, nai-ta biurkeriak egiteko gai izan.

Badagoz beste gauza batzuk, Nafartarren bizitza geiago larrituko ebenak, legezko eta sasiko semeen artean bekaitz⁽²⁾ aundiaren bitartez, beti borrokan ibiltzen ziralako.

Ekintza orren ondore lez, Agramontesak eta Beaumontesen alderdikeriak sortu ziran. Euskalerrria eta Nafartarrentzat batez be oso gaiztoak izan zirenak.

Berak oiñordearen⁽³⁾ bitartez Frantzian euki ebazan, Txanpaña ta Brieko konderriak, Angulema eta Ebreuxeko etxetik laterri batzuk Normandian, beren ama II In Juana eta III In Felipe aitak⁽⁴⁾, beste konderriak Frantziko VI Feliperi emon bear eutsosalako, Angulemako dukadoaren truke, Nafarroako erregeak izateko.

Frantziko VI In Felipe erregearen semea, II In Juan Ona deritsonai⁽⁵⁾ eta bere aita-giñarreba zanak, Angulemako dukaterria bere begipekoa zanai, espainako Alfonso de

(1) Elderri, izurri edo ta ertzai-gaixotasuna = esangura bardiña daukie, izurri-baltzarengaitik berba egiten dogulako. (2) Bekaitz = envidia. (3) Oiñordekoak = heredades. (4) Beren II In Juana ta V In Felipe Frantziako erregetzatik kendu ebazan Salikaren legeen bidetik. Gure artean lege ori arrotza dana. (5) Frantziko errege II In Juan Ona, 1.319-1.364ko urte bitartean bizi zana, eta Frantziko errege lez 1.350 eta 1.364 urte bitartean izan zana.

la Zerdaren Karlos semeari emon eutson⁽¹⁾, VI In Felipe ta II In Juanaren arteko ebazpena⁽²⁾ ezereztuta.

1.353ko urtearen Udabarrian, II In Karlos Nafar erregearen anai Felipek eta Karlos de la Zerda edo espainako Karlos orrek, Frantziko II In Juanen gortean egon zirala asarratu ziran, lendik be oneri II In Juanek emonda Angulemako konderrria artean dala kendu eutsoezelako, II In Juan erregeak bakeak eginda. Ata guzti De la Zerdatar Karlos edo espainako Karlos orrek, txistu ta madarikatuaren keiñadan urten bear izan eban, Nafar erregearen anai Felipek Normandian euki ebezan lurraldeetara joanda.

1.354ko urtean Urtarrillaren 8an, Nafarroako II In Karlosen anai Feliperi esan eutsoen, espainako Karlos edo De la Zerdatar Karlos Normandian egoala, ta bere anai II In Karloseri esanda, biok joan ziran De la Zerda egon zan lekura, eta bertako LÁigle ostaletxean il eban Nafarroako Felipek.

1.354ko urtean itzuli zan Nafarroara II In Karlos, Frantziko II In Juan bere aitagiñarrebagaz eriotzeraiño etsaituta egoala, ta Frantzian oiñordeko bitartez eukezanakaz, nor izan zala uste eban lez, Frantziko erregetza eskuratzeko iraun eban.

1.354ko urtearen Otsailako 22an Frantziko errege II In Juan Onak Manteseke el-kargoan, utziera batzuk egin bear ebazan, ingelesarekin bakeak lortzeko.

Nafarroako II In Karlosek, Asnieres-sur-Oise, Pontoise eta Beaumont´eko Kastellaniaren lurraldeak⁽³⁾ itzi bear ebazan, Beaumont-le-Roger, Breteuil, Kontxes eta Pont Audenerreko gazteluak, kontentineko erdiugartea Txerburgoko Uriagaz eta Karentan, Koutansez eta Normandiako Balognesen ordez.

Asken baten bera izan zan Normandiako dukea, nai izen-buru barik izanda.

Agirian geratu zan or, zelako indarra euki eban Ingeles-Nafar elkargo orrek.

Ata guzti 100 urteko borroka ori, erabaki barik geratu zan.

1.354ko urtearen Epaillako 4an, Nafarroako II In Karlosek, Parisera joan bear izan eban, Frantziko errege II In Juaneri parkamena eskatzen, II In Karlos Nafar erregearen bizitza babesteko II In Juan´en seme Luis, naparrari bialduta.

Zite jauregian egin zan errudun-parkamenezko antzerki ori, Nafarroako II In Karlosek, ez ebalako ezeren damurik agertu.

1.354ko urtean Jorraillaren 6an Ingelesak eta Frantzezak izenpetu eben Bretignyn egin eben egiune baiño ariñagoko bakea.

Eta urte orren udagoian Guineseko elkargoa Abiñonen baiestu, 1.355eko urtean Jorraillaren 1terarteko eten-guda lortuta.

1.354ko urtean Uztaillaren 10ean bide orretatik eta Nafarroako erreñua sendotzeko etsaien aurka, Brujasera bialdu eban Frikanp´tar Juan, gudariak lerrotzeko, eta Nafarroako gortetik bidalgoko agiriak Ingalaterrako III In Eduardori⁽⁴⁾ gudarien laguntza eske, Enaoko Felipa eta Ganteko Juan Lankasterreko dukea izando zanari.

(1) II In Karlosen ingurukoak il ebena, berea zana eukitearren eta bera 1.351an Urtarrillaren 8ko epaiketaren ostean Loubre´ko dorrean II´n Juan`ek giltzapetu. (2) acuerdo. (3) Kastellaniak, askatasunezko lurraldeak ziranak edo = territorios o jurisdicciones independientes. (1) "Printze-Baltzari, 1.312-1.377ko urte bitartean bizi zana.

Nafarroako II In Karlosek ingelesakaz alkartuta, Frantziko errege II In Juan Ona baiño arrazoi geiago euki ebazan Zerdako Karlosen ilketa onartzeko.

1.354ko Azaroan VI In Inozenzio Aita Santuak, deitu eutsen Nafarroako II In Karloseri Abiñoneko bakezko itzarmenean egon zedin, Frantzia ta Ingalaterrako erregezeko zatiketak egokitasunez amaitu egiezen, eta ingelezak ez ziralako fidatzen Nafarroako II In Karlosegaz, ez eben erabagirik onartu, bai ta beste aldetik Frantziko errege II In Juanek Gineseko elkargoa ez ebalako onartu gura, Abiñoneko elkargoa be ez eban agiztatu.

1.356ko urtean Jorraillaren 5ean, Frantziko erregea II In Juanek, II In Karlos eta Ganteko Juanek, Frantziko erregetza banatzeko euki eban azpi-jokuagaz oartuta, II In Karlos Nafar erregeak Ebreuxeko kondeagaitik asita, bere Ruanekeo gaztelura joan egiezen deitu ebazan lurraldeko zaldun guztiak.

Ospakizun ori bere pilpiltasunezko egoera onenean egon zanean, Frantziko erregea II In Juan, bere anai Orleanseko Felipe, seme gazteena Luis eta Artoiseko lengusuaikin iguratuta, agertu zan espatea agirian daukola, Nafarroako II In Karlos atxilotu gurean.

Gazteluaren kanpo egon ziran 100 inguru Zaldunak, gaztelua inguratu eben, eta barruan Kolin Dublet II In Karlosen aitor-seme laguntzailleak aiztoa atara ta II In Juan erregea keiñatu eban, laster atxilotu ebena baiña II In Juan erregearen lagunak.

Frantziko erregea II In Juanek 1.354ko urtetik asarratuta, eta geiago Zerdako Karlos il ebenetik, bere seme Luisen bakezko eskatzeari jaramon egin barik, au Arkourt´tar Juanengana joan zan eta dupa-mailluagaz lepoan jo ondoren atxilotu eban, Zerdako Karlos kondestablearen ilketan egon zalako.

Gaba orretan, Arcourt kondea eta bere iru lagun, parkameneko zelaia deitzen jakon toki batera eroan eben, eta bertan II In Juan aurrean egoala, buruak moztu eutsuezan.

1.356ko urtean Jorraillaren 7an, II In Juan Frantziko erregea, Parisera joan zan pazku eguna ospatzera, II In Karlos Nafar erregea, Loubre ta Txanteleteko gazteluetan atxilotuta.

Ata guzti eta II In Karlos Uri nagusian atxilotuta eukitea arriskukoa zalako, Douai ondoan dagon Arleuxeko gaztelura eroan eben.

1.356ko urtean Loraillaren 28rako naita atxilotuta euki arren, II In Karlos Nafar erregearen ospea gora joan zalako, bere askatasuna eskatuz gaiñ, Normandiako Zaldun eta andiki asko ukatu eutsen Frantziko erregeari ezerezko ziñ-egiteari, Ingalaterrako III In Eduardogaz alkartuta.

Frantziko errege II In Juan eurentzat, ekanduzko neurriaren gaiñetik ibili zan, bakearen billa ibili zan printze edo ta Nafar erregea atxilotu ebanean, berak ez ebalako besterik egiñ, Frantziko erregetzagaz euki ebazan eskubideak eskatu baiño, Nafarroako Felipe II In Karlosen anaiak bakoitzaren burrukarako⁽¹⁾ aupada eginda.

1.356ko urtean Iraillaren 19an Naparrak eta Normandoak batez be, Ingalaterrako III In Eduardo erregearen aldera aldatuta, Frantziko errege II In Juanen gudalozteakaz

(1) Desafio personal, aun duelo con armas.

Poitierseko zelaietan borrokatu ziran, eta elkarte garai penduta, Ingelesak, Frantziko IIn Juan erregea atxilotu eben.

1.356ko urtean Urrillaren 17rako, Frantziko IIn Juan erregea atxilotuta egoteagaitik, eta bere seme Vn Karlosek erooten ebalako erregearen-ordez kotza, Orokorrezko Laterriak batu ebazan onek, bere aita atxilotasunetik atarateko eta erregetzazko arloetan euki ebezan legezko arazoak garbitzeko, aurka, Nafarroako IIn Karlosen alde ipini zan dirudun aundikiak bideratzen ebazan Etienne Marzel⁽¹⁾ eukinda.

Frantziko Vn Karlos errege-ordeak, orokorrezko Laterri orreitar deituta, amabi aolkari edo zentzalari⁽²⁾ ipini eutsoezan, liskarbide orreitan berari laguntzeko.

Ez ziran aitu, eta Laterritasunaren Orokorrezko batzar orreik luzatzea erabagi eben.

1.357ko urtearen Otsaillako 3an Orokorrezko batzar orreik zabaldu orduko, Nafarroako IIn Karlos Moselako lurraldean Metz´eko Urira joango zan bere osaba IVn Karloseri eskerrak emoteko, 1.349ko urtean kendu eutsoezan Borgoña eta Saboyagaz osotzen zan Delfinadoko lurraldea emoteagaitik, orregaz batera bere diplomazizko laguntza artuta.

1.357ko urtearen Epaillan Nafarroako IIn Karlos, Metz´etik ostera Parisera joan zanean, Araudi Aundia⁽³⁾ aldarrikatuta egon zan, erregearen al izana beratzen ebena, jaurkintzaren antolamena indartuz, Nafarroako erregeari lotzeko izan zana geien.

Elkarte bat be sortu zan, gaiztotuta egon ziran jaurlariak euren lekuetatik kentzeko. Nafarroako IIn Karlosen bederatzi aolkulari kendu ebazan euren lekuetatik, Étienne´tar Marzelek lortuta, de Lorris´tar Robertorengandik aspertzea⁽⁴⁾.

Orokorrezko Laterri orrein sei arduradun bete eben, ordezko-erregearen aolkularitzazko babespetasuna, eta talde orrek erregetzazko diru-eragintzan sartzea lortuta, ortik aurrera diru kontuetan eta batez be diruaren aldaketak ta salerosleko zergaren kontrolak, laterrien ardurapean geratu ziran.

Dana dala, Laterriaren Orokorrezko batzar orreitan erabagi zana, erregetzaren ordezko jaurkintza bat ezartzea zan, Orokorrezko Laterritasunaren batzarrak eroango ebena.

Nafarrantzat ez zan naikoa, eta IIn Karlos oraindiño atxilotuaren zigorpean egon zan lez, Nafarroaren askatuna erabagi eben.

1.357ko urtearen Azaroko 9an askatu eben Arleuxeko espetxetik Nafarroako IIn Karlos, eta aldatu zan erri guztietatik, jai-arau bereziekaz artu eben, Amiens eta Paris bitartean aldatu zan Uri guztietatik bardiñ sortuta.

Bere sarrera andre eder baten laguntzagaz eginda, eleiztarrak eta bertoko aundikiak onartu egien, gero erriari begira ezateko, bera IIn Juanek euken bildurragaitik atxilotu ebela, berari egokitzen jakozan Frantziko erregetzaren eskubideak eskatzen ebalako.

(1) Étienne Marzel = 1.316-1.358ko urte bitartean bizi zana. 1.356-1.357ko Orokorrezko Laterriaren legezko eztabaidatan, leenetariko aurrelari bat izango zana Nafarroako IIn Karlosen alde. Marzel Nafarroako IIn Karlosen alde ipini zan, onek Paris erasotzea gura ebalako. Pariseko San Antonio atearen aurrean il eben erriarrak 1.358ko urtearen Uztaillako 31n. (2) Aolkari, aolkatzaille edo zentzalari = asesor. (3) Araudi aundia = la Gran Ordenanza. (4) Aspertzea = vengarse.

Martzel Etiennen alegiñakaz ezin eban besterik egin, aurkeztu eutsoezan bere par-kamenaren agiriak sinatu baiño, egiten eban etorkera bakez egiteko.

Eta 1.357ko urtearen Azaroko 30ean Martzelek, Pariseko Prè aux'eko Klerks'een aurkeztu eutsozan 10.000 erritarrai itzaldi sutsu bat emon eutsen, ingelesagaitik atxilotuta egon zan II Juan eta Ingalaterrako IIIn Eduardoren aurka, auek menperatzaile lez salatu ta Frantziko erregetzagaz berak eukezan eskubidezko ondorengotasunak aldarrikatuta.

1.357ko urtean Abenduko 3an Martzelek, beste aundiki mordo bategaz, Nafarroako IIIn Karlos askatu bear eben batzordeko gelan sartu ziran esaten, Orokorrezko Laterriak, IIIn Karlos Delfiñak agindu ebazan diru-zergak batzea ontzat artzen ebela, eta ez ebela bere baitza artzeko besterik, aundikien baimena lortzea baiño.

Estukuntza orren indarkerian Nafarroako IIIn Karlosek, ez eban Nafarroa baiztea baiño beste biderik.

1.358ko urtean Urtarrillan Orokorrezko Laterriak, Frantziko erregetzaren leiñutasuna erabagi bear izan eben, Balaisen leiñutasuna dangilizka geratuz, eta Nafarroako IIIn Karlosek itxarotezko illabete orreik, Balaisen aldeko zabalkundea egiten asiko zan.

1.358ko urtean Urtarrillaren 11n IIIn Karlosek Ruaneko urian, eta Normandiako Zaldun eta aundikiak bere aldera erakarteko, IIIn Juanek il ebazan Normandoagaitik, eleizkizun ospagarri batzuk antolatu ebazan, eta beste aldetik IIIn Juanen etorkizunari bildur, gudari taldeak antoltzen asi zan Normandiako lurraldeetan.

1.358ko urteko Urtarrillaren 11n, erriaren babesa antolatu eban, ainbat lapurketa egiten ebazan ogipeko gudarien aurka.

Eta Normandia, Txanpaña ta Borgoñako mariskalak bere alde kokatu ziran.

Parisen, Delfinadotik etorritako 2.000ko gudalozte bat antolatu eban, erria alkar-tetaik babesteko.

1.358an Urtarrillako 11n IIIn Karlosek, itzaldi bat emon eutsen Les Alleseko Paristarrai, Orokorrezko Laterriak naita zergak ipini arren, ez ebalaz ezerezko gudalozterik antolatzen erria babesteko, eta bera ibili zala lan orreik antolatzen esan eutsen.

Emon eban itzaldi orregaz, ondore onak artu ebazan, bide batez, Frantziko Lege Biltzarra arazo gogorretan ipinita.

1.358ko urtearen Urtarrillako 14an Orokorrezko Laterriak, erregezko leiñutasunean eta zergaren diru-billaketetan ez ziralako eldu ezertasunezko erabagi batera, dirua merketu eben, eta erritarrak asarre, orokorrezko Laterriaren aurka geratu ziran.

-IIIn Karlosek egoera orregaz baliotuz, 1.357ko araudiak ertsitu edo inguratu ebazan.

-Gorteko lapurketak murrizteko sortu eben jaurkintzazko antolakuntza, Bost illabete baiño ez eban iraun.

-Orokorrezko Laterriak, zergak batzeko izendu zituzenak, aurka egin bear izan eben baserritar eta nekazari beartsuaren asarreari.

-Orokorrezko Laterri orreik ez eben euki politikazko jakintasunik, Delfiñen ekin-tasunak kontrolpean eukiteko, eta onek aolkularitzazko babes taldetik euki ebazan sei ordezkariak beren alde kokatzea lortu eban.

-Agintaritzazko arlo orreitan Laterriak artu eben maldaberagaz, gero ta gitxiagoko ordezkotzagaz geratzen zan, eta asken baten, dirudunak bakarrik joaten ziran batzar ortara.

-Eta asken baten ta oraindiño eragipen aundia euki ebalako IIn Juanek, atxilotuta egon zan lekutik ezereztu ebazan, ainbeste borroka sortu ebezan Araudi Aundi orreik.

-Eta Martzel Etiennek ikusi ondoren, erregeak kontrolpean eukiteko bere eredu edo egitamua ezereztuten zala, guda bidez konpondu gura eban.

-Kontuan euki bear da, Martzelek ez ebalala zalantzan ipinten erregetasunaren jaur-kintza, Orokorrezko Laterriaren agintaritza geiagoa zalako berak gura ebena.

1.358ko urtearen Otsailako 22an zabaldu zanean, IIn Juanek Londreseko lenengo ituna onartu ondoren, eta Frantziako eregetzaren lurraldeko iru zatitik bat Ingalate-rrarentzat zala esan ondoren, gorte eta erritarren aldetik sortu eban jazarraldia aundia izan zan, Etienne Martzelek ondo baiño obeto baliatu zanagaz, izkillatutako 3.000 matxinatuen aurrean ipinita.

-Erritarrak, Palais de la Zite erasotu ta artu eben, ia bertan errege ordea artzen ba eben.

-Konflans de Juan zelai-gunearen mariskala, eta Klermont´tar Roberto Norman-diako mariskalak, Parisen aurrean euren gudalozteak egon zirala, Delfiñaren aurrean il egin ebazan, Etienne Martzelek Delfiñari beartuta matxinatuen urdiñ eta gorriaren margozko txapela⁽¹⁾ buruan ipini egian, eta Martzel berak Karlosen txapela ipinita, 1.357an debekatu eben Araudia⁽²⁾ ostera ataraten beartu eban.

-Eztabaida asko egon ziran bitarte onetan.

-Eta 1.358ko urtean Uztaillaren 31ko goizean, Etienne Martzelek IIn Karlosegaz ainbeste ekintza ondoren, Martzel Pariseko Uriaren San Antonioko atean egoala gil-zak emoteko, arrapau eban eta bertan il eben.

Delfiña⁽³⁾ bere Delfinadorantza joateko egon zanean, esan eutsen zer gertazen zan.

Eta 1.358ko Dagonillaren 2an sartu zan Delfiña Parisen ostera, erritarrak beren borondate ona ikusi egien, danak parkatuta.

15 ilteakaz amaitu zan eztabaida luze au, Etienne Marzel artean zala.

1.358ko urtean Dagonillaren 3an Nafarroako IIn Karlos Saint Denisen egon zala, eta Pariseko erritarren leialtasunezko aldaketatik alde eginda, aske geratu zan bere anai Felipek bideratzen ebazan Ingeles gudalozteak onartzeko.

-Saripeko gudari oneik baiña, ordezeko dirua aspaldian artu barik, tximistaka asi ziran, ta IIn Karlos eta Felipek ez eben euki beste biderik ordaiñ orreik beteteko, Saint-Deniseko Uria euren eskuetan iztea arpillatu edo saskildu egien.

(1) Urdiñ eta gorriko txapela = Pariseko margoak ziran oneik. (2) 1.357ko Araudia= La ordenanza de 1.357. (3) Frantziko Delfiña = Frantziko erregearen lenengo semeari emoten eutsoen izena zan.

-Asetuta saripeko gudari orreik, eurak karpapetuta egon ziran Sena ibaiaren ibarrera joan ziran, lurralde aiek eta erreka salerosketaren kontrola eukiteko, Île de Franceko 70 gaztelu artu eta Sena ibaiaren iparraldea artuta, Melun arrapetan saiatu ziran, Pariseko Uria guztiz inguratzeke.

-Frantziko Karlos printzeak ez eban euki indarrrik IIn Karlos eta bere anai Felipe-ren bretoi indarrak andik botateko, baiña Meluneko Uria inguratu eban, IIn Karlosen egoera estutu ebana.

1.358ko urtean Dagonillaren 19an IIn Karlosek bere egoera larria ikusta, Frantziko Delfiñagaz gura eban egon Pontoiseko errian Delfiñari esateko, bera alboratu egiten zala, naita bere gudalozteak kontrolatzen ebazan gazteluetatik urten ez.

Biok euki ebezan eskuarteko baliokizunak baiña, laburrak izan ziran lez, ez eben bata besteari amor-emotea baiño besterik euki, naita Nafarroaren bultzakadak geratzea errege ta printzearentzat bearrezkoak izan, Nafarroa bera izan zalako al, printzerribat sortzeko eta Ingalaterako IIIIn Eduardogaz alkartzeko.

1.359ko urtean IIn Karlos Nafarroara itzuli zan, eta Frantziko naigabeak sortu eutson bakardadea konpontzeko, bere arrebak Ajnes ezkontzea erabagi eban Foix eta Bearneko kondea Gaston Feborekin, onen konderriko lurrak, Ingalaterrako Guyena eta Frantziko erregetzaren bitartean egonda, berari aukera aundiak emongo eutsezenak politikasko izan gaitasunetan.

Ez gitxiago Feborentzat, konderraren lurraldeko larritasunak politikazko trebetasunetan, askatasunezko lurraldeetan biurtu ebalako.

Foix eta Nafarroako alkartasun onen bidez, Frantzia, Ingalaterra eta Aragoitarrak, euren lurraldeak zabaltzeko euki ebezan neurri bako gogoak geratzen ebalako.

Eta Bearnen ez zalako egon Salikako legerik, naita ondorengotasun barik aurkitu, konderriko ardurak bere Nafar arrebaren eskuetan egongo ziran.

1.361eko urtean I Rubres´tar Felipe Borgoñako dukea il zanean, ondorengotasunak euren bigarren lengusutasun bidetik, Nafarroako IIn Karlosen eskuetara joango ziran, au IIn Roberto eta Frantziko Inesen alaba, Borgoñako Margaritaren biloba izan zalako.

Frantziko IIn Juanek jabetuko zan ondorengotasun orregaz esanda, berak IIn Karlosek baiño senidetasunezko mailla aundiagoa eukala, bere ama Juana Margaritaren aizta izategaitik.

Baiña gauzak okertu egiten dira, eta Gaston Febo onek ezkondu barri, beste andra pillo bategaz ibili zan, Ybain eta Gratien sasiko seme bi eukinda.

1.362ko urtean Gaston Febok Ajnes emaztea zapuztu edo itzi eban, onek bere seme bakar Gaston euki ebenean, eta Ajnes ama Nafarroara itzuli zanean, seme ori amaren urriñeko azkuntzatik eziko eben.

Eta 1.363ko urtearen Iraillan Frantziko IIn Juan Onak, Frantziko Felipe Ausartari emon eutsozan Borgoñako dukerriaren ardureak, onartu ezinezkoa izan zana Nafarroako IIn Karlosentzat.

1.364ko urtean Bretyjniko elkargoaren ostetik askatu eben Frantziko II In Juan Ona, ostera itzuli bear izan eban Ingalaterrako espetxera, elkargoa betetzeko baituta euki eben II In Juanen seme Luisek, alde egin ebalako.

Frantziko erregetzaren ordegotza eroaten eban Frantziko Karlos Delfiñak, Printze Baltzagaz⁽¹⁾ alkartu zan Burdeosen, Aragoiko IV n Pedrokekin bakezko elkargo bat lortuta.

Ez zan erreza elkargo au lortzea, bere anai Luisek, Beko Langedok, Beaukaire ta Karkasonako seneskaliasenengaitik⁽²⁾ gudu laguntza emon eutsuelako gaztelatarrai.

Egikera oneik ez ziran igaro gertu gabe, Balois leiñukoak bereala asi ziralako ekin-tzan eta laster aurea artu be.

Eta Frantziko errege II In Juanek Londresetik urten orduko, Guesklin´tar Bertrand´eri agindu eutson, Nafarroako II In Karlosek Normandian euki ebazan jabetasunak baitu egiezen, Mantes, Meulan eta Sena ibai inguruan kokatuta egon ziran beste gaztel-urriak, inguratuta geratuz.

1.364ko urtean Jorraillaren 8an il zan Londresen Frantziko errege II In Juan Ona, Frantziko erregetzara bere seme Delfiñak igonda Vn Karlosen izenarekin.

Nafarroako II In Karlosek jakinda, bereala abiatu zan Nafarroan ta Gaskuñan batu ebazan gudariakaz Normandiarantza joaten, Txanpañako lurraldean dauan Reimseko Urian Frantziko Vn Karloseri urtenda, koroazio ori gal-erazteko.

1.364ko urtean Loraillaren 16an Normandiako Kotxerelen⁽³⁾ Eure ibai ondoan aurkitu ziran aurrez aurre gudalozte biak, nafartarrenak Graillytar Juanek bideratuta ta frantzezena Bertrand du Guesklinek, 1.363ko urtean zerga bidez batu ebazan gudalozte zendoakin.

Frantzek azkarragoak izan zirelako, nafar gudalozteak inguratu ebazan, eta be-reala menperatu ebazan.

Eta 1.364ko urtean Loraillaren 19an koroatu eben Frantziko errege Vn Karlos, eta bereala agindu eban, Kotxereleko borrokan arapatutakoai, lepoak moztu egiotzezan, erriak jaki egien zer gertatuko zan erregearen aurka joaten zirenai.

Borroka orretatik alde egin eben nafartarrak ostera antolatuz, eta Auberniara joanda Uri asko artu, gero Borgoñara joanda Txarite-sur-Loire menperatuta.

Borgoñako Felipe Ausartak baiña, batu ebazan gudariakaz, elkarte aundiko sari gudarien gudalozteak batu ebazan, eta Nafartarren aurka joanda Txarite-sur-Loireko Uria berrezkuratu eban.

1.364ko urtean Loraillaren 24an Nafarroako errege II In Karlos Iruñan egoala jakin eban zer gertatu jakon bere gudalozteari.

Nabari zan, Nafarroako II In Karlosek Kotxereleko borroka orregaz Frantziko errege izateko euki zituzen aukera guztiak galdu ebazala, naita Normandiaren Ebreuxeko Uri nagusitik asita oraindiño, Uri-gaztelu asko euki arren.

(1) Printze Baltza, Woodstokk´tar Eduardori esaten eutsoen. 1.330-1.376ko urte bitartean bizi zan Akitaniako printzea zana, eta printze-baltza deitu eutsoen, bere soin-burni edo gudu-jantzia baltza izan zalako. (2) Seneskalias = seneskaleko arduraduna. Seneskalado = territorio sujeto aun senecalado. Seneskal = Erri batzuetan errege etxearen mayordomo edo etxe-zain nagusiaren arduraduna. (3) Kotxerel´en = Normandiako Eure ibai ondean dauan gaztel-Uria.

Frantziko Vn Karlosek, beartu eban Nafarroako Juana, II In Karloseri oztopoak ipinten, euki ebazan lurraldeekin baliatu ez zedin, eta II In Karlosten egoera andeatze-ko⁽¹⁾.

Urte onen Udagoiengan baiña, Nafartarrak gainberatu eben egoera au, Bertrand du Guesklinekin galdu ebazan lurraldeak berrezkuratuta.

Geraldi onek, Frantziko Vn Karloseri beartu eutson bakezko itun bat egiten Nafarroako II In Karlosegaz, bere aldetik kanpoko politikagaz arduratzeko eta Ingelezak Frantzitik botateko.

Nafarrak orretarako, Mantes, Meulan ta Longebille, Montpellierregaitik aldatzea eskatu eutsoen Vn Karloseri, eta bitarteko aldaketa orretan egon zirala Nafartarrak ez eben Ingelesarekin betirako gura eben elkartasuna lortu , II In Karlosten aldakortasunagaitik.

1.365eko urtean Saint Deniseko elkagoagaz Nafarroako II In Karlosek, Frantziko erregetzagaz euki ebazan eskubideak itzi ebazan.

1.365eko urtearen Epaillan eta Abiñoneko elkartearen bidez Nafarroako II In Karlosek, Frantziko erregeari, Sena ibaiaren erdiko ibarra, eta Normandian Mantes, Meulan ta

Longebilleko Uriak emongo eutsozan, Frantziko Vn Karlosek bere lengusu Nafarroako II In Karloseri Montpellierreko Uriaren Jauntasuna emonda.

Frantziko Vn Karlosten emaitza laster pozoituko zan, Montpellierreko erritarrak ez ebelako jakin nai ezer Nafartarren erregeakin.

1.367ko urtearen Otsaillan Ingalaterrako III In Eduardo, Orreagako mendikateak igaro ebazan.

1.367ko urtean Jorraillaren 3an Najeraseko borrokan Galeseko printzearen guda-lozteak, Frantzia eta Gaztelarren guda-lozteak menperatu ebazan, Pedro Odol-zalea Gaztelarren erregetzazko aulkira igoteko aukerea eukin da.

Pedro au baiña, ez zan al izan, III In Eduardo ingelesari guda-loztearen gora beran zor eutsoezan diruak ordaintzeko, eta onek Akitaniantza bideratuta eukezan guda-riak, bertan askatu ebazan.

Galeseko Printzea Gaztelatik txirotuz etorrira, zerga barriak ipini bear ebazan Akitanian, erritarrak oso txarto artu ebena, Ingelesaren sari gudarien elkarte nagusiarren bidetik indarrez diruak kenduta eta bai eurengandik guztiz kontrolatuz, gogaituta egon ziralako.

1.367ko urtearen Jorraillan Gaztelar trastamarako Errikek, laster berrezkutaratu ebazan Gaztela ta Leongo erregetzak, eta Toledoko Uria inguratu eban bederatzi illa-betetan, bitartean Gaztelako Enrike eta Frantziko Vn Karlosek bakezko itun bat sinatuta.

1.367ko urtean Epaillaren 13an Gaztelaren Trastamarako Enrike eta bere anai Pedro Odol Zaleak, Kalatrabako zelaietan borrokatu ziran, eta Enrikek menperatu

(1) Andeatu = desgastar, mirar la voluntad de Karlos II de Navarra.

eban bere anai I Pedro Odol Zale ori, Pedrok borroka ostean bere gudari batzukin iges eginda.

1.367ko urteko Jorraillan Enrikek Gaztela ta leoneko erreñuak menperatuta, Toledora joan zan Uria inguratzen Frantziko Vn Karlos erregearen laguntzagaz, bederatzi illabetetan egin ebena, eta biak berton euren bakezko elkargoa sinatuta.

I Pedro Odol Zale ori, ez zan ontara jarri eta Guesklin frantzeza bere koipikerietan sartu gurean ibili ondoren, naita kidetasunezko berbea emon arren, bere anai Enrike oartu eban, eta biak larru-aterpe baten barrura sartuta, borrokan asita Enrike Guesklinen laguntzagaz, il eban I Pedro Odol Zalea.

Ilketa onegaz Enrike, Gaztelako errege biurtu zan, eta IIn Enrike izenagaz koroatu eban, Gaztelako erregetza Borgoñako leiñutik, Trastamarako leiñura aldatu ondoren.

1.368ko urtearen Abenduko 3an Galeseko printzea Gaztelatik itxarotuta Akitanian agertuz, zerga geiago gura ebazan bere gualoztea osotzeko, Armañak'eko Jeanek atzerazita zerga orreik, eta Pariseko zuzenbidearen gortera jota, gorte onek onartuta, bere onartutako eskaera bidetik, Guyenako jabetasuna Frantziko Vn Karlosen eragipenera aldatu zan.

Eta era onetan asi zan, Bretignyko itzarmenetik Ingelesari emon eutsoezan lurraldearen berrezkuratzea.

1.371eko urtean Epaillaren 25ean Nafarroako IIn Karlos erregea jakin eban, Gaztelako IIn Enrike eta Frantziko Vn Karlosen gualozteak Nafarroa inguratzen ebala eta Galeseko printzearen gualozteak oso makal zokoratu egin ziran lez, aurrerakuntza artu eban eta Frantzira joan zan, 1.365eko urtean Bernoneko itzarmenean artu ziran erabaiak onartzeko.

Eta belauniko geratuta bere lengusu Frantziko erregearen aurrean, mendezkoa egin eutson, zintzotasun, leialtasun eta agindupeko eskeintzak eginda, berak Frantzian eukezan lurralde gutzien gaitik.

Ekintza onegaz esan leike, IIn Karlos Nafarroako erregeak, Frantziko erretzari uko egiten eutsola, Normandiara joan zanean baiña, Gaskoiaren gualozteakin euki ebazan betiko arremanak berrezkuratzeko, IIn Karlosek ez eben almenik euki gudari-koen sariak ordezkatzeko, eta orko bidetik Frantziko errege Vn Karlosek agertuko zan lurralde orrein jaun bezela.

1.378an Gaztelarrak, 1.263an II Teobaldok Tiebasen eraikitako Gaztelua, euki eben zaiñezko arduradun eta guzti erraustu ta suntsitu eben, bertan gordeta egon ziran antziñako eta garrantzi aundiko agiriak ezereztuta.

1.379ko urtean Gaztelako IIn Enrike erregea, orduko denboratan Frantziko Vn Karlosekin batera joaten ziranak, Nafarroa erasotu eben eta IIn Karlosek Brieneseko elkartearen bidetik, 20 Uri-gaztel inguru galdu ebazan.

1.380 urtean, Txarto artu eben Nafartarrak Ajnes eta Gaston bere semeagaz sortu ziranakaz, eta Nafartarrak Gaston Febo pozoitzea erabagi eben, Gaston semearen bidez.

Gaston semeak aita pozoitzen joan zanean baiña, bere anai Ybainek arrapau eutson, eta gazteluko espetxean baituta, alango egunen baten aita bera ikustera joanda asarre, jo eutson eta bertan il eban, konderrria ondorengotasun barik geratuta.

1.386ko urtean, Nafarroako II In Karlos erregeak, Aljubarroako borrokan Gaztelako I Juaneri borroka irabazita, eta Lizarrako elkarteren bidetik, 1.379ko urtean Brioneseko elkarteren bidez galdu ebazan 20 gaztel-Urietatik, geienak berrezkuratu ebazan.

1.387an Urtarrillaren 1ean il zan Nafarroako errege II In Karlos, eta etsai ta saltzailleari esker, bere erregetzaren osteko surrumuruak askoz txarragoak izan ziran, berak egin ebazanak baiño. Berari geienean, egia ta zuzentasunak lagundu eutsoelako.

Nafarroako errege II In Karlosen ilketa uste-gabe bat izan zan.

II In Karlos egun orretan makal egonda aldigaiztu zan, ta osagilleak koñakakin bustitako zapiakaz inguratu egiela bere gorpua aginduta, bertan argitzen egon zan mutillari, euki eben esku zuzitik txinger bat jausita, su artu eben gorputzean eukezan biribildutako zapiak, eta su ori amatau ezinik il zan II In Karlos erregea.

Bere seme nagusi III In Karlos Argitsua izando zan bere ondorengoa eta Nafarroako urrengo errege.

II In Karlos Txarra deritxon au, Izaera gogorrekoa, zori-zale, odol bizikoa ta mendekaria izan ba zan be, Frantziko V In Karlos Jakintsua, Gaztelako I Pedro Odol-zale eta Aragoiko IV In Pedro Zeremoni-Zale bere denborakoak izan ziranen antzekua zan. Orduko denboraren ekandua eta lojikazko bidezki-giroak alan eskatzen ebalako.

Nafarroako II In Karlos erregea, Frantziko II Juan erregea eta bere emazte Luxemburgoko Bona´ren Juana alaba txikerragaz ezkondu zanagaz, seme-alaba oneik euki ebazan:

-*Nafarroako Maria*, 1.360-1.420ko urte bitartean bizi zana, eta 1.393ko urtean Ribagorzako kondea zan Jiménez eta Aragoiko Alfonsorekin ezkondu zana.

-*III In Karlos Argitsua*, 1.361-1.425ko urte bitartean bizi zana, eta Nafarroako errege lez, 1.387-1.425eko urte bitartean.

-*Nafarroako Bona*, 1.364-1.389ko urte bitartean bizi zana.

-*Nafarroako Pedro* Mortaiñeko kondea, 1.366-1.412ko urte bitartean bizi zana, eta 1.411ko urtean Alenzoneko Katalinagaz ezkondu zana, seme-alabaren legezko-ondorengo barik il zana.

-*Nafarroako Felipe*, 1.368-¿?ko urte bitartean bizi zana.

-*Nafarroako Juana*, 1.370-1.437ko urte bitartean bizi zana, lenengo ezkontzan bere lengusu Bretainako IV In Juanegaz ezkondu zana, eta 1.403ko urtean bigarrenez, Ingalaterrako IV In Enrikerekin.

-*Nafarroako Blanka*, 1.372-1.385ko urte bitartean bizi zana.

Eta bere emaztearen ezkontzatic kanpo, Lizasoko Katalinarekin:

-**Leonel** Muruzabaleko bizkondea, Nafarroako sasipekkoa, 1.378-1.413ko urte bitartean bizi zana, eta de Lunatar Epifaniagaz ezkondu bage, bost alaba- seme euki zituztenak.

-**Joana** Nafarroako sasi-alaba, 1.378-1.413ko urte bitartean bizi zana, eta 1.378ko urtean Bigorren Lourdeseko gazteluaren aitoren- seme kapittanakin ezkondu zana, 1381eko urtetik eta feudo edo maiztergo bidez, bere aita orde Murillo el Frutoren morroi edo zergapekoa izan zana.

1.391ko urtean Gaston Febo kondea il zanean, bere emazte Ajnesek sekula ez eban Bizkondesaren izen bururik artu eta Gaston Feboren sasi seme Ybainek arduratu eben erregezko ordogotasunagaz, bera 1.393ko urtean il zan arte.

Emen konturatu egin bear gara, Europako erregetza guztia, euren artean senituta egon zala, eta nai-gabeko borrokak edo asarre guztiak, geienak beintzat, bakoitzak gogoratzen ebazan erregetzaren eskubidetatik agertzen zirala, erritarrak morroi bezela ara ta ona Foruen aipamenakaz ibilita, kontuan euki gabe.

Nafarroako II n Karlos erregea beartuta, Gaztelako I Pedro odol-zale⁽¹⁾, eta Aragoiko IV n Pedro Zeremoni-Zaleagaz 1.336-1.387ko urte bitartean, artekari lez agertu bear izan eben, gero denborak zelan etorten ziran, bategaz eta besteagaz beinbanan alkartuta.

Jarrera orretan lotuta eta Frantzia, Aragoi ta Gaztelako erregetzak gero ta indar geiago artzen joan zirelako, bai irurak Nafar-erregetzazko jabetasunaren billa ibili zirelako.

Nafarroa txikerra izanda ta Euskalerrria bananduta egonda, denboraren etorkizuna izango zan bakarrik, baten edo bestien eskuetan jaustea.

Badagoz beste gauza batzuk, Nafartarren bizitza geiago larrituko ebenak, legezko eta sasiko semeen artean bekaitz⁽²⁾ aundiaren bitartez beti borrokan ibiltzen ziralako. Ondorio lez, Agramontesak ta Beaumontesen alderdikeriak sortu ebazalako. Europaren berezko errigizartetan eta Euskalerrrian ta Nafartarrentzat batez-be oso gaiztoak izan zirenak.

1.512ko urtean azken baten, eta legez kanpoko Aita Santuen buldako trikimailluekin, Aragoiko II n Fernandok, bera be Nafar etxekoa izanda, izango zan menperatuko ebana.

Bizkaiko Jauntzaren aria oster artuta.

20n Bizkaiko Jauna.

Nuño de Lararen ondorengo, bere arreba Nuñez de Laratar Juana izendatu eben Bizkaiko Jauna. Amabostgarren Andre Jauna izando zana edestilariaren gora beran.

1.353ko Urrillaren 15ean Segobian ezkonduko zan Nuñez de Lara ´tar Juana, Gaztelako errege XI Alfonsoren sasi- seme eta I ´go Pedro Odol Zalearen sasi- seme Tellogaz.

Gaztelako I Pedro erregeak, bere sasi- seme Tello gorroto gorrian euki eban lez, bere lengusu Aragoiko errege seme Juan, Nuñez de Laratar Juanaren aizta Isabelegaz ez-

(1) 1.334-1.369ko urte bitartean bizi zana, eta errege lez 1.350-1.369ko urte bitartean. (2) Bekaitz = envidia.

kondu gure eban, Aragoiko Juanen itxaropenetan, Bizkaiko jauntzaren jabetasuna itzartuta.

Tellok, I Pedroren azpijokoa ikusita, bere aurka borrokan egiteko asmoan, zaldun batzukin lagun, bere anai Enrike Trastamarako kondeagaz alkartu zan, eta ezer lortu ezinik, Tello barrero Bizkaira itzuli zan Abendañotar Juan eta beste zaldunekin.

1.355eko Loraillaren 6an Tellok, Markina⁽¹⁾ Iribildu eben Bilbaoko foruekin.

1.355eko urte onetan, Gaztelako errege I Pedro Odol Zaleak⁽²⁾ mezu bat bialdu eutsoen bizkaiko erritarrai, esaten: Tello bere anaia, beren zerbitzutik kanpo ibilita, aurrerantzean bere lengusu Aragoiko Juan, Aroko Diaztar Isabelegaz ezkondata egoana izango zala Bizkaiko jauna.

Eta Bizkaitarrak erantzun gogorra emon ostean, I Pedrok gogo txarrez artuta, bere lengusu Juaneri maltzakeriz esan eutson: Bizkaitarrak ez ebela gure bera jauntzat, eurak aukeratuko jauna eukielako.

I Pedrok, bere guda indarra Juanen aginpean ipinita, eta Otxadio ta Gordejuela-tik Bizkaian sartuta, Bizkaitarrak Abendañoren agindupean alkartuta, astindu ederrak emon eutsezan Gaztelako gudalozteari.

Bizkaitarrak ekintza orregaz, Bizkaitarren Nortasunezko askatasuna argi erakutsita.

1.356ko Ekaiñaren 1ean I Pedrok, alegin aundiak egin ebazan Tello Bizkaiko jauntzatik kentzeko, berak geroago izenburu ori artuta, baiña laster joan ziran gauza orreik euren lekutara.

Gaztelako errege I Pedro Odol Zalekoa izan bazan be, orduko zaldun jaunak bardiñ antzekoak izan ziran, Tellok apostu⁽³⁾ baragarri baten bidez, Abendaño⁽⁴⁾ bere benetako adizkidea il ebalako.

1.356ko Ekaiñan 27an Tellok, Elorrio Iribildu eban Durangoko foruan.

1.357ko Iraillaren 8an Tellok Bermeon, Bizkaiko Frantzizkotarren leen lekaide-txeari zabal aldia emon eutson.

1.359an, Gaztelako errege I Pedro Odol Zale orrek Bizkaiko jauntza berentzat gure ebalako, Tello ezinbesteko gorrotoan euki eban, eta Agilar de Kanpo atxilotuta eukinda Telloren emaztea, Bizkaiko Andre Nuñez de Laratar Juana il eban.

Bilbaon len eta 1.358ko urtean, bere aizta Isabelen senarra Aragoiko errege seme Juan il eban⁽⁵⁾ antzera.

Goian esan doten lez onek be, Aroko Nuñez de Laratar Isabelegaz ezkondata zeozer dalakoan, Tello Bizkaiko Jauntzatik baztartuta, berentzat nai izan ebalako. Eta Aroko Diaztar Isabel 1.359ko urte orretan Kastrojerizen il eban.

1.366ko Jorraillaren 23an, Tello, bere anai I Pedroren ingurutik iges ibilita, ta Bizkaian agertu ondoren, Bizkaitar sendien bakeak lortu ebazan.

(1) Tello 'k, Villaviciosa de Markina 'ren izena ipini eutson, eta baleike Markina 'ren izena, marra = muga, marrakina 'tik etortea. (2) Odol-zale edo Biotz-gogorra = cruel. (3) Zaldi gaiñean, sei basurde trabez ipinita, nork euren gaiñetik bestaldera eragin. (4) Abendaño bera be ez zan izan makala, bere legusu Abendaño 'tar Pedro, berak il ebalako. (5) I Pedro 'k, Martinez de Aeilza 'tar Pedro 'ren gazteluan il eban, eta gero leiotik-bera bota eban.

1.366ko Jorraillaren 28an Tellok Urduñan egonda, Gernika Iribildu eban Logroñoeko fueroakaz.

1.366ko Urrillaren 4an, Gerrikaitzeko ibarraren zaldunak eskatuta, Tellok Miranda de Ebrotik, Munitibar Iribildu eban Logroñoeko fueroan.

1.368ko Uztaillaren 7an Tellok Mirandatik baimena emon eban, Lekeition, Bizkaiko bigarren lekaimetxea eraikitzeko Andre-Predikariarentzat⁽¹⁾.

1.369ko Epaillaren 23an Trastamarako Enrikek, bere anai Gaztelako errege I Pedro Odol Zalea il eban Montieleko ibarretan egineko gudan, eta Tellok aitzaki barik geratu zan bere anai Trastamarako II Enrikegaz bat ez egiteko.

1.370an Urrillaren 15ean Tello, Aroko Diaztar Juanaren alarguna zana, Medellinen, ondorengo barik il zan, eta Palenziako Frantzizkotarren lekaidetxean illobiratuta dago.

Tellok, ez eben euki ondorengorik Aroko Diaztar Juanakin, baiña ezkontzatik kanpo:

Gaztelako Pedro, Kanporredondo ta Albako Jauna.

Gaztelako Juan, Agilar eta Kastañedako jauna.

Gaztelako Alfonso, erregiñaren lurraldeko jauna.

Gaztelako Juana, Anpudiako jaun Aroko Baezatar Alfonsogaz ezkondu zana.

Gaztelako Elbira, Gaztelako Almiral Jaun Fernandez de Tobartar Juanegaz ezkondu zana.

Gaztelako Fernando.

Gaztelako Maria, erregearen etxezain nagusi zanakin ezkondu zana.

Gaztelako Leonor, Albornoztar Juanekin ezkondu zana.

Gaztelako Isabel, Oñate eta Lenizko ibarraren Jaun, Belez de Gebaratar Pedrorikin ezkondu zana.

Eta emen agertzen da argi, Tellok, zergaitik ez eutson ezereen jaramonik egin bere emazteari, I Pedro Odol-Zaleak au Agilar de Kapon atxilotuta eukenean, ez ebalako ezereen jaramonirik egin, I Pedro bere anaiak, il egingo ebalabialdutako mezuari, eta gitxiago il ebanean.

Tellok, ez eban merezi Bizkaitarren jaun izatea, zentzunezko berbarik eukinez gain, koldar edo ollo-busti⁽²⁾ bat bakarrik izan zalako.

Tello eta Juanaren eriotzakaz, Aoren zuzenezko ondorengotasuna amaitu zan, ta Trastamarako II Enrike Gaztelako erregearen emaztea Juana Manuela, Aroko IV Lope Diazen arreba zana, eta Aroko Diaztar Teresaren bostgarren bir-alaba⁽³⁾ izan da, Gaztelako erregeen ondorengo seme Juan izango zanaren ardurapean geratu zan Bizkaiko Jauntza.

(1) Andre-Predikariarentzat = Dueñas-Predicadoras. Tellok, Lekeition euki eben jauretxean. (2) Koldar, edo Oilo-busti bat = cobarde. (3) Bost'garren Bir-Alaba = nieta de quinta generaciòn.

Arotar buruz, ondorio labur-bat:

Erromatar ta Godoen bidetik, baleike, errege-jaunen arteko sendietan ezkontzea oitura zarra izatea, ekintza orregaz euren sendiak betiratzeko, iru giza arlo menderatuz batera.

- a) Aundikotasunaren goiko mailla zaindu.
- b) Euren antolarazirako, leiñu edo ta erri-gizartearen kontrola euki.
- d) Euren arteko eztaibadak konpontzeko, senitasunaren aukerea.

Gure Euskalerrian, goiko maillan egon ziran: Iñigo, Nuño, Lopez, Diaz eta abar, izen abizen oneik, lenengoetatik agertzen jakuz. Baiña Arotar sendi orren izenburu ori, nondik agertzen dan jakin degun, edesti labur bat egin bear dogu.

Bilibion egoan gaztelua, zaindu edo jaurkintzen ebazan Aroko auzune ta inguruko lurraldeak, Miranda de Ebroraiño, eta III Lope Iñigez Bizkaitarren Jauntza eukinez gain, Gaztelako erregetzan aundienetariko gizonak izan ziralako, or be agintzen eben, eta Aro, euren bizi lekua egin eban lez, 1.123ko urte inguruan, kondetzaren mailla emon eutsen Aroko gazteluari, eta III Lope Iñigezen seme Diego Lopez Zuria izen-datu eben Aroko lenengo kondea.

Eta Aroko izena emongo eutson ondorengo belaun-aldian Bizkaitar jaurkintzazko Jauntzari ortik aurrera, etenbako 236ko urtetan.

1.359an, Gaztelako errege I Pedro Odol Zaleak Arotar Andre Nuñez de Laratar Juana, Telloren emaztea zana, Agilar de Kanpoko gazteluan atxilotuta eukinda, ondorengo barik il ebanean, amaitu zan Arotar leiñuaren izena.

Ata guzti, gure jauntza odolaren aritik artzea onartu gendun, naita aukerabide orreitan azpikeri aundi bat egon arren⁽¹⁾, Gaztelako errege Trastamaratar II Enrikeren emaztea, Juana Manuela, Aroko Diaztar Teresaren bostgarren birralaba izan zanaren eskuetan ipini zalako, ondorengo, euren seme Gaztelako errege izango zan I Juanen ardurapean geratu egian. Zeri begira ?. Argi dago zeren billa ibili ziran.

Gure Jauntza ortik aurrera, beti egonda Gaztela´ko erregearen eskuetan, arrigarria dana baiña, espainako erregearen ardurapean egonda, Austriatarrak beintzat⁽²⁾, Foru Legean babestu ebala gure Bizkaitar Jauntza.

Beste aldetik, Arotarrak Nafarroan, Aragoian, eta batez be Gaztelako jaurkintzan, aiñ garrantzizko gizon emakumeak izanda, Bizkaitarrak beti ibili gintzazan borrokan eurei laguntzen, eta borroka orreik Nafarroa eta beste euskal lurraldeetan izaten ba ziran be, borroka orreik beti edo geienetan izan ziran euskal anai artean.

21n Bizkaiko Jauna.

1.370eko Urrilla´ren 15ean Tello il zanean, Juana Manuelak on artu eban Bizkaiko Jauntza. Edestilarien gora beran, amaseigarren Jauna izando zana Bizkaiko jauntzan.

Baiña beren aurreko lau Arotar Andrek egin eban antzera, ez eutson emon Bizkaitar jaurkintza bere senar II Enrike erregeari, orduan 13 urte euki ebazan euren seme I Juaneri baiño.

1.371an Abenduko 20an Juan, Bizkaiara etorri zan gure Foruai ziñez itz emotera.

1.372ko Urtarrillaren 11n, baieztu ta obetu egin ebazan Bilbao ta Portugaleteko foruak.

1.372ko Urtarrillaren 20an, baieztu ebazan Durangoren Tabira ta Ermuko⁽¹⁾ foruak, Logroñoeko legean.

1.372ko Urtarrillaren 25ean, Lekeitioko foruak baieztu ebazan.

1.372ko Otsaillaren 12an, Munitibarreko foruak baieztu ebazan.

1.374ko Abenduaren 15ean, Plentziako foruak baieztu ebazan.

1.375eko Epailan 4an, Bilbao Iribilduagaz euki ebazan eztaibada ondore, Almazanetik baieztu ebazan Ugaoko lur tokian, Miraballeseko Iribildu-barriaren⁽²⁾ foruak, Logroñoeko legean.

1.375eko Ekaiñaren 18an Sorian, Aragoiko erregearen alaba Leonor Andreagaz ezkondu zan.

Eta euki ebezan seme alabak:

1.379ko Urrillan, **Enrike**, ondoregoa izango zana.

1.380an Azaroaren 27an, **Fernando**, Aragoiko errege izango zana.

1.382an, **Leonor** bere emazteak nexka bat eukiten dauala il zana, eta umea be laster il zana, izan ziran.

1.375eko Ekaiñaren 23an Olmedon egonda, ezkondu ta bost egun geroago, Bizkaitar alderdikideak euren borrokagaitik janariz beartuta, lur zabaleko nekazariei keiñuka ta lapurketan ibiltzen ziran, eta Juanek, nekazarien gaitzespeneko errenkura edo eziñegonai adi egonda, bere Arabar Urtado de Mendozatar Juan prestameroari⁽³⁾ deitu eutson, egin kizun areik geratzeko agindua emonda, eta bere aginpean euki ebazan zuzendariak ez ba ziran arduratzen, 600 marabediekin zigortu egiezala agindu eutson.

1.376ko Dagonillaren 1ean Olmedon egonda, Bizkaiko alderdikideek arazo aundiak sortzen ebezalako, Mungia, Larrabetzu ta Rigoitiako lurraldeak Iribildu ebazan Logroñoeko fueroan, eta Larrabetzuri Berresoganako Iribil barriren izena ipini eutson.

1.379ko Lorailaren 30eko goizaldean, bere aita ta bera Gaztela eta Nafarroako bakeak antolatzen egon zirala, II Enrike erregea, Kaltzadako Santo Domingon il zan.

Eta 1.379ko Uztaillaren 25ean ondorengo lez, Bizkaiko Jauna Juan izendatu eben Gaztelako errege, I Juanen izenagaz.

Ekintza orregaz Bizkaiko Jauntza ortik aurrera, Gaztelako erregearen eskuetan geratzen da.

Gaztelako erregeak emendik aurrera, Bizkaiko alderdikideek eragiten ebezan arazo bidez, oitura lez baieztu egiten ebazan Iribilduaren lurraldeak, legeak obetuz ta babeserako erritar gitxi eukenak, erritar geiagorekin sendotu edo indartzeko, edo ta Iribilduko lurralde geiago sortzen ebazan.

1.384ko Loraillaren 7an Badajozen, Portugaleko erregearen alaba Beatrizegaz ezkondu zan.

1.388an, Gaztelako errege I Juanek, bere seme Gaztelako errege izango zana III enrike izenarekin, Lankastereko Katalinagaz ezkontzeko zanean, Asturiaseko Printzerria sortu eban, eta eurok izan ziran leenengo Asturiaseko printzeak edo errege-erregiñ gai Gaztelako erregetza ondorengo lez jaurkintzeko.

1.390eko Urrillaren 9an, *farfanak*⁽¹⁾ ekarri ebazan, beren zaldunai zaldietan ibiltzeko euki ebezan trikimailluak erakutsi egiotzezan, eta I Juan zaldi gaiñean igonda, zaldia aztalkatu⁽²⁾ egin zanean, zaldia laban eginda lurrera jausi ziran, eta bertan il zan.

Bizkai tar jaun guztien artean, I Juan au izan zan danetatik geien arduratu zana, bai legean, zuzenbideak zentzun aundiagaz eroaten, eta batez be Bizkaitarren bereratasunari buruz⁽³⁾.

22n Bizkaiko Jauna.

1.391n Urtarrillaren 31n egin eben III Enrike Gaztelako errege, eta gaztea zalako, aolkularitzazko talde bat irasi bear izan eben, arik eta III Enrike bere nagusitasunera eldu zan arte, euren artean Bizkaitarrak zirala.

1.393an eldu zan Enrike bere nagusitasunera, eta Bizkaira etorri zan gure foruai ziñ egitera. Edestilarien gora beran, Bizkaiko amazapigarren jauna izando zana.

Dagonillaren 4ko larunbatean Bilbaon lenengo, ta Aretxabalaganan fueroai ziñ emonda, gero Larrabetzu ta Gernikan ziñezko itzak emonda, Iraillaren 4an Bermeoko Santa Eufemiren eleizan egin ebazan. Eta ekitaldi orreitan, Bermeo ta Bizkaiko Iribildu guztien lege bereziaz be, ziñezko itza emon eutsezan.

1.394an Abenduaren 22an III Enrikek, Bizkaitar andikiak euren artean sortzen ebazan borrokazko arazoakaz kezkatuta, bere Gonzalo Moro zuzengillari⁽⁴⁾ deitu, ta erkidetasunez talde bat batu egian agindu eutson, batzar orretan bear ziran arauak idatzi egiezan.

Alkartasun orrek ez eban ondorio onik euki, leen: Bizkaitar andikiak, ez eutsoelako jaramon andirik emon.

Eta bigarren, Zelaia tar Adrianek esaten dauan lez: Arau orreik, ez ziralako egin Bizkaitar Foruak ezkatzen eben adostasunagaz.

1.402an, III Enrikek, Portugaltarrakin egin eben gudu arte bat, eta bake ori ziñatzen, Bilbao, Bermeo ta Donostiko arduradunak, Ruiz de Arteagatar Martinegaz egon ziran.

(1) Farfanes = mozàrabes o cristianos que habian servido a los moros, apellidados farfanes, y hábiles en el manejo y carreras de caballos. (2) Aztalkatu = espolear. (3) Bereratasun = comodidad, prosperidad, libertad. (4) Zuzengillea = corregidor.

III Enrike eta Katalinak, alaba bat euki eben lenengo, eta mutillaren ezean, Gaztelako erregetzaren ondorengo izendatu eben.

1.405an jaio jakien Juan semea, eta au izango zan Gaztelako errege II Juanen ize-nagaz, Bizkaiko Jauna izanez gaiñean.

1.406ko Abenduaren 26an Toledon il zan Gaztelako errege eta Bizkaiko Jauna III Enrike Naigabeduna esaten eutsoenai, eta bere ondorengo seme II Juanek, 22 illabete eukazala artu bear izan eben erregetza.

1.418ko Ekaiñaren 2an il zan Katalina erregiña, bere seme II Juan oraindiño aita ordearen babespean egon bear izanda.

Nafarroako erregearen aria ostera artuta.

IIIIn Karlos Biotz Andiko Nafar erregea.

1.361eko Uztaillaren 22an Nafarroaren Ebreuxeko leiñuaren IIIn Karlos Txarra eta Baloiseko Juana aita/ama bidez jaio zan Frantziko Mantesen Joliko errian IIIIn Karlos au.

1.375ean, Gaztelako errege IIIn Enrikeren alabagaz, Trastamarako Leonorrekin ezkondu zanean, bakeztu ebazan Gaztela ta Nafarrotarren artean egon ziran eztabaidak, gero I Juan eta IIIIn Enrikerekin iraun ebenak.

1.378ko urtean bere aita Nafarroako IIIn Karlosen aginduz, IIIIn Karlos, Frantziko Vn Karlosegana joan zan ordari-gizon(1) baten buru zanagaz itzegiten.

Vn Karlosek ez eban ontzat artu IIIIn Karlosek bere aitaren aginduz eroaten eban mezua eta atxilotuaz gaiñ, bere aita IIIn Karlosek Frantziko lurraldean euki ebazan jabetasunak kendu eutsezan Txarburgokoarenak izan ezik, auek ondo babestuta euki ebazalako.

Vn Karlosek, IIIIn Karlos zipertu edo oñazkatutako galdeketara bialdu ebanean(2), IIIn Karlos Logroñoeko Uria bereganatzeko ibili zala jakin eban Frantziko Vn Karlosek, eta Gaztelako IIIn Enrikeri esanda, onek Nafarroa erasotzeko agindu eban, IIIn Karlo-seri beartuz Brioneseko ongundea siñatu egian.

1.380ko urtean Frantziko Vn Karlos il zanean, Frantziko VIIn Karlosek askatu eban Nafarroako IIIIn Karlos.

Orañarte be bai, baiña emendik aurrera, Nafartarren gortekoak geiago begituten eben Frantziko gortera Gaztelatarren gortera baiño, Frantziko gortea jakituriz eta artu/emoneko arremanetan garbiagoak izan zirelako, Aragoiko gortekoaren antzera.

Eta Nafarroako IIIIn Karlos erregeak emendik aurrera, sendotu ta bizkortu ebazan Nafar izakizunezko almenak, bakean, eder lanetan, eta jaurkintzari, aurrerakuntza aundiak emonda.

Aurrerakuntza onegaz, Gaztela, Aragoi, Frantzia eta Ingalaterrakin bakeztu ebazan arremanak, eta neurri orreitan euren arteko lankidetasuna be bai, erregeen arteko ezkontzari ta Abiñoneko Aita Santuari lagunduta.

(1) Ordaritz = embajador, Ordari/gizon taldea = conjunto de personas que comprenden una embajada. (2) Zipertu edo oñazkatu = tortura. Oñazkatutako Galdeketa = interrogatorio, bajo tormento.

Beren erregetzazko asi onetan, A Buena Fe`ko ezaupidea erroaten eban Erbi-Txakur Zuria`ren erakundea irasi eban.

1.380an Uztaillaren 1ean ondatu zan Iruñako Eleiz Nagusia eta bereala asi ebazan konponketak, Tafalla ta Oliteko errege jauregiak be eraikita.

1.387an Urtarrillaren 1ean, bere aita IIIn Karlos il zanean igon eban Nafartarren erregetzazko aulkira, eta Ebreauxeko konde ta Nemourseko dukea izendatu eben.

1.388an Gaztelako errege ta Bizkaiko Jauna zana I Juanek, bere seme Gaztelako errege izango zan IIIIn Enrike, Lankasterreko Katalinagaz ezkontzeko ibili zanean, Asturiaseko Printzerria sortu eban, eta eurok izan ziran lenengo Asturiaseko printzeak edo errege erregiñ gai, Gaztelako erregetza ondore lez jaurkitzeko.

1.402an Aragoiko erregetzagaz bakeak lortzeko, bere alaba Blanka Siziliako IIIna eta Aragoiko errege izango zan I Martin Gizabideko gaztea deritxonagaz ezkondu eban, eta elkarrizketa bardin antzeko baten ibili zan Ingeles eta Frantzikoarekin.

1.404ko urtean IIIIn Karlosek, Pariseko alkargoaren bitartez eta Txanpaña ta Brieko jabetasunak frantzezari itxi ondoren, Frantziko VIIn Karlosegaz garbitu ta argitu ebazan Frantziko lurraldeetan euki ebazan Ebreauxeko Nafar jabetasunak, bere nafartar adizkideak Frantziko gortearen leku garrantzientarako izendatzea lortuta.

1.409ko urtean Bartzelonan il zan Nafarroako I Blankaren senarra, "Gizabideko" deritxon Siziliako IIIna eta 1.396ko urtean izendatu eben Aragoiko I Martin erregea.

1.412ko urtean Granadako moruen erregetza menperatzeko alegiñetan be ibili zan Gaztelatarrei laguntzen, ta aukera orretan Antekerako Fernando Gaztelako errege semearen semeakaz ezkondu ebazan Isabel eta Maria bere alabak.

1.413ko urtean IIIIn Karlos onen zeregiñ onenetan, Goienero Auzitegia sortzea zan.

1.415eko urtean IIIIn Karlosek, bere alaba Blanka Aragoiko I Martinen alarguna, norekin ezkonduko arazoan aurkeztu zan.

Eta Foix etxekoak, euren alaba Juana il zanen alarguna IIIIn Juan aurkeztuta, Aragoiko I Fernandok bere bigarren seme Aragoiko IIIn Juan izango zana aurkeztu eutsoen, eta Blanka baiño 12 urte gazteagoa izan arren, IIIIn Karlosek, len Foixekoakaz sortu zana Nafartarren erregetza Frantziko erregetzagaitik iruntsita geratzeko arrizkuan ostera sortu ez egian, bigarren aukera artu eban ontzat, eta Aragoiko IIIn Juanegaz ezkontzeko geratu ziran.

1.419an Azaroaren 6an Oliten sinatu zan, eskontza au araubideko baldintzakin izenpetu bear zala.

Eta 1.420ko Otsaillaren 18an Guadalajarako egiunetan ezkontza au aurrera eroateko aukeratu ziran baldintzak, oneixek izan ziran:

a) Nemurseko dukadoa artu ondoren, Nafarroako erregetza, I Blankarentzat eta beren ondorengoarentzat izatea.

b) Nafarroako erregetzan iñungo lurralderik ezin zala zatitu, eta erbesteko erregetza baten menpe geratu.

d) Nafarroaren jaurkintzazko gortearen ardurazko lan tokiak, Nafartarrentzat bakarrik izan zitezela.

IIIIn Karlosek neurri orreikaz, naita Nafarroako erregetza Trastamarako etxeagaz ezkondu arren, bere erregetzazko eskubidearen izatasuna ondo lotuta gura eban, Nafartarren erreiniua baldintza sendoakaz, askatasun guztiegaz irautea gure ebalako.

1.423ko Urtarrillaren 20an IIIIn Karlosek, I Juan Gaztelakoa Asturiasen egin eban antzera, Bianako printzerria sortu eban Nafar erregetzaren ondorengotzat, eta beren billoba IVn Karlos izango zan lenengo errege-gaia, Bianako erakunde barri orrek izendatuko ebena.

Urte onetan be sinatu eban, Bilketaren Lege Berezia⁽¹⁾.

1.425ean Iraillaren 8an, berak iraike eban Oliteko gazteluan il zan Nafarroako IIIIn Karlos Biotz Andiko errege au, Nafarroako jaurkintzaren alde alegiñ on aundiak egin da gero.

IIIIn Karlosek, Trastamaratar Leonorren ezkontza bidetik, seme/alaba oneik euki ebazan.

Juana Foixeko konde-andrea, Foixeko IIIIn Juan kondeagaz ezkondu, eta 1.383/1.413 urte bitartean bizi zana.

Nafarroako I Blanka, Nafarroako erregetzan bere aita IIIIn Karlosen ondorengoa izango zana eta 1.385ean Iruñan jaio eta 1.441ean Jorraillaren 3an Santa Maria de Niebasen il zana.

Maria, 1.388ko urtean Iruñan jaio ta 1.406ko urtean Urtarrillaren 6an il.

Margarita, 1.390ko urtean jaio ta 1.403/25an il.

Beatriz, Martxeko konde-andrea, IIn Jaime Martxeko kondeagaz ezkondu zanezik, eta 1.392 jaio ta 1.415ko urtean il zana.

Isabel Armañakeko konde-andrea, Armañakeko kondea IVn Juanegaz ezkondu zanezik, 1.395eko urtean jaio, eta 1.435ko urtean Dagonillaren 31ren ostetik il zana.

Karlos, 1.397an Dagonillaren 15ean Iruñan jaioa, 1.398ko urtean Nafarroako erregearen ondorengo izendatu ebena, eta 1.402an Dagonilaren 12an Lizarran il zana.

Luis, 1.401ean Oliten jaioa eta 1.402an Urrillaren 14an il zana.

Eta Esparzatar Maria Migelegaz, ezkontzaren kanpoko sasiseme/alaba auek euki ebazan.

Nafarroako Juana, 1.396an Ortiz de Zuñigatar Iñigoren lenengo ezkontza bidetik Sada ta Eslabako andrea zana, eta 1.424an Beaumont´tar Luissegaz bigarrenez ezkondu Leringo konde-andrea izan zana.

Lanzelot, 1.386an jaio ta 1.420an Urtarrillaren 8an il zana eta 1.408-1.420ko urte bitartean jabetasun barik egon zalako, Iruñako apezpikutegian gotzaiñaren ordezkoa izan zana.

(1) Bilketaren Lege-Berezia = privilegio de la Unión.

Godofredo, Korteseko Kondea eta Arellanoko Teresagaz ezkondata egon zana.

Leonell, 1.441eko urtearen ostetik il zana.

Eta Maria, lekaimea izan zana.

Oar txiki bat emen.

Emen amaitzen da laugarren ale onen idaz lana, ondorio lez ezer ipini barik, bostgarren aleko aurkezpenean joango dalako ondo zeaztuta.

Jaungoikuaren laguntzagaz, laster izando dana.

Atutxa'tar Paul

Zornotza'n, 2.015eko urtean Irailla'ren 16'an



Euskeraren Erri Akademia
Academia Popular de la Lengua Vasca
L'Academie Populaire de la Langue Basque

e-mail: aeuskerazaintza@gmail.com
www.euskerazaintza.org